Amabosteroko
— ingurtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
113'g. zenbakija

Euzkeldunei Euzkeraz

1919

Zornotza Urtarila 1'g.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia 113'g. zenbakija

Euzkeldunei Euzkeraz — 1919 — Zońnotza Urtańila 1'g.

*Gure bazkide ta irakurle gustijei urte barri zoriontsua :: :: opa dautsegu bijotz-bijotzetik. :: ::*

## Gabon osteko lenengo igandia

GOIZPARKIA.

ALDI ATAN: Jose ta Maria, Jesus'en Ama, geltzen (arritzen) ziran Beratzaz esaten ziran gauza arekaitik. Eta Simeon'ek onetsi ebazan eta Bere Amari esan eutson: Au ipiñita dago askoren galtzerako ta askoren jasoterako ta aurrezkatua izango dan ikurra edo señalia izateko (eta zeure gogua ezpata batek birrinduko dau), biotz askoren asmuak agertzeko. Eta aldi atan zan Aser'en erkiko (tribu) Phanuel'en alabea Ana eritxon iragarle bat: au urte askoduna zan eta bere neskatilla arotik zazpi urtetan bere senarragaz bizi izan zan. Alarguna zan eta larogei ta lau urteduna, ta elexatik etzan aldentzen eta gautegun barau ta arren-egiten Jaungoiko'aren menpian bizi zana. Berorrek, ordu atantxe elduta, Jauna autortzen eban, eta Israel'en gaizkakundia itxaroten eben gustiai Bera'tzaz itz - egiten eutsen. Eta Jauna'ren lege - agintza gustiak beteta gero, Galilea'ra, bertako uri Nazareth'era biurtu ziran. Eta Umia asi ta sendatzen zan jakituriz beterik eta Bera'gan Jaun-Goikoa'ren eskarra egoan.

Kistar maite: Kisto, goizparki onek diñonez, aurrezkatua izango zan ikurrin edo bandera lez izateko munduratu zan. Bere aldez eztagona Bere aurka dago. Eztago bitarterik. Edo Kisto biotzez maitatu edo gorrotau. Alderdi bi baño eztira munduan; Kisto-zaliena, ta Kisto'ren etsayena. Jesu-Kisto'n kaltez agiri-agirian dabiltzazanak: Kisto itzez maitatu ta euren epelkeriz, edo gaiztoen esamesaren bildurrez, edo txarrago, oitura zatarrez, egiñenagaz Kisto'n kaltez dabiltzanak; eta Kisto'ri ta bere Ordezkoai, oso-osoan men-egiten dautsienak; itzez ta egitez Bera maite dabenak.

Eta zeu zein aldratakua ete zara? Etsai agirikoen artekoa ba'dakit ezetz: baña epelen artekoa ez ete zara? Ez ete dautzazu zeure epelkeriz edo oitura txarrakaz indarrik emon eta lagundu ezetan be, Kisto'ren etsayai? Alan ba'da zoruntsua zuretzat igaro dozun urtia, baña zoritxarrez besterantza ba'da, ointxe da erabagi barriak artzeko aldi egokia. Urte zarra, jantzi zarra lez, bastertu, ta urte barriz bizitza barria artu, Kisto'ren jarraitzalle zintzo-zintzoa beti izan zaitezan, eta dopatzudan lez, urte zoruntsua igaro daizun.

GABIREL.

da oben, baña norberak bere *oldez* (guraz) billatzia pekatu da, biyotza sutu, odolak piztu, ta aragikeriyan yausteko zoriyan buruba ipinten daulako. (ARREGI). *K)*. Aragikor atsegiña. Auxe da galeraziya.

—*Noz da pekatu atsegin ori?*

—Atsegin au *A)*. pekatu da, ta beti oben astuna, norberen olde (konsentimentu - gura - nai) osoz billatu edo artzen danian. Zertzelada onekazko atsegiñik izpiyena-be pekatu astuna da. *G)*. Norberak beste zerbait ba'dagi atsegin ori sortu leikiana, *zerbait* ori egiteko ziyoa (motivo) astuna ba'da, ta atsegiñari gogorik ezarri ez, ez dau pekaturik egingo: ziyua ariña ba'da, ta gogorik atsegiñari ezarri ez, oben ariña izango da; ziyorik ez-padau, oben astuna dagi. Aunela obenik ez dagi bere egikizunian aragikor atsegiña susmetan daun osalariyak, atsegin orri gogorik ezarri ezik.

—*¿Zeinbatarikuak dira aragikeri oben edo pekatuak?*

—Aragikeri - obenak irutarikuak dira: *gogozkuak, gura-izatezkuak eta egitadazkuak*.

**Gurutz.**

# Urte zarra ta Urte barria

Urte zarrak aurkitu dau,
bidean urte barria:
barriak itandu dautso:
— ¿ Nora zoaz aizkidia ?

— Neu, aberrirantza nua,
diñotso abots alegez,
biotza erdibituta,
samiñez eta naibagez.

—¿Zer dala-ta zoaz itun,
alege betiraunera?
¿Zelan eztaukozu pozik
juateko aitan etxera?

—Egia: poza ba'daukat,
neure aita ikusteko:
baita zio ugaria be,
itun - itun egoteko.

On-ona dan neure Aitak
ludira bialdu nindun,
ta pozik etorriarren
oin ba'nua itun - itun.

Gizonak donokiratzen
poz - pozik neu etorrita:
¿zelan egongo naz alai
jazo yatana ikusita?

Neuk altsuan artu dodaz
Jauna'n naya eragiteko:
bizitza labur ondoren
danok donokiratzeko.

Baña gizonak tamalez
arrokeriaz beterik,
eztabe bete gura izan
Jaungoikua'ren legerik.

Geyago tamaltzen nauna
asartu yataz eitera:
neuri be, nai - ez-da, eragin
oben eurakaz batera.

Ba - dakuzuz zelai daron
zabal - zabal itxaso lez?
gizonaren gorrotuak
oro bete dauz odolez.

Anai - alkar - maitasuna
ito da odol artian;
gorrotuaren agintza
dala nagosi ludian.

Jainkoa'ren maitasunak
gorrotoaren zigorra,
bialdu dau samurtzearren
geure biotz ain gogorra.

Guda, zoritxar, odolez,
zamauta daukat lepua:
samin - atsekabeturik
¿eztot euko, ba, gogua?

Iraduz joan biar dot,
neure etxe betiraunera,
geyago ez biurtzeko
atsekabezko lurrera.

—Agur ta eskarrik asko,
diñotso urte barriak:
kendu daustazuz gogotik
ludi gurari biziak.

—Nik baño zori obea
euko al dozu ludian.
—Agur ba etorri arte
ondo ibilli bidian.

GABIREL.

# Jauna'ren Agerkundia. - (Erregen)

### Sorkaldetarrak.

*Erodes bakaldunaren* (errege) *aldiyan, Jesus Belen'en yayo zanian, Aztiyak* (Magoak) *Jerosolim'era eldu ziran esaten: "Nun dago yayo dan Judarren bakalduna? Bere izarra Sorkaldian ikusi dogu ba, ta Berari gur - egiteko* (adoratzeko) *gatoz*". (MAT. II - 1).

### Nortzuk ziran?

Aundikiyak zirana bai - dakigu, noski. Ez baña zer ziran. Bakaldunak, jakitunak, yaupariyak (apaizak) ori gustiori adirazten eben Persi'tarrak *Azti* itzaz. *Aztiyak* beste erritarrakandik berezitu bizi oi ziran. Ortzizti (astronomia) ta beste yakingayetan oso aituak ziran. Juan - etorri luziak egiten ebezan atzerriyetako ikasgai gustiyetan aurrenen izateko. Aztiyen artetik aukeratzen ebezan geyenez Sorkaldetarrak euren *aldun* (agintari) ta *yaupariyak*.

Artzaiñak lez beingoan agertu ta estaltzen dira lorratzik itxi bage. Artzañak txiro, langin, nekazari ordezkari lez Jesus gurtu eben. Aztiyak aberatzen ordezkari lez. Gizabatz erdi biyak Jesus'en aurrian belaunikotu ziran. Txikiyak, zeyak, lanpetuak; eta aundikiyak, aberatzak, atse-

Ez al dozak ba
Oben-igali?

Ebai zugatza, kendu zustarra,
Yo azkoriaz,
Ezi gorputza,
Lanari ekin
Zaindu legia,
Gura ez padok zigor-abarra.

. . . . . . . . . . . . . . . .

Atsegin bizi
Zorun iltzeko,
Yosu-ikasle,
Artu, ikasi,
Sendi artian
JAUNGOIKO-ZALE

**I. tar J.**

# ZERUKO ARGIA

Gauŕ, urte baŕiz, ZERUKO ARGIA agertuko dala esan dauskube. Bere egikixuna gustiz ondo deritxagu, geure JAUNGOIKO-ZALE'ren antzekua da.

Beti goguan ixan dogu Bizkai'ko JAUNGOIKO - ZALE au edo antzekua Gipuzkua'n be ixan biaŕ litxakela, baña urtiak igaro ta urtiak eldu, gipuzkuaŕ jauparijak geure asmuak ez dabez egiztu. Jauna'ri eskaŕak, buruñuŕdunak (capuchinos) itxaŕtu dira, ta adoretsu euzkel - inguŕti bat iloro aŕgitaltzeko gertu dira.

Iloroko inguŕti ori gipuzkeraz ixango ei-da, ta uste oso-osua dogu edeŕa-be - edeŕa ixango dala, idazle azkaŕak dira-ta.

Eŕdu len-bai-len, lagun maŕia, Jaungoikua eta euzkera-aldez lan-egiŕera; irakatsi gipuzkuaŕei euren elgiz (dialecto) donoki bidia; ZERUKO ARGIA'k euren adimenak aŕgiŕau dagixala, geiztokiko irakaspen galgaŕijak ZERUKO ARGI - bidez ayenatu daŕezala, eguzki-aŕgiŕan iluna lez.

JAUNGOIKO - ZALE'k aguŕ laztana egiŕen dautzu.

# IPUÑA

Zoruntsu bizi gura dozu? Daukazuna baño ezeizu gura ta lortuko dozu. Auxe adirazten dau *Gizon zoruntsuaren alkondara* deritxon ipuñak.

Sorkalde'ko bakaldun edo errege bat gexorik zegoan. Osalariak alegin gustiak osatzeko egin ondoren osakai bat bakarra zala bera osatzeko adirazi eutson: *Gizon zoruntsu baten alkondarea jastea*. Agintari ta inguruko gustiak urten ziran berialaxe gizon zoruntsu baten billa, ta erri koskor gustiak, be, arakatu ebezan, baña alperrik: ille batzuk lan onetan igarota biurtu ziran itun bakaldunagana (errege) ludi gustian gizon zoruntsu bat be ezebela aurkitu adirazteko. Onetan, etozala, solo lanetan ebillen lugin baten abesti alai - alayak entzunda urreratu yakozan eta itandu eutsoen:

—Ain alai egoteko zoruntsu biziko zara, ezta?

—Ni, bai, erantzun eutsen oso - osuan lugiñak.

Errege - otseñak alkarri begira jarri ziran. Ondo dago — esan eutsoen — ba nai-ta-ez zeure alkondarea biar dogu.

—¿Nire alkondarea?— erantzun eutsen lugiñak irribarre gozatsuaz — ¡Nire alkondarea! On egin daizuela zeuori ba'daukazue. Begira... — esanaz paparra zabal, du eban eta... ¡ezeukon alkondararik!

GAMA·

# ITAUN - ERANTZUNAK

**Kistar aldija.**— Jesus'en yayotzaz asten da Kistar aldija. VI garren gizaldiyan, Dunixi Txikiya eritxon lekaide (monje) burutsuak sartu eban urtiak Jesus'en yayotzatik zenbatzeko (kontau) oiturea. Baña zoritxarrez, lau-bost urtien okerra egin eban. Dunixi'k uste eban Jesus yayo zala Roma iragi zaneko 753 garrenian. Beraz 754 zan Kisto'ren aldiko 1. Ezin baña Kisto yayo 753 n, Erodes'en aldiyan yayo zalako, ta Erodes 850 n. il zalako. 749 n. geyenez yayo biar, ta aztiyak urte bete inguru bidian egin ba eben, 748'n. Jesus yayo zan baño lau bost urte atzerago bizi gara ba zenbakuntzaz.

**Zepuan arrapau.**— Itxi zengi bai dirua seme ta morroi ori lapurretan arrapau ta, *zigortu* ta *bideratzeko*. Aitu ondo; zigortzeko bakarrik ez, zigor bidez zuzentzeko baño.

**Basozañari.**— Zuk diñozun ori, zeuk esan lapurretan eiteko ta gero zalatu ta baitu, ta asmo orregaz lapurretan eiteko esan; ori iñundik be ezin leike.

**Gaitz txikiyagua.**—Gaizkeri aundi ori egiteko erabagita ba'dago, ta asmo txar orrek kentzeko biderik ez, zuk diñozuna egin arren, obenik ez dagizu. Aundija egiteko gertu daguanari, txikiagua egiteko onua emotia, ez da obena.

# IDAZTI BAŔIJAK

## Urkixo Jaunaren Oñate'ko Itzaldia

Iraḻa'ko batzaŕean Oñate'n entzun geuntsan itzaldi edeŕa, apain-apain iraŕiṯa, Urkixo Jaunak bialdu dausku. Itzaldi onek euzkereagazko ikasketak gaur-egunean zetan diran darakus. Emendik uŕin, atzeŕian, euzkereatzaz egiń diran lanak, aŕgiṯaldu diran idazkiak eta lan oŕeik egin dabezan jakiṯunen izenak ezagutu nai diṯuanak, itzaldi oŕen lenengo atalean eŕez eta lasteŕ ezautu daikez. Euzkeleŕian euki doguzan eta orain daukaguzan euzkeltzale jakiṯunenak be aitatzen diṯu: baña izkuntzaen izakera ta aldakerak ezagutzeko, atzeŕiṯaŕ jakiṯun oŕeik, etxekoak baño obeto gertuta dagozala-ta, oneik gitxiegi ta aek laŕegi goresten ete-diṯuan bilduŕ naz. Euzkereatzazko lan eta ikaste oŕeitan zuzen ibilṯeko, izkera *asko* baño euzkera *asko* jakiṯea obe dala deritxot.

Astarloa, durangaŕ euzkeltzale ospetsua, bere eretxietan okeŕ ibiḻi zala ta berau lez, gero aoni jaŕaitu dautsen beste enparauak be, euzkel - jakintzaren auŕerapiderako, eragozpen andia izan dirala diño. Nire eretxiz—diño gerotxuago—euzkereatzazko ikasteak eta euzkerea bizkoŕtu ta zabaltzeko egiṯen diran lanak, berezi beaŕ litzakez ta aldra bakotxak, bestearen arazoetan saŕtu barik, bere saḻari ekin beaŕ leuskio, aonelan askozaz be geyago auŕeratuko geunke ta. Azkenez, euzkel-jakintzan auŕeratzeko, bere eretxiz egin bear litzakezan lan oŕeik zeintzuk diran eta zelan egin leikezan, adirazten dau. Geuk be, lan oŕeik ainbat lasteŕen egitea, ondo baño obeto izango litzakela deritxogu.

Eskaŕik asko zuri, Urkixo Jauna, zeure Oñate'ko jaŕdun ori bialdu dauskuzulako.

A mabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
114'g. zenbakija

Euzkeldunei Euzkeraz
1919
Zońnotza Urtańila 15'g.

## Jauna - Irakuskunde osteko irugarren igandia

GOIZPARKIA.

ALDI atan: Jesus menditik jatsi zala, gizoste andiak berari jarraitu eutsen. Eta usteridun (lepradun) bat urreratuta gurtuten eban, esaten: Jaunoi, gura badozu garbitu naikezu. Eta Jesus-ek eskua luzatuta ikutu eutson, esanik: Gura dot. Garbitu zaite. Eta beriala usteria garbitu yakon. Eta Jesus'ek esan eutson: Ara, ezegiyozu iñori esan; baña zoaz ta jaupari edo abadeari aurkeztu, eta eskiñi egizu Mois'ak agindu eban oparia, egitzat artu dayen. Eta Kaparnaun'en sartu zanian Eunburu bat (eun soldaduen nagusia) urreratu yakon berari arrenka esaten: Jaunoi, neure mutilla, etxian dago, oian elbarrituta, ta min ixugarria dauko. Eta Jesus'ek esan eutson: Joango naz ta osatuko dot. Baña Eunburuak erantzuten esan eban: Jaunoi, ni enaz Zeu neure etxian sartuteko duña: baña itzez esan egizu, ta neure mutilla osatuko da. Ba neronek be, nagusipian nagon gizona izan arren, neure agindupian gudariak daukadaz, eta oni esaten dautsat: Zoaz, ta baidoa, ta bestiari: zatoz, ta bai-dator; eta neure otseñari, au egizu, ta egiten dau. Entzunaz Jesus miraritu zan eta bere jarrai joyazanai esan eutsen: Egiz dirautzuet: Ixarrel'en be, eztot ainbesteko ziñesterik aurkitu. Eta zeuoi dirautzuet, Sorkaldetik eta Sarkaldetik asko etorriko dirala, ta Goi-bakalderrian (zeruko - erreñuan) Abarran, Ixak eta Jakob'gaz jarriko dirala. Eta bakalderriko semiak barriz kanpoko illundira botako dira: an negarra ta agin-karrakadea izango dira. Eta Jesus-ek Eunburuari esan eutson: Zoaz eta ziñestu dozun lez gertau dakizula. Eta mutilla ordu aretantxe osatu zan. (MAT. VIII, 1-14).

* * *

Kistar maite: Gaurko Goizparkian aitatzen dan Eunburua ziñesge (gentilla) izan arren, kistarrok eredutzat artu biar geunke. Ziñesgea zan: eta ziñesgien artian oituraz abereakaz be, ugazaba otsein eta menpekoakaz baño geyago arduratzen zan. Eunburu au baña, kistar askok baño geide-maitasun zintzoagoa biotzian ebala, bere otseña osatseko alegin gustiak egin ondoren, Jesu-kisto'gana urreratzen da, uste beteaz otseñaren osasuna eskatzeko. ¡Kistar ugazabentzat eredu ederra! Beronen ikaskintzak aintzat artu ba'ebezan ainbatek igaro dan izurri-aldian. ¿Gertatu diran jazokun lotsagarri asko, kistar artian iñoiz be ikusi biar elitzakezanak gertatuko ete ziran? Eztot uste. Ugazaba ta otseña Aita baten semiak dira, Jesu-kisto'k bere Odol ederrez berreroziak, ta betiko zoriontza baterako egiñak. Alan da be, tamala da, bada egi-egiz esan geinke, ugazaba askok Kain eredutzat artuta euren biotzian esan dabela: «¿Ni neure anaiyan zaintzallia naz ala?» (GEN. IV - 6). Eta gaitzerdi, euraen arimako osasunaz arduratuko ba'lira. Baña danok dakigu gertatzen dana. Ugazaba kistarren etxeko gela gustietan Paul deunaren itzok

idatzi biar litzakez: «Bere otsein edo menpekoakaz iñorbait arduratzen ez - pada ziñestea ukatzen dau eta ziñesgea baño gaiztoago da». (Kor. 11 - 14).

Eunburuak otoi ondo egiten be irakasten dausku, batez be, ziñeste biziaz, uste osoaz, ta apaltasunagaz. Jesus'ek geure eredutzat goraldu eban: «Ixarrel'en be ainbesteko ziñesterik eztot aurkitu», esan ebanian. Otoya biar dan eran egin ezkero beti da egikorra, Jainkua'ren abintzaz. (Mat. VII - 7). Eta Jesus'en izenian eskatu ezkero beti lortuko dogu eskatzen doguna. (Joan. XIV-13). Eta lortuko ezpadogu, edo gaizki eskatzen dogulako, ala gauza txarrak eskatzen doguzalako, edo geu zeruratzen galerazoko dauskuen gauzak eskatzen doguzalako izango da. Jarraitu ba, Eunburuaren lorratzai ta zeure otoyari be Jauna'k arrera ona egingo dautso.

GABIREL.

# Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 19'gn. eta 26'gn.

Igandietan kistař orok jaupa osua entzunbiar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 15'gn. Deun - Paul lenengo lekautija.

17'gn. Deun - Andoni, lekaipuruba, aberealdez zaintzaļia, beraz, lugiñak berarizko eraspena dautsoen Deuna.

22'gn. Deun - Bingen, ziñopea, odolez, euzkotařa, Iñake bere amea, Bizkai'ko Kařantzatař baten alabea zan.

25'gn. Deun-Paul-Donekundia.

27'gn. Deun - Jon Kixostoma, txonislarijen eredu ta zaintzaļia.

29'gn. Deun-Pantzeska Salestařa, Gotzaña, Iraslia ta Irakaslia.

**Jokin.**

# DOIPURU BENEDITO XV'gaŕenaren IDAZKIJA

## Jauna'gandik gentza (bake) zuzena ta iraunkoŕa jadesteko Aŕentzak.

BENEDITO XV'GAŔENAK

*Neure Anai guŕgaŕijei, Goteŕkabak* (Patriarkak), *Lateŕijetako Gol̄zain-buruak, Gon-gotzañak, Gotzañak, eta Aulki Beldukaŕ onen laguntza ta Alkaŕtasuneko Nagosijei.*

*Aguŕ eta Oneskun Beldukaŕa.*

Aspaldijon ludiko gustiak joranez itxaron dabena, eŕi kistaŕ gustijak euren otoi-aldijetan aŕen eskatu dabena, Neuk, gustijen oñaze-adirazle nazala, oroentzat dodan ardura at̄akoŕez gogo-gogoz alegintzen nintzan onek geure gurarija bat-batian egiztu da, izkil̄uak ixild̄u dira.

Ondiño be gentzaz (bakez) guda ankeŕ-ankeŕ au ez da baretu, bai baña itxasue-tan, leoŕean eta axetan ixaten ziran erijotzak eta sakailtzeak it̄unben-bidez gel-arazo ta it̄unben ori gentza (bake) - bide zoruntsuba ixango da.

Aldakuntza ori ain lasteŕ zegat̄ik ete - da, zegat̄i asko ageŕtu legikez; alabaña azken - gurena jakin gura - ba - dogu, geure goguak Jauna'gana, gustija darabil̄agana, jaso biaŕ-doguz: Berak, notin (persona) onen eskari sutsuz eŕukit̄uta, gixadija laŕialdi ta nekealdi ain luzetik aldendu dau.

Jauna'ren on - egit̄e andi oŕegat̄ik eskaŕ asko egin biaŕ - dautsaguz; ta Neu poz-pozik naz kistaŕak alde gustijetan eŕuki-erakuspen asko ta ospatsuak egin dabezelako.

Egun gitxi-baŕu Lateŕijen aldunak (agintarijak) batzalduko dira, ludijan betiko gentza, (bake), zuzen ta iraunkoŕa ixan dat̄en.

Iñoiz Gixa-batzak ez dau izan egikixun gaŕantsitsu ta gatxagorik.

Arazo oŕek ondo erabagit̄eko, biaŕ dabe Goi - aŕgija.

Gustijen onurea euren ardurapian dan-ezkero ta kistaŕak, kistaŕ lez, gustijei on-egit̄ia ta gentzaz (bakez) bixi - ixatia goiburutzat aŕtu - ezkero, Jaun - Goikua'ri eskatu biaŕ dautsoe aldun oŕei, Lateŕijen ordezkoŕei aŕgi - egin dagijela ta Bere Jakit̄urijak lagundu dagijela.

Gura dot kistaŕ gustijak egin - biaŕ au oaŕtu dagijela.

Batzaŕ oŕetik Jaun-Goikua'ren eskaŕa dan egizko gentza (bakia), ta zuzenbide ikaskintza kistaŕez eraldurik urten daijela; augat̄ik, zeuek, Anai guŕgaŕijok, Aŕgijaren Goiko At̄a'ri eskatu-ta, aginduxube, ondo-deritxazuben eran, zeuben Goteŕki (diócesis) ta txadonetan aŕentzak egit̄ia.

Neuk, Josu - Kisto Gentzadun Bakalduna'ren ordekua nazan onek, duiña ez - ixan - da be, Doipurutziak damostan bit̄aŕtekotasun gustijaren ind̄aŕak erabil̄iko dodaz, biztokijaren (munduaren) betiko gentza (bakia) ta adizkidetasunatzaz aŕtuko dirazen erabagikixunak, kistaŕ gustijak ontzat aŕtu ta zintso egiztutiaŕen.

Goi - eskaŕaren bat̄uratzat eta Neure ondo - nai - ageŕgaitzat zeubei, Jaupari ta Eŕijei gogo - gogotiko Neure Oneskun Beldukaŕa.

Eŕoma'n, 1918'gaŕen urteko Lotazil̄a'ren 1'an, eta Neure Doipurutzaren boskaŕen urte aldijan.

BENEDICTUS PP. XV.

# GOTZAIN IDAZKIJA

Idazki askoren aŕtian onetan be, Josu-Kisto Gentzadun Bakaldun eta Nagosijaren Ordezkuak biztoki (munduan) gentza ta gaizkapena (salbaziñua) ixatia gura daula aŕgi ageŕtu dausku, ez dot ba idazki ori goraltzeko biaŕik.

Doipurubak (At̄a Santubak) Gotzain gustijei ageŕtu dautsen aginbena, bete gura - dot, eta agintzen dot.

1.º Txadon - nagosijetan (paŕokijetan) jaupa (mesa) bat baño geyago egin - ezkero Goteun-jaupea abestuteko, Jaupa-idaztijan (mixalian) dagon lez. Otoya bakaŕa ixango da, *Gloria, Credo* ta bere *Præfatio*-gaz, azkenian Jon-Deun eraz Goizpaŕa.

Txaunbuṛuak eta txadon - arduradunak alegind̄uko dira *Pro populo* jaupea ixil̄a esateko, Goteun-jaupea baño lenago ta egunari jagokona.

2'gn. Jaupari bat bakaŕik ba'da, Goteŕki-egutegijak (epactia) ixendatzen dauna esango da, eguneko otoyari ezaŕten yakola ta amayera bataz *Deus qui corda fidelium,* Goteun-jaupan dagona, ta gero beste gomuta-otoyak.

3'gn. Jaupa-ostian Gure Jauna agiri-imiñiko da ta berialaxe Deun - Aŕendija batera abestuko da, beŕesan barik; gero *Boletin*'ak dauzan otoyak, Ikuŕton-Oneskuna ta Oteundegijan saŕtu Gure Jauna.

4'gn. Egi-egiz gura-dot baŕu-lekaimiak Zeruko-aŕgija eskatzen lagundu gagixela; oŕetarako, Jaun-aŕen, bijotz-bijotzez eskatzen dautset agintzen dodazan eleiskixunak iru egunian egit̄eko, baŕa Goteun -jaupea be, lekaretxe-jaupa-kaltez ezpada, ta jaupa ori entzutia biaŕa (obligaziñua) ba-da-be ta egunari yaokon jaupea ixan biaŕ ba-da.

Bigaŕen jaupa ixateko eretirik ezpadabe, eurena bakaŕik baño, laketuten dautset eguneko jaupa otoyari Goteunarena ezaŕtia, len esan dodan eraz.

5'gn. Neure Goteŕkijan ixango diran jaupa ixil̄etan, *dup. I. class.* ixanaŕen, *pro re gravi* lez, beste agintzarte, Goteun -otoya esango da (1). Kendu da *pro vitanda mortalit̄ate.*

Jaupa abestubetan *Et famulos* daŕaike.

6'gn. Eleiskixun onetara duakežanei beŕogetamaŕ eguneko nekazka (parkamena) emoten dot.

Gazteiz, 1919'gn. urteko Urtaŕil̄a'ren 12'gaŕenian.

† GOTZAÑAK.

---

(1). Josu - Jayotzaz, Jaun-Erakuskundez, Eguben ta Larunbata - gurenez, Beŕbizkundez, Igokundez. Goteun - Etoŕkundez, Irukoitz Deun -Deunez ta Kisto'ren Gorputza Gomultaldiz ixan ezik.

---

Ama—it̄anduten eban bein umetxu batek — ezer galtzen dan ezkero, ¿gure oldozkunak nora duaz?

Ameak ben - ben erantzun eutsan:

—Goiko-Jauna'ren burura duaz ta antxe *betiko* lotzen dira.

—¡Betiko! didaŕ-egin eban umiak. Buruba makuŕtu ta amea l̄astandubaz, ixiltxu esan eban: *Bild̄uŕ naz.* ¿Gu ez gara onetara iñoz bild̄uŕtu?

## YOSU-IXEN DEUNA´RI - J.Z.- 1919-114-014

Izenik eder ta gozoena
eztitsu eta biguna,
Yainko berberak ezarria da
YOSUren izen deun-deuna.

YOSU entzunaz donoki-goyan
poz ta zoruna sortzen da,
ta gaiztokia bildur-bildurrez
ikaratuta yartzen da.

YOSU argalen osakia da,
obendien itxaroa,
samin-naigabez dagoanentzat
YOSU da ezti gozoa.

Abestutean ezti utsa da
entzuteko leun-leunena,
YOSU biotz eta adimenentzat
da yaki samur onena.

Gure gogoa leor badago,
YOSU da iturri bizia,
adimeneko gau-aldietan
YOSU guretzat euzkia.

Itxasoa lez ekaitz gogorrak
naspilldu badai biotza,
YOSUn izena baretuteko
da gutzat indar laguntza.

YOSU eztala oro dago illun,
biotz barrena leorra,
ezta maitasun ta zorionik,
gustia nitzat gogorra.

Izen gozo au aurkitu ezik
etxat begiko idaztia,
YOSU sarritan aitatu ezik
etxat gogoko itzaldia.

Izen altsuau maite biotzez,
nai dot bizitza gustian,
YOSU! esanda Beraganatu
nadin eriotz aldian.

# Josu - Ixen Deuna'ri

Ixenik eder ta gozoena
eztitsu ta biguna,
Jainko berberak ezarria da
JOSU'ren ixen Deun - deuna.

JOSU, entzunaz donoki goyan
poz ta zoruna sortzen da,
ta gaiztokia bildur - bildurrez
ikaratuta jartzen da.

JOSU argalen osakia da
obendien itxaroa,
samin - naigabez dagoanentzat
JOSU da ezti gozoa.

Abestutian ezti utsa da,
entzuteko leun - leunena,
JOSU, biotz eta adimenentzat
da jaki samur - onena.

Geure gogoa leor ba'dago,
JOSU da iturri bizia,
adimeneko illún - alditan
JOSU, guretzat euzkia.

Itxasoa lez ekaitz gogorrak
naspiltzen ba'daust biotza,
JOSU'n Ixena baretuteko
da nitzat indar - laguntza.

JOSU bagerik oro dago illun,
biotz barrena leorra,
ezta maitasun ta zorionik,
gustia nitzat gogorra.

Ixen gozo au aurkitzezpadot,
etxat begiko idazkia;
JOSU, sarritan aitatu ezik
etxat gogoko itzaldia.

Ixen altsu au maite biotzez
nai dot bizitza gustian
¡JOSU! esanda, Beraganatu
nadin eriotz aldian.

GABIREL.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia 115'g. zenbakija

Euzkeldunei Euzkeraz 1919 Zoŕnotza, Otsala 1'gn.

## Jauna - Irakuskunde osteko boskarren igandia.

GOIZPARKIA.

ALDI atan: Jesus'ek gizoztiai ipuin-irudi au esan eutsen: Goi-ala (zeruko erreñua) azi ona bere soloan erein eban gizonaren antzeduna da. Eta gizonak lo egozala aren etsaya etorri zan, eta gari gañean irakea, urritsoloa, erein eban, eta joan zan. Eta bedarra azita galburuak egin ziranian orduan irakeak be agertu ziran. Eta etxeko Jauna'ri otseñak eldu yakozan eta esan eutsoen: Azi ona ez ete dozu soloan erein? ¿Zelan ba irakeak daukoz? eta erantzun eutsen: Gizon etsayak egin dau. Eta otseñak esan eutsoen: gura dozu joanda bildu daigun? Eta esan eban: Ez, irakeak biltzen, eurakaz batera gari ona be sustarkatu ez daizuen. Bioi igitarorarte azten itxi egiozue, ta igitaldian igitariai esango dautset: lenengo irakeak bildu ta azaoetan lotu egizuez sutarako: baña garia neure aletegian artu». (MAT. VIII, 24 - 30).

* * *

Kistar maite: Etxeko Jauna Jesu-Kisto da, ta bere soloa ludia (mundua), Eleiza, ta geure biotzak dira. Azi ona bere irakatsiak dira, bere aginduak, bere Ikurton edo Sakramentuak, baita bere aginduak betetan dabezen kistar on gustiak. Eta beti auxe egiten diardu Jesus'ek bere otseñen bidez. Etsaya, Satanas da, bere jarraitzalle gustiakaz. Eta azi ona alperrik galtzeko asmu gaiztoagaz azi txarra munduan, Eleizan eta geure biotzetan ereiten dau: guzurra, lizunkeria, diruzalekeria ta ekandu txarrak, itzez, idaztiz, ta jolasez zabaltzen dituala. Jesus'ek azi onagaz egia, ontasuna ta bizitza zabaltzen dauz; Satanas'ek ostera, guzurra, gaiztakeria ta eriotza. Eta azi biok solo baten erein, erne ta azten dira, eta bardin-antzekoak diralako bata bestiagandik zeindutea ez ta errez. Eleizan be, obendiak eta deunak, onak eta txarrak batera bizi dira, eta sarritan otsoak izanda ardi narruz agertzen diralako, nor zer dan ezagutzea ezta gauza erreza. Eta berberau jazoten da geure barruan be, azi ona ta txarra batera ernetan diralako. Eta askok, naste au ulertu ezin dabelako, buru auste andiak izaten dabez eta on zaletasunak igituta, Goizparkiko morroyak lez, bat-batian gurako leukie landara txar gustiak sustarkatu ta ezerestutia. Baña epe bagetasun au bidezkoa ete-da? ¿onura baño kalte geyago ez ete leuke ekarriko? ¿erne orduko txarrak ezereztzen ba'doguz, zelan onduko dira? ¿bedar txarrakaz batera bedar on asko ez ete litzake galduko? bizitza barriz gudaritza lez da, burruka gogorren bidez betiko zoriona irabazi biar dogu. Eta zelan lortu etsairik izan ezik? landara txarrak ikusita sortzen dan asarre epebagia ba, ondo aztertu ezkero; ¿norbera bakian bizi gura izatetik, eta txarrakaz batera bizitetik sortzen diran atsekabiak geugandik aldentziarren ez ete da izango? Alegindu biar gara, bai, ikasbide onakaz azi ona ereiten, ontasun ugaritasunagaz txarkeria itotzeko, eta bedar gaiztoa dana, bedar on biur-

tzeko, baita sustarkatu be gari txarra, onaren galte barik egin al-danian, ez baña bat-batian, epe barik, geu bakian biziteko gurariaz, txar gustia ludi onetatik jaurtiko dogula uste izan-da. Jaungoikuak ba, ludi onetan txarrak bizitea laketzen dau, edo eurak onduteko, ala onak obetuteko. Txarrak ikusita ez ba larregi estutu; onduten ezpadira igitaldiko egun bildurgarrian sutarako bilduak izango dira, eta gari ona dana, Jaunaren aletegian sartuko da.

GABIREL.

# Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 2'gn. Ama - Neskutza - Garbikundia ta Josu-Auŕkezkundia. Adabalda Deuna, ziñopea, laburditaŕa odolez. Ezkonduta egon zan Eŕit̄urde deunagaz, ta beronen seme-alabak ixan ziran Mauronda, Eusebe, Adalsende ta Koltsende deun ospetsubak, gustijak laburdit̄aŕak.

Deun-Joseba'ri saspi igandietako eraspena asteko igande egokija.

*Amabostaruan jai osorik ezta.*

Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 3'gn. Deun - Balasi, gotzaña ta ziñopea, estaŕi-min-auŕka-zaintzal̄ia.

5'gn. Deun - Martin Igokunde, gipuzkuaŕa, ziñopea. Deun-Agate, neskutza ta ziñopea, bulaŕetako-min-auŕka-zaintzal̄ia.

7'gn. Il̄aren lenengo barikuba.

*Il̄aren lenengo bederatzi bariku jaŕat̄ubetan, biaŕ dan eraz, Jaunaŕtza ba'dagixu—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.*

9'gn. Deun-Apolone, neskutza ta ziñopea, agiñeko min-auŕka-zaintzal̄ia.

## Deun-Balasi, gotzaña ta ziñopea

Ludi gustijan ezaguna ta orok mat̄e daben Balasi - Deuna Armenia'ko Sebaste'taŕa zan. Ikastuna ta zind̄ua, gaste zala asko ekijan, bere zaletasunez osatzal̄e egin zan; gexo - osatzen, soin-gexua baño erijotzaldirako gogo - ge-

# BIOTZA

Ardura - arduraz zainduizu zeure biotza,
bizitzaren susterra da - ta. (Prov. IV - 23).

Izatez txikia ta leize ondogabea,
gauzak beragantzeko itxasoa lez neurgea,
orok dauku barruan egarriz biotza.
¿Nor da ezautzen daunik gizon oro artian?
¿Nor ain jakintsua ta zoriontsu ludian?
Iñor ba'da, beria, da zorun-bizitza.

Gentzatsu dagonian ozkarbia dirudi,
baña naigabepian dagonian urduri,
itxaso asarre ta naspildua ba-da:
geure biotza zer dan ulertuko dabenik
ekatxen ondorenak azaltzeko gai danik,
iñor aurkitzen ba'da: ¿non dago ta nor da?

¡Gauza gurena dala Jaunaren antzikurra!
¡Jainko - maitasunaren bakaulki betikorra!
itanduko dautsat nik au diñostanari:
biotzan maitasun au ain iraunkorra dala,
¿zelan ulertu geinke, aldakor utsa ba'da
maitasun au eskintzen ludiko gauzari?

Egun bateko lora beingoan aultzen dana
sugar indargabe bat une bař̃en diraună,
biotzan izatea dala diñostazu?
¿Zelan bere barruko maitasun egarria
asetzeko ezta gai ludi gusti-gustia?
¿Zelan eta zegaitik? azaldu eistazu.

Izatez ona dala? ¿Zelan au esangogu
Gorroto, gaiztakeri, obena, ba'dakusgu,
bere barruan oro sortuak dirala?
¿zelan aldi-oroko gaiztakeri gustiak
zakarkeri-lizunak, guda gogor sutsuak
iturri onetatik urtenak ba dira?

¿Txartzat ba etsikogu? Ekandun igaliak
neke-samintasunak gozatzeko guriyak
damoskuzan zugatza txar izango ete da?
Maitasun-errukia, apaltasuna, gentza,
garbitasun gurenen tokia dan biotza
txarra dala esaten, ¿nor asartuko da?

Ara esan geinkena: Jauna'k egiña dala.
Biotzan egillia ontasun berbera da.
¿Zelan ba Bere eskutik leike txarrak urten?
Igali ustelik ba, emoten dabenian,
oben-eden zitalak, sarturik biotzian,
diñot bere barrua dabela ustelduten.

Bizitzaren sustarra dozu biotz barruan,
ta naikun oker batek, azi txar lez soloan
ereinda, usteltzen daki, sarritan biotza.
arduratsua izan ba, zeu-biotza zaintzeko,
ase leiken bakarra, Jainkoa maitatzeko
ta saritzat eukozu betiko bizitza.

GABIREL

Leize=*abismo*. Ludi=*mundu*. Gentzatzu=*baketsu*. Ekatx=*tempestad*. Antzikuřa=*espejo*. Bakaulki=*trono*. Oro=*gustia*. Etxi=*tener por*. Ekandun=*birtute*. Igalia=*frutua*. Eden=*veneno*. Oben=*bekatu*. Naikun=*afecto*. Neurgea=*neuři gabea*.

## Marijaren Alabak eta Iru Agur Marijak

Iru Agur Marija'ren zaletasuna edo debozíñua gustiz aintziñakua da Jaungoikuaren Eleizan. Bai-dakigu erakutsi ebela Deun asko ta andijak, eta euren artian Padua'tar Andoni, Deun Jon - Gurutz eta iñok baño geijago Ligorio'tar Albontsa Mirena - deunak. Deun onen idazkijak zabaldu eben errijetan aldi aretan, gustiz andija zan zaletasun au. Baña zaletasunik andijena artu dau azkenengo aldi edo denpora onetan, Eleiziak aberastu daulako parkamen ugarijakaz, eta artu dau Eleizako zaletasun edo deboziño andijaren antza beren bazkuna, eleizkixun eta elerti edo literaturiagaz. Onetzaz alegin andijak egin ebazan Blois'tar Jon Ugutz, Aba Buruñurdunak, eta beroni eskarrak garaitu eban zaletasun onek Lion, Friburgo, Einsiedeln, Zaragoza, Aosta, Reims, Salz-

## BIOTZA – J.Z. - 1919-115-022-023

*«Zeure biotza ardura-arduraz*
*zaindu egizu bizitzaren sustarra da-ta».*
(Prov. IV-29)

Izatez txiki eta, leize ondogabea
gauzak beragantzeko itxaso lez neurgea,
orok dauku barruan egarriz biotza;
ezautzen daunik, nor da gizon oro artean?
Nor ain yakintsu eta zoriontsu ludian?
Iñor bada, berea da zorun-bizitza.

Gentzatsu dagonean ozkarbia dirudi,
baña naigabepean dagonean urduri,
itxaso asarretu, naspilldua bada,
gure biotza zer dan ulertuko dabenik,
ekatx ondoren danak azaltzeko gai danik
iñor aurkitzen bada; non dago ta nor da?

Gauza gurena dala! Yaunaren antzikurra!
Yainko-maitasunaren bakaulki betikorra?
Itanduko dautsot nik au diñostanari:
Biotzan maitasun au guren-gurena dala,
zelan ulertu geinke aldakor utsa bada
maitasun au eskintzen ludiko gauzari?

Egun bateko lora, beingoan aultzen dana,
su-gar indargabe bat une baten dirauna,
biotzan izatea dala diñostazu?
Zelan bere barruko maitasun-egarria
asetzeko ezta gai ludi gusti-gustia?
Zelan eta zegaitik? Azaldu eistazu.

Izatez ona dala? Zelan au esangogu,
gorroto, gaiztakeri, obena badakusgu,
bere barruan oro sortuak dirala?
Zelan; aldioroko gaiztakeri gustiak,
zakarkeri lizunak, guda gogor sutsuak,
iturri onetatik urtenak badira?

Txartzat ba, etsikogu? Ekandun igaliak,
neke samintasunak gozatzeko guriak,
damoskuzan zugatza txarra izango ete da?
Maitasun-errukia, apaltasuna, gentza,
garbitasun gurenan tokia dan biotza,
txarra dala esaten; nor asartuko da?

Oron azalben auxe: Yaunak egiña dala
biotz-Egillea ba, Ontasun berbera da;

Zelan beren eskutik leike txarrak urten?
Igali ustelik ba, emoten dabenean,
oben-eden ankerra, sartzen dala biotzan
ekizu baten dana dautsola ustelduten.

Bizitzaren sustarra dozu biotz barruan
ta naikun oker batek azi txar lez soloan
erainda, usteltzen daki sarritan biotza;
Ardura-arduraz ba, zeu-biotza zaintzeko
ase leiken bakarra Jainkoa maitatzeko
ta saritzat eukozu betiko bizitza.

Amabosteroko
— inguřtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
116'g. zenbakija

Euzkeldunei Euzkeraz 1919 Zořnotza, Otsala 15'g.

## Jauna-Irakuskunde osteko saspigarren igandia

GOIZPARKIA.

---

ALDI atan: Jesus'ek bere ikasleai ipuin au esan eutsen: Goi - alak (zeruko erreñuak) goiz - goizetik maztirako lan-gizonak ituntzeko urten zan etxeko jaunaren antza dauko. Eta lan-gizonakaz eguneko amarreko bategaz itunduta maztira bialdu ebazan. Eta irugarren gabeuki edo ordu inguruan barriro urtenda, zeyan alperrik egozan beste batzuk ikusi zituan, eta esan eutsen: Zuek be nire maztira zoaze ta zuzena dana emongo dautzuet. Arek be joan ziran. Eta seigarren eta bederatzigarren ordu inguruan barriro urten zan, eta bardin egin eban.

Azkenez amaikagarren ordu inguruan urten zan, eta beste batzuek lan barik aurkitu zituan, eta esan eutsen: ¿zegaitik zagozie emen lan barik egun osuan? Erantzun eutsoen: iñork ez gaitu itundu (alogeratu). Esan eutsen: Zuek be zoaze nire maztira. Eta illuntzia egin zanian maztijabiak arazodunari esan eutson: lan-gizonak deitu egizuz, eta saria emoyezu azkenenguetatik asita, lenengoai gero.

Eta amaikagarren ordu inguruan etorri ziranak eldu ziranian bakotxak amarreko bat artu eban. Eta lenenguak eldu ziranian uste izan eben geyago artuko ebela: baña onek be, amarreko bana artu eben. Eta amarrekua artuten, etxeko jaunaren kaltez gaizki esaten eben esanaz: Onek azkenenguok ordu bat bakarrik lan egin dabe, ta gugaz, eguneko neke - beruak jasan dituguzanokaz, bardindu dozuz.

Baña berak aretariko bati erantzuten esan eutson: aizkide, nik eztautzut irañik egiten: amarreko batian nigaz ez - ete zara itundu ba? Zeuria artu egizu ta zuaz, azkenengo oni be, zeuri lez ba, emon gura dautzat. ¿Ala ezin neike nik gura dodana egin? Ala zure begioi okerra da ni zuzena nazalako? Olantxek azkenenguak lenenguak izango dira, ta lenenguak barriz azkenengo. Asko bai-dira deituak baña gitxi aukeratuak. (Mat. XX - 1 - 16).

* * *

Kistar maite: Jaungoikua'k, geure Aita danez, gizon gustiok gaizkatzea, zeruratzea, gura dau. Gustiok bere semetzat artu gaitu, bere jaubegai egin gaitu. Jainko Semia zerutik jatsi ta gizon egin zan, geu gaizkatziarren, eta geuri donokiko bidia erakustearren. Onetarakoxe jayo zan; eta bere irakaskintzak zabaltzeko nekatu ta gurutza baten il zan, Eleiz - Ama irazi eban, Ikurton edo Sakramentuak ipiñi ebazan, bakotxari gotzon (aingeru) jabola bat emon euskun, eta biar dogun eskar ta laguntza emoten dausku. Zeruko bide onetan galdu ezkaitezan, berak geure adimena argitzen dausku nekatu ta gogait egin eztaigun; geure biotz argaltasuna sendatzeko gurari on indartsuak bere barruan sor-erazten ditu; eta bidekatuta bagabiltz kezka zorrotzaz bidezuzeneratzeko deitzen dausku. Dei au barriz gizon gustiontzat da. Eta entzunda jarraitzen dautsenari, etxeko jaunak, amarrekua lez, bakotxari biar daben eskar eta saria emon-

go dautsoz. Baña maztia lantzeko, dei, indar, tresna ta aldiaz gañera, gura izatia, ta lanian jarduntia biar - biarreko dan lez, geure gogo-maztia lantzeko be, Jauna'ren dei, eskar, eta laguntzaz gañera; geuk gura izan biar dogu, eta benetan gura izan, eta lan eginda bakarrik, gaizkatuko gara. Eta etxeko jaunak goizetik nai belu laneratu ziranai, sari bardiña emotiaz etzaitez arritu; sarritan ba, erdi nagi diranak sei ordutan baño, gogoz lan dagianak ordu baten geyago egiten dabe, ta lenenguak azkenenguak, eta azkenenguak lenengo izaten dira. Jaungoikua'k be, eztautso begiratuko, geure gogua lantzen igaroten dogun aldiari, mazti au landuteko daukagun gurari bizi gartsuari baño. Ez ba, nagia izan, lanak lanari lez, nagikeriak nagikeriari deitzen dautso-ta.

Eta azkenez asko dira deituak baña gitxi aukeratuak diñoskunian, gaizkatu edo salbetan diranak gitxi dirala eztau adirazten, goizparkiak diñonez deitutako gustiak, zerua ikurtzen daben amarrekua irabazi eben eta. Adirazten dabe ba, asko dirala bide lauetatik lenen deituak izanda zeruan azkenen geratzen diranak, batzuk baña, gitxik, berarizko eskarrez azkenengo deitu ta lenengo tokiak donokiak lortzen dabezela. Alegindu ba, kistar maite, ziñeste bizi, itxaropen sendo ta jaumaitasun sutsuz, Jauna'ren deya entzun eta zeure gogua gaizkatzeko nagikeri barik lan egiten. — GABIREL.

## Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 16'gn. 23'gaŕenian.

*Amabostaruon jai osorik ezta.*

Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: Deun-Matai, Belduba, jai erditzat zaintzen doguna.

## ZORUNA! -J.Z. 1919-116-029

Gizon arro altsuoi, oro menperatuta
zek zarabiltz urduri yoranen-yoranaz?
Zer lortu gura dozu, andi-naiz zoratuta
zuzentasun-legea ostikopetuaz?

Iturria ikusita oreiñ egarritsuak,
daroyan yoranagaz txindi billi zabilz?
Zeure begi zikoitzok, urrearen dis-disak
batera ta bestera zergaitik darabilz?

Gizon yakintsu ori, zer dala-ta gautegun,
zabilz lan eta nekez egian ondoren?
beraonen izpitxo bat agertzen yatzunean
zer dala-ta biotza yatzu pozez yartzen?

Lander, txiro gaxuoi, ogia irabazteko
nekatzen zaranean; zer ames dagizu?
Urrun an... lañopean eskutatzen yatzuna,
amesez dazauzunoi, zer dan esaidazu?

Ao batez oyu bat, biotzetik sortua,
edonondik eltzen yat auxe diñostana:
«Zorundun izateko, egarriz dot biotza,
betor bai betor laster, zoruna! zoruna!».

Eta gizon gustiak mitxeleta ondoren
doyan mutikoa lez dakustaz artega,
eskuartetik iges eiten dautsen zorunantz,
besoak edaturik iñoz aspertzeka?

Baña donoki goyan sortu dan abots leuna
neure entzumenera datorrela dantzut:
«Ludi gauzan artean zorun billa bazabilz
alperrik nekatuko zarala diñotzut.

»Altasun, yakituri, aberaski ta aintza,
uskeri utsa dala ez ete dakizu?
Eta biotz barrengo zorun egarri ori,
ezerezten dan gauzaz asetu nai dozu?

»Erbesteko landara da zoruna ludian,
eztau ba or artuko iñola be sustarrik
donokiko baratza da bere aberria,
bertan zoruntegia, ez iñon besterik.

»Bizi zaran artean eskuratzen bozu ba
zorun aletxoren bat biotza pozturik,

ekizu donokitik yausitako ale au,
eztala iñoz egongo arrak yo gaberik».

Gentza lortu nai bozu yaso gora begiok;
zorundun izateko ara or bidea:
«Ez biotzik esarri ludiko gauzari ta
arduraz zaindu beti Yaungoiko-Legea».

# ¡ZORUNA!

Gizon arro altsuoi, oro menperaruta,
zerk zarabilz urduri, yoranen - yoranaz?
Zer lortu gura dozu andi - naiz zoratuta,
zuzentasun legea ostikopetuaz?

Iturria ikusita basauntz egarritsuak
daroyan yoranaz, txindi - billa zabilz?
zeure begi zikoitzok urrearen dis - ditzak
batera ta bestera zergaitik darabilz?

Gizon jakintsu ori, zer dala-ta gautegun
zabilz lan eta nekez egiyan ondoren?
Beronen izpitxu bat agertzen yatzunian:
¿Zer dala - ta biotza pozez yatzu jartzen?

Lander, txiro gaxuoi, ogia irabazteko
nekatzen zaranian, ¿zer ames dagizu?
Urrun... an, lañopian eskutatzen yatzuna
amesez dazauzunoi: ¿zer dan ezaidazu?

Aobatez oyu bat, biotzetik sortua
entzun dot, auxe da, neuri diñostana:
«Zorundun ixateko egarriz dot biotza,
betor, ba, betor laster, ¡zoruna! ¡zoruna!»

Eta gizon gustiak, mitxeleta ondoren
doyan mutikoa lez, dakustaz artega,
eskuartetik iges eiten dautzen zorunantz
besoak edaturik iñoiz aspertzeka.

Baña donoki goyan sortu dan abots leuna
neure entzumenera datorrela dantzut:
«Ludi gauzan artian zorun billa ba'zabilz
alperrik nekatuko zarala diñotzut».

«Altasun, jakituri, aberazki eta aintza,
uskeri utsa dala, ez ete dakizu?
Eta biotz barruko zorun egarri ori
ezerezten dan gauzaz asetu nai dozu?»

«Erbesteko landara da zoruna ludian,
eztau ba or artuko iñoz be indarrik;
donokiko baratza da bere aberria:
bertan zoruntegia, ez iñon besterik».

«Bizi zaran artian eskuratzen bo'zu ba
zorun aletxuren bat biotza pozturik;
ekizu donokitik jausitako ale au
eztala iñoz egongo arrak jo bagarik».

«Gentza lortu nai bozu, jaso gora begiok,
zorundun izateko ara or bidea:
Ez biotzik ezarri ludiko gauzari, ta
arduraz zaindu beti Jaungoiko - Legea».

GABIREL.

---

Yoran=*afán*. Txindi=*diru*. Lander=*pobre*. Dazauzuna=*ezautzen dozuna*. Donoki=*zerua*. Zikoitz=*avaro*. Altasun = *poderoso* Aintza = *gloria*. Ludia=*mundua*.

## Marijaren Alabak eta Iru Agur Marijak

Uste dot gustiz gogo onagaz irakurriko zenduela Marijaren Alaba zarianok Iru Agur Marijatzaz lengo zenbakijan idatzi nebana, bada atsegingarrija da alaba onarentzat bere Amaren aintza edo glorija geitutia. Gaur be zertxo bait esan biar deutzuet gai onetzaz.

Deun Matilde'ren agerpenetako (revelaciones) idaztijan XLVII'garren atzalburuan irakurten dira berba onek: «Eskatu eutsan Matilde'k Ama Marijari erijotzako orduan lagundu egijola». «Bai, egingo dot, *hoc utique faciam*», erantzun eutsan Ama Marijak: baña gura dot zeure aldetik egunero otoi egin daizula iru *Agur Marija*.

Lenenguagaz eskatuko dozu Aita Jaungoikuak algustidun (omnipotente) eskuzabaltasunagaz goraldu daben lez nire arimia bere urrengo bardinbagako eta aintzaz beteriko bakaulki (trono) gañera, alan

# EZ EPAITU (juzgau) ETA ETZARIE EPAITUAK IZANGO

Lekaide bat iltamuan (agoliñan) egoan eta bere lagunak deuntzat etsiten ezebelako, bere eriotzaz urduri egozan. Berak baña gentzatsu ta nasai egoan eriotzaren begira. Bere arpegikereak barruko baretasuna adirazten eban, eta etzeukan deunak eurak be batzuetan eukiten daben ilteko bildurren izpirik. Nagusiak arrituta itandu eutson:

—Zeŕ da, ene anaya, Jainkoa'ren epaikundearen bildurrik eztozu?

—Izpirik bez, erantzun eutson lekaidiak.

—Baña, deunak eurak sarritan eukiten eztaben uste arrigarri ori nondik yatortzu?

—Ene Aba, gure Jauna'k enabela epaituko ziur dakidalako.

—¡Ezetz diñozu! —erantzun eutson nagusiak— zegaitik baña?

—Ezetz, enau epaituko, —erantzun eban azkenetan egoan lekaide (pralleak) —Jauna'k berberak eztausku irakatsi ba, besteak epaitzen ez dituana eztabela epaituko? Ba nire uts-egiteak ugariak diran arren, iñoiz be eztot epaitu (juzgau) iñor, eta ortxe datza nire itxaropen gustia.

—¡A!— erantzun eban nagusiak —bildur ez izateko ziyoa dozu.

GAMA.

# IZPAR - BALTZAK

Oraintsu geure lagun onetxen il-izparrak artu doguz:

Urtarrilla 7'gn. Otxandijo'n, il zan Landa eta Aspe'tar Kepa jaupari jauna, geure bazkidia.

18'gn. Zornotza'n, Derteano'tar Polentzi, osalari gastia, gure bazkide Pillipa jauparijaren anaya. Gexotu zanetik, erijotzia urrian eukala igarrita, gustija Jaungoikuari emon yakon, eta kistar ona legez gerkuna gustijak astiro ta beregandetasun andijaz eginda, euzkeraz otoika, Jauna'ri emon eutsan bere gogua.

24'gn. Gazteiz'en, Apraiz'tar Odon, gure bazkide Odon'en aita. Jakintza-irakaslari ta Gazteiz'ko endore ixana zan; bere aintzarik andijena baña kistar zintzua ixatea esten eban.

27'gn. Bilbao'n, Zarraoa eta Maguregi'tar Jose Antonio gastia, gure bazkide Eustasio'ren semia.

28'gn. Arbillaga eta Emazabal'tar Jose Agustin, gure bazkide Zelaya'tar Bitoren'en aitagiñarreba.

Markiña'n, geure bazkide Zuloaga'tar Domeka jauparijaren ama.

Gure lagun gustijoi atsekabian laguntzen dautsegu, ta irakurle gustijei ildakuen aldez otoi bana dagizuela dasketzuegu.

# ITAUN - ERANTZUNAK

**Eleizakuak.**—Sei-saspi urteko ume orrek, gexo dalarik, Jaunartu leike, ta artu *biar* dau. Ez dautso kistar-ikastiya yakin ezarren. Irakatsi yozu Ogi-deuna beste ogiyetatik bereizten. Au erraz daikezu. Erakutsi gurutzea, baita *ostiya* be. Esan ostiya urun utsa dala, baña yaupariyak, Jainkuak emoniko alaz, Gurutzan dagon Jesukisto'ren Gorputz egiten daula. Beraz Ogi antzpian Jesukisto, zeruan dagonez, artuko daula.

**Azken igortziya.** (UNTZIÑOA).—Adikun, tzaldira (uso errazoya) eldu ete dan ezpayan Azken-Igortziya artu biar dabe umiak. Yaupariyak berak daki zelan emon. Deitu, ba, beti-

yaupariyari, baita, bat-batian, il dala uste izanarren be. Usteko iltze ori baño zerbait beluago eldu oi da benetako eriyotza askoren eretxiz. Dana dala, ez laga bertan bera, il dala-ta; yaupariyari deitu, ta beronek dakike zer egin.

**Jaunartze bikoitza.** — Ez ixutu. Iltzer dagozanakaz diardugu. Eleizak, Ama maite eduz, bere semiak guri ta sendo bialdu nai ditu donokiruntz. Au dala-ta, goizian Jaunartuarren, egun atan eriyotz zoriyan yausten direnak, Jaunartu legikie, ta orixe gura dau gure Doibatz Amak.

**Txadon zayari.** Eder eitearren edo adarra yotearren esan dautzube ori. Egiya da txadon zayak Jesus'en Gorputza emon leikela. Baña ez zuri esan dautzubenez, iru ereti onetan baño: 1.º Jaunartu-biar larriyan, adibidez eriyotzaldiyan, yauparirik ez-padago: 2'gn. oben piderik iñori emon bage: 3'gn. Jesus'en Gorputza lotsa bage erabiltzeko zoriyan, adibidez gudari edo gaizkin batzubek sartuko ba'litsoz txadonnera edo eleizara gaizkeri asmoz, Jesus'en Gorputza artu nai emon zeinke, baraurik egon ezarren be.

## IDAZTI BARRIJAK

**ARDI GALDUA** Arteka-marteka irakurri dogu euzkel baratzian erne barri dan lilli mardul au. Zurrutadaka baña gozoro edan dogu azken ondarreraño. Azkue jauna da ume onen aita. Euzkel idazletarik izorrena, eten bageko langiña, *bos suetus labore,* euzkel gayetan gure irakasle ta lanerako kemenian gure eredu.

Gure ustez beste anai nagosijen duin da Azkue jaunaren seme barri au. Irarkurra idaztijari dagokijonez, txukun-txukuna.

---

**La Métrica Vasca** Gazteiz'ko Jaupal-etxian (seminarioan) euzkel-irakasle dan Lekuona'tar Imanol'ek bialdn dausku 44 orrialdedun idaztiño au. Eskerrik asko Lekuona jaupari gaste azkarrak aurtengo ikastaro asiyeran, Gotzain (obispo) irakasle ta ikasle gustijen aurrian egiñiko itzaldiya da. Gaya berezi-berezija, Landubako larra, latza ta lakarra. Langiña zurra ta eraña da-ta biar be bai. Ez gara onegaz ase, aizkide. Sail ori urratzen asi zaran ezkero, gustiz atxurtu, saknndu, aztertu, irabijatu, ta azija eraiteko aukeran ipiñi biar dozu.

Amabosteroko
— inguřtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
117'g. zenbakija

Euzkeldunei Euzkeraz

1919

Zořnotza, Epala 1'gn.

## QUINQUAGESIMA EDO BOSKARREN IGANDIA

### GOIZPARKIA.

ALDI atan: Jesus'ek amabiak artu ebazan, eta esan eutsen: Ona, Jerosolym'era igoten gara,ta iragarliak Giza-semeatzazko idatzi (eskribidu) ebezan gustiak beteko dira.

Arrotzai ba, emongo dautse, ta laidotuko (iraindu) dabe, ta zigortuko dabe, ta txua aurpegira jaurtiko dautsoe.

Eta zigortuta gero erailgo dabe, ta irugarren egunian berpiztuko da.

Eurak baña, onein deusik ezeben ulertu, ta itz onek eskutuak yakezan, eta esaten yakezanak ezebezan ulertuten.

Eta jazo zan, Jeriko'ra urreratzen zala, itsu bat bidonduan jesarrita eskatzen egotia.

Eta gizoztia igaroten aditu ebanian, zer ete zan itandu eban.

Eta erantzun eutsoen Jesus Nazaretarra igarotzen zala.

Eta didar egin eban esanaz: Jesus Dabi'ren Semioi, nitzaz erruki zaitez.

Eta aurrez joyazanak agiraka egiten eutsoen ixiltzeko. Berak baña gero ta didar geyago egiten eban: Dabi'ren Semioi, nitzaz erruki zaitez.

Eta Jesus gelditu zan eta Beragana ekarteko agindu eban. Eta eldu yakonian itandu eutson:

¿Zer gura dozu egin daitzudan? ta berak erantzun eutson: Jaunoi, ikusi

Eta Jesus'ek esan eutson: Begiztu egizu, zeure ziñesteak gaizkatu zaitu.

Eta bapatian ikusi eban, eta jarraitzen eutson Jaungoikua goraltzen. Eta gizozte gustiak ikusi ebaneko Jaungoikua goraldu eban». (Luk. XVIII. 31-43)

* * *

Kistar maite: Jesus'ek osatu eban itsu au obenpian bizi danaren irudia da. Jatorrizko obenak (pekatuak) geure adimenian erein ebazan lañoak bakotxaren obenakaz ugarituten dira, zoriontasun bidean itsu batek baño geyago ikusi eziterаño. Eta bidekatuta dabillenak lez, gizonak argi biarra eban. Illuntasunok urratzeko eta gizona gaizkatzeko, Jesu-Kisto, ludiratzen (munduratzen) diran gizon gustiyak argituten dituzan Argi Egizkoa», (Joann, I-9) zerutik jatsi ta gizon egin zan.

Berari jarraitzen dautsona illunpian eztabil, baña oben-bidez Beragandik aldentzen danak, goiko eguzki onen izpi bigun samurrakandik iges egiten dau ta, bere naikeriz, goizparkiko itsua lez aurkituko da. Bere aurrian daukon amiltokia eztau ikusiko, eta bidonduan itsua lez betiko eriotzaren kerizpian jesarrita egongo da. ¡Egoera ziñez errukarria! Eta illuntasunok urratzeko zer egin? Goizparkiko itsuak irakatsiko dausku. Gizoztiaren zurrumurrua entzunda, Jesus igaroten zala jakin ebanian, sutsu otoi-egin eutson biotzez «Jesus Dabiren Semioi nitzaz erruki zaitez» esanda. Auxe da obendunak, bere biotzian kezkabidez Jesus'en deya entzuten dabenian, egin biar dabena. Otoi sutsua errukieske. Eta gizoztiak itsuari lez, bere girna, ta etsayen ziltzak (tentaziñoak) eta mundutarren esamesak agiraka eginda ixiltzeko ba'diñotsoe, orduan eta gogorrago di-

dar egin, «Jesus Dabi'ren Semioi nitzaz erruki zaitez»! Eta Jesus errukituko da eta argi ugaria emongo dautso, zorion bidean zuzen ibilteko. Obenagaz kutsututa gagozanok ba, Bere argi bizia eskatu dayogun. Argia Jaungoikua'k egiten dauzkuzan eskarrak ezagutzeko ta geure eskar txarra ikusteko; argia bakotxak bere gurutza lepuan artuta Jesus'en jarraitzalle zintzoak izango gariala ulerturik, naigabe ta samintasunetan, Jauna'k geuri dauskun berarizko maitasuna ikusteko; argia bere nekaldiko ixeka, irain, txistu, zigorkada, ta eriotza bera, geugaitik igaro zituan lez, geuk be, gurutzaren edertasunak esagututa, berak lez maitatu daigun. Bere gurutza bizitz onetan eroaten lagunduta, betiko argia ikusteko egunen baten berpiztu gaitezan.

GABIREL.

# Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 2'gn. Iñauteri - Igandia; 9'gn. Berrogeikaro'ko lenengo igandia.

*Amabostaruon jai osorik ezta.*

Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu,

EGUN IXENDABAK: 3'gn. Astelen-Iñauteri 4'gn. Astarte-Iñauteri; Deun-Pantzeska Jabieŕtaŕari bederatziuŕeun eskaŕtsuba asteko eguna.

5'gn Auts-Egubaztena. Gauŕ asten da beŕogeikarua, (garizumia); *barau-eguna.*

7'gn. Deun-Toma Akiñotaŕa, autoŕlia ta irakaslia; *barau ta aratuzte-aragija izteko-eguna*

Il̄aren lenengo barikuba.

*Il̄aren lenengo bederatzi bariku jaŕal̄ubetan, biaŕ dan eraz, Jaunaŕtza ba'dagixu—Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.*

Len be saŕi esan dogu: guk emen ixendatzen doguzan barau ta aratuzte egunak buldadunentzat dira; buldadun eztiranak guk emen ixendatzen doguzan baño barau ta aratuzte egun geya-

mal) *ezin ulertu* (aitu) *legikez Jainkua'ren Goguarekiko gauzak,* diño Paul deunak: ezin ulertu, ezin ziñestu edo egoki etxakolako, edo lizunkeri buruz gogua aberetu, gizenduta yartzen dalako.

*G*). Biyotza arritu. Lizuna berekoi utsa da: ez dau iñor maite; ez da iñoren erruki: zespala baño liorrago, arriya baño gogorrago, ego axia baño igerrago. ¡Gixaxuak lizunaren menbekuak! Bildurtiya dan añako ankerra da. Adibidetzat: Erodes, lizunkeriz koldarra ta ankerra, Jon Ugutzari (Bautista) deuna buruindu eban. VIII'garren Enderika, lizunkeri garrez, bere girna zikiña asetzeko, 72.000 erailtza egin ebazan. Dabid berbera, Jainkua'ren gogoko gizona izanarren, lizunkeriyan yausi zan aldiyan, anker ibilli zan.

*K*). Gogua auldu. Yaiki gura ta ezin. Ekandu (vicio) txarrak ezarritako estuntzak apurtu gura, ta ezin. ¡Ezin! auxe izan oi da lizunkeri sarian naspilduta dagonaren erantzuna. Al-bai, baña gogua auldu-ta, girnak bezau, ezi, ta bere buru yabe egiteko biar dan kemenik ez: ta gogua sendotu ta adoretutzeko biderik artu nai ez. Itxarua galtze onek ondatzen ditu lizunak.

**Gurutz.**

# AUTS-EGUNA

Jauna'ren eskarrez dakust apainduta
lenengo gizona lili jantziaz,
adimen argidun, biotz zuzenduna
gentzatsu, zoruntsu goiko zorunaz.

Atsegintegian Jaunak ipiñi dau
ludiko izakien buru bakaldun,
Bere agintzoro zintzoki beteta
izateko gero beti zorundun.

Arrokeriz baña; lege bat auzita
bere bakaulkitik amilpetu da,
eta zorun ordez, neke zoritxarraz
bizkarreratu dau Jauna'n zigorra.

«Zeure izerdiagaz jangozu ogia,
neke-saminpian biziko zara,
eriotza bidez ama lastanduta,
auts zarealako austuko zara».

Biotzan josita daukagun lege au
ilten dan bakotxak azaltzen dausku:
«Anaya, neu legez auts zarealako
austuko zarala, sarri gogaldu».

Autsaz igortzita egi sakon augaz
Doibatzak kistarrok, uaŕtzen gaitu:
Ez arrotu gizon; «auts zarealako,
austuko zarala, etzaitez aztu».

GABIREL.

# BIZI-BIZIYA

## Edo orrek, edo geu...

UREZANDIK zan. Aratuzte egunak. Ontziya nasan lotuta, urira igon ziran Matxin, ontziburuba, ta bere itxas-gïzonak. Geyenak gaste gordiñak ziran. Matxin mutil zar biyorra.

—Mutillek e, eitekuak ein biar yuaguz gaur, iñotsen Matxiñe'k bere gizonei. Ez daitela gaur iñor atsegin egarriz gelditu. Zelai gustiyak ibilli; bedar bigun gustiyetatik yan; edari gozo gustiyak txastatu biar yuaguz. Gu ilda be zorruok errota yuango dozak. Gero be naikua egun izango yuagu, ortze ta ura besterik ez dakuskula, pizti gogor orrek noz iruntsiko ete gauzan bildurrez...

—Ori, ori, iñuen mosu zorrotz ubeldun itxas-mutillak. I lako itxasontzi - bururik etxagok. Gaur geure eguna dok, gaste eguna; zoro eguna. ¡Eupa! irrintzi ta ijutika ari ziran, ariatzatik uri barrurantz.

Aren yan - edan biarrak, eta yolas ta atsegin yoranak ez eban mugarik izan. Lilliz burubak apain; edari ta garraziz ordituta, gizadi baratzeko lorartetik-lorarte, egunik geyago argituko ez-paleban, atsekeriz aspertzeraño yarri ziran.

Gaberdiya igesi zan. Gau txoriyak etxe-

ren deitzat artu eban. Gogo - iñarkunak egin ebazan Loyola'n illabete buruban, Goikua'ren deya zanetz benetan aztertzeko. Argiro igarri eban Jainkua'k beragana deitzen eutsola. Ludi ontako purtzilkeriyak itxi ta Burna deunaren lekaretxian (kartujuetan) sartu zan, bere lengo oben nekia kitatu ta betiko zoruna irabazteko. Ez tamal ixateko iñotsen gurasoei. Iñoz baño sarriyago ta sutsubago oroituko zala eurakin, eta gustiyan alegin egiteko Jesus'en Biyotz barruban alkarrekin bizi, gero berriz betiraunez alkar maitatzeko.

**Iturrondo'tar I.**

## MORICIERE GUDAL-NAGUSIA

Moriciere gudalnagusi (general) ospetsua Jainkozale zintzoa zan. Sarritan Jaunartzen eban eta bere poza semiakaz eleiza'ra joatea izaten zan. Euraen lenengo Jaunartzarako beste zeregin barik birritako aldiz Paris'era etorri zan, eta ori, erbestetu ebenetik iñoz etzala joan. Eskutik artuta sarritan eroan oi eban bere semia Kístarikastira. Bere aizkide batek diño bere alabatxu baten lenengo Jaunartzan agertu eban Jaunzaletasun samurragaitik ume bat zirudiela. Jansenio'tarren kezka ixunak baña zerbait Jaunartzetik atzeratzen eban.

—Gu sarri-sarritan Jaunartzeko eskara duin—esan eutson bein baten Paris'en bere txaunburu (parroko) zanari.

—Egia diñozu, erantzun eutson, baña Bere biarrizana daukogu: Jaunartza ezta saria, eskar eta laguntza baño.

Apur baten oldoztuta esan eban: — Jaupari Jauna, zuzen zagoz; oso-osoan ziñestarazi daustazu.

Eta alboan eukan bere alabeari esan eutson: Ene alaba, albait sarrien Jaunartu egizu.

Auxe da geuk, be, kistar gustiai diñotsaguna, gaste nai zarra, gizon nai emakume izan.

GAMA.



Gazteiz'ko Gotzain agurgarrija Durango'n Gabeko Jaun-gurtzalle zarrakaz. Otsalla'ren 16'gn. egin zan uri atan eleizkizun ospatsua Gurtzalle zarrok goraltzeko, ta Gotzañak itzaldi ederra egin ebala.

# ITAUN - ERANTZUNAK

**Saspi igandiak.**—Eten bage egin biaŕ dituzu, bai, saspi igandiak Joseba deunaren omenez, nekazkak (induljentziyak) irabazteko. Ez, baña, larritu auzi dituzula-ta. Barriro asi ta ekin edonoz egin leikez-ta. Egoki bai-da bere yai aurrezegitia, baña ez biar-biarrekoa nekazkąk irabazteko. —*Zeintzuk diran nekazka onek?*— Ba, igande bakotxian aitortu, ta Jaunartu, ta otoi zerbait egin ezkero nekazka osua irabazten dozu.— *Ta irakurten ez dakijanak?* Irakurten ez dakijanak, saspi *Aita Gure* ta *Agur Miren* esan beiz bere poz-atsebage gomutaz..., ¿Geyago?

**Geyegizko izkanbilla.**— Ainbestekua eizan lengo igande arratzaldian Kistar-ikastiya nezkatillak ikasten daben ikastolan, irakasliak esan eutselako, Adan'ek pekatu egin ez-paleu, Eba'k egiñarren, etxakula aren obena eratorriko. ¡Ango mor-moxitia ta gaizki esana seguru be! nausi ta txiki, gustiyak protestaka, ori etzala egiya - ta. Egiya da ba, neskatillak, Akino'tar Toma'k darakuskunez, Adan, gure buru zan, eta beronek pekatu egin ez-palau, Eba'k eginarren, ez giñan ainbeste zurrutada garrat edan biarrian izango. Barrurago sartzen enua.

**Abade soñekua.**—¡Emakumia izan biar zu be yakin gurea izateko! ¿Zer dautzu zuri yaupariyak soñeko baltza naiz gorriya erabilli? Ara ba, yaupariyak soñeko baltza yasten dabe, ludi (mundu) aunetzaz ilda dagozala adirazteko.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia 118'g. zenbakija

Euzkeldunei Euzkeraz 1919 Zoŕnotza, Epala 15'gn.

## Berrogeikaro'ko bigarren igandia

### GOIZPARKIA.

ALDI atan: Jesus'ek Kepa ta Jakoba ta Jon bere anaya artuta, bakarrez mendi garai batera eruan ebazan, eta euron aurrian irudibiau zan (irudi-aldatu). Eta bere arpegiak eguzkiak lez argi egin eban: eta bere janzkiak edurra baxen zuri egin ziran. Eta agertu yakezan Mois ta Eli Jesus'egaz itz-egiten. Eta Kepa'k erantzuten Jesus'i esan eutson: gu emen egotia ona da, gura ba'dozu iru txabola egin daiguzan emen, zeuretzat bat, Mois'entzat bat, eta Eli'rentzat bat. Eta berak (Kepa'k) itz egiten ziarduala, ona odei argitsuak estaldu ebazan. Eta ona odeitiko abotsa esaten: «Auxe da neure Seme maitia, Beraugaz Ni ase-asetzen naz. Beroni entzun egiskiozue». Eta ikasliak au entzunda, auzpez lur-jo eben eta bildur-bildurtu ziran. Eta Jesus eldu yaken eta ikusi ebazan eta esan eutsen: «Zutindu zaiteze ta ez bildurtu». Eta begiak jasorik ezeben iñor ikusi Jesus baño. Eta Jesus'ek menditik jasten zirala agindu eutsen: «ikuskixun au iñori be, eztautsazue esango Giza-Semia illen artetik berpiztu arte». (MATTN. XVII-1-9)

* * *

Kistar maite: Gaurko goizparkiak azaltzen dauskun jazokun arrigarriau baño sei egun lenago, Jesu'Kisto'k bere ikasliai bere nekauste (pasiño) ta eriotz gogorra iragarri eutsenian, olakorik aitatzerik be ezeben gura izan, eta Jesus'i berari geu gaizkatziarren gurutza baten bere bizitza emoteko eukan burubidia kendu gura eutsoen. Bai'ekien irakasliak Jesu-Kisto ixarrel gaizkatzeko Bialdua zala, eurak baña guzurrez, uste eben ludiko (munduko) bakaldun altsu izanda euren asmuak beteko ebazala. Eta barriz Jesus il ezkero euraen andinai ames gustiak, axiak auts pillo bat ezereztuten daben lez ezereztuta geratzen zirala. Ezin ba, ulertu Jesu-Kisto il biar ebenik. Bai... gizona beti gizon: beti berekoi... Jesus'ek baña, bere nekauste latza iragarri ondoren itz oneik esan ebazanian: «Norbaitek niri jarraitu gura ba'daust, bere burua ukatu begi, leporatu bere gurutza ta jarraitu begist» (MATTH. XVI-24) ikasliak gogaituta, lur jota, nastuta, gelditu ziran. Eta sei egun barru Jesu'Kistok, gurutzaren ondoren gozoak, zelanbait adirazita, gurutzaletu, poztu ta adoretuteko, iru ikasle artuta mendi garai batera igo ta irubidiau zan. ¿Zelan? Josu-Kisto Jaungoikoa ta gizona batera zanez, zeruko zoruntsuak lez Jaungoikua arpegiz-arpegi ikusten eban. Beraz zoruntsua zan ta bere gorputzari be, gorputz zoruntsuak dauken argia yagokon. Baña geure aldez il gura ebalako lurrian bizi izan zan artian, gaurko egunez aldi laburtxuan izan ezik, ezeutson goguari laketu gorputzari argi ori emoten. Eta gaurko egunez bere gurariz argi onen izpitxu bat emon eutsonian, arpegia bapatian, eguzkia lez, argitu yakon, eta janzkiak edurra lez zuritu yakozan. Kepa ta lagunak pozarren zorabiauta lez gelditu zi-

ran eta poz onek sustarrak gurutzan eukazala adirazteko, odei artetik Aita Betikuaren itx onexek entzun ebezan. «Auxe da Neure Semia... Entzun Berari». Auxe da ba, aita Betikuak geure irakasle ta eredutzat emon dauskuna, eta irakasle bakar oni, entzuten eztautsona, ta eredu bakar oneri jarraitzen eztautsona, illunpian dabil, bidekatuta dabil. Beroni jarraitu biar dautsogu ba, geure gogozko diran eta eztiran gauzetan be bai. Zoruntegira joateko bide latzetik joan ba'zan bide legunagorik eztogu gura izan biar, laztasun bidia berak irakatsitako bide bakarra da-ta. Bere jarraitzalle izateko burua ukatu biar dogula diñoskunian «entzun Berari», baita gurutza leporatu biar dogula diñoskunian be, eta ez begiratu azal zakarrari mami gozoa dauko-ta, Ez begiratu azal illunari barruan daukon argiari baño. Aonelan gurutza bidez betiko argia geureganduko dogu. «*Per Crucem ad Lucem*». — GABIREL.

# Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 16'gn.; Deun - Eusebe, neskutza, laburditara; 23'gn; 30'gn.

JAI OSUAK: 19'gn. Joseba-Deunaren Gomutakunde Nagosija, Ama - Neskutzaren Ezkona, erijotza ona egiteko berarizko zaintzalia. SPES MORIENTIUM ORA PRO NOBIS *Barau eguna*.

Igande ta jai osuetan kistar orok jaupa osua entzun-biar dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 18'gn. Deun-Gabirel gongotzona.

21'gn *Barau* ta *aratuzte-eguna;* Jaunaren Ixara-Deuna.

22'gn. *Barau-eguna*.

25'gn. Ama-Neskutza'ri Deikundia, ta Jaun-Goiko-Semia-Gixakundia, jai osotzat zaintzen doguna.

26'gn. *Barau-eguna*.

28'gn. *Barau* ta *aratuzte-eguna;* Jaunaren bost Zaurijak.

29'gn. *Barau-eguna*.

# UDABARRIA

Axiak odeyai bultz-eginda legez
egun otz-itunak iges dakustaz,
eguzkian izpi bero-argitsuai
begiratu ezinda igesi doaz.

Ozkarbi urdiñan odeirik eztager
izaki gustiak pozez eztitzen
dagoz, ta, poz ori agertu gurarik
apainduraz oro dira jantziten.

Begira mendiak orlegi ugariz
jantzita, zugatzak ostro mardulez;
baratzak loratxu eder usaintsuz ta
aran ta muruak pitxi politez.

Oyan itzalian sortzen diran urak
txor-txor, alai alai, doaz ibaira;
ta txori politen maitasun-abesak
axiak dakaztaz entzumenera.

Izaki gustion ereserki eder
onetan utsun bat tamalez dakust:
oron bakaldun dan, gizonen abotsa
epel ta motela bakarrik dantzut.

Neguan ondoren izadi gustia
pozez esnatu da Jauna goraltzen;
ta gizon alperra logale ondiño?
¿eskartxarrekuoi ezta lotsatzen?

«Eznatu alperroi» nozipein ostotzak
durunda gogorraz oartzen dautso:
«esna zaitez laster Jauna goraltzeko»
izadi gustiak batez diñotso.

«Zeure adimenoi, argitu egiaz,
berotu biotzoi Jaun-maitasunaz
ekandun ederrez apaindu gogua
ta aintzaldu gogotik Jaun ona gugaz.

«Ekandun loraen usain gozotsua
kedatz lurruna lez bialdu gorantz
zeure biotzeko eskarron-oyua
gautegun zuzendu Jainkuaganantz.

«Adimen argidun zeu bakarrik zara
ludiko biztanle oron artian;
¿Etzara lotsa ba, Jauna goraltzeko
lozorroz egoten bakar lurrian?

GABIREL

Aran=*valle*, muru=*colina*, abes=*canto*, ereserki=*himno*, izadi=*naturaleza*, oztotza=*turmoya*, ekandun=*virtud* Kedatz=*incienso* ludi=*mundu*, bakaldun=*errege*.

# EUZKEL - GAIZ

## IDAZKATZA

*INDICE* erdel-itza ainbat erara euzkeralduta irakuři dot; neuri be otu yat ixen bař au *IDAZKATZA*, *indicador de lo escrito* dakuřana; ta *idazki-atzatik* sořtu dot: itz atzalgařija da.

1.º *IDAZKI, idatzi-ki*'tik sořtu zan, *tz z* bakařik egindа. Ageri-dalako ez diñot geyago ta adibiderik bez.

2.ª Iřanduten danian gura-dana jakiřeko nun dan, besua luzatu ta *atza*gaz bidia erakusten da ta esan, *an edo emen da, juan andik edo emendik ta antxe idoroten da, amen gixona,* ta abař. *Atza*ren iñarkuna orixe da, *indicar,* ta berau *atza*gaz egiřen dogu uste barik; *mimika* ori bere beria dau. Idazkijan irakuři doguna idoro guradogunian, *indice*ra joten dogu ta jakin gura-doguna azteřtu *nun ete-dan*, ta diñosku *an edo emen, atzalburu onetan edo aretan.*

*ATZAK indicador* ikuřpena ixatia ez da uleřgatxa; *BURUAK caudillo, principal, jefe, sumo* dauzan lez, ta oso egoki, edeřto jagokoz aorixe da geure *burua.*

*Lořatzak, bidatzak, oñatzak* ageřtzen dabe *indicador* ikuřpen oi ez dala atzo-goxekua.

*IDAZKATZA indice* dala ageřtu ete-dot?

*U.'tař P.*

## UDABARRIA – J.Z. 1919-118-046-047

Axeak odeyai bultz-eginda legez
egun otz itunak iges dakustaz,
euzkiaren izpi bero argitsuai,
begiratu ezinda igesi doaz.

Ozkarbi urdiñan odeirik eztager,
izaki gustiak pozez eztitzen
dagoz, ta poz on agertu gurarik,
apainduraz danak dira yantziten.

Mendiak begira orlegi samurrez
yantzita, zugatzak osto mardulez,
baratzak loratxo eder usaintsuz ta,
aran ta muruak pitxi politez.

Oyan itzaltsuan sortzen diran urak
txor-txor alai-alai doaz ibaira,
ta txori politen maitasun-abesak
axeak dakarstaz entzumenera.

Izaki gustion ereserki eder
onetan utsun bat tamalez dakust;
oron bakaldun dan gizonan abotsa,
epel eta motel bakarrik dantzut.

Neguan ondoren izadi gustia
pozez esnatu da Yauna goraltzen;
ta gizon alperra logale ondiño?
eskartxarrekuoi; ezta lotsatzen?

«Alperroi, esnatu», nozipein oztotsak
durunda gogorraz oartzen dautso;
«esna zaitez laster Yauna goraltzeko»
izadi gustiak batez diñotso.

«Zeure adimenoi egiaz argitu;
biotzoi berotu Yaun-maitasunaz,
ekandun ederrez apaindu gogoa,
aintzatu pozarren Yaun ona gugaz».

«Ekandun loraen usain gozatsua,
kedatz lurruna lez bialdu goirantz,
zeure biotzeko eskarron-oyua,
gautegun zuzendu Yainkoaganantz».

«Adimen argidun zeu bakarrik zara
ludiko biztanle oron artean;
Yauna goraltzeko lo-zorroz egoten

ez zara lotsa be bakar ludian?».

# ITAUN - ERANTZUNAK

**Barau Eguna?**— Barau eguna da, bai, Joseba deunaren yaya, garizuma barruban yausten dalako.

**Memelo.**— Ori da ostera itauna egiteko. Zetako zeruban jantziya? Otzik izango ez-pada? Ludijan be etzan soñekorik izango, obena izan ez-palitz. Oben ondorengua da yantziya. Ez gara alkar ikusiyaz lotsatuko. Eskubak billotzik ikusiarren ¿lotzatzen ete zara?

**Naibagetua.**— Eriyotza opa geinke edo ludi onetako gaitzetatik igesteko, edo pekatuan yausteko zoririk izan ez daigun, donoki zorunez asetzeko ta, batez be, Jainkoaz batzeko. Ez geyegi baña artegatu. Onena dozu buruba makurtu, Jainkua'ren naira etzun eta berak biali dautzun gurutz ori, garratza danarren, gogoz eruan.

**Bigarren Kaiku,** Argi-zuzi, oriyo ta abar ta abar, bai elizkizunetan, bai illen aldezko otoyetan, Jainkua'ri eskintzen yakoz, Bera dala gauza gustiyen Jabe bakarra aitortzeko.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
119'g. zenbakija

·Euzkeldunei Euzkeraz

1919

Zoŕnotza, Joŕala 1'gn.

## Nekauzte edo Pasiño'ko Igandia

GOIZPARKIA.

ALDI ATAN: Jesus'ek gizozte judarrai esaten eutsen: ¿Zuetarik, nok egiz obenaz salatuko nau? Ta nik egia ba'dirautzuet: zer dala - ta eztaustazue ziñisten? Jaungoikua'gandik danak Jaungoikua'ren itzak entzuten ditu; baña zuek eztozue entzuten Jaungoikuagandik etzarelako. Judarrak ba, erantzun eta esan eutsoen: ¿Ez ete - diñogu, guk, zuzen, zu Samaritarra zarala ta gokaiztoa dozula? Jesus'ek erantzun eutsen: Nik gokaiztoa ez daukat: baña bai goraltzen dot neure Aita: eta zuek ni iraindúten nozue. Ta nik eztot neure aintza (gloria) billatzen: bai-da billatu ta aldeztuten dauna. Ziñez-ziñez diñotzuet: iñok nire itza jabongo ba'leu, betiko eriotza eleuke ikusiko. Judarrak be esan eben: Ointxe bai ezautu dogu gokaiztoa edo diabrua daukozula. Abarram il zan, baita iragarliak be: ta zeuk diñozu: iñok neure itza jabongo ba'leu, betiko eriotza eleuke ikusiko. Zer ba, Abarram il zan, geure aita baño andiagoa zara ala? baita be iragarliak il ziran ¿nor ba, zeure buru ori egiten dozu? Jesus'ek erantzun eban: Nik burua aintzalduko ba'neu nire aintza utsa da, baña neure Aita da ni goraltzen nauna, zuek zeuen Jainkua dala diñozuena, ezautzen eztozuena baña. Nik barriz, ezautzen dot, eta eztodala ezautzen esango ba'neuke, zeuen antzeko guzurtia izango nintzake. Baña nik Bera ezautzen dot eta Bere itzak be jaboten dodaz. Abarram, zuen aitak, gura-gura izan eban nire eguna ikusteko; ikusi eban eta poztu zan. Eta judaŕak esan eutsoen: Berrogetamar urte ondiño eztaukozuz ta Abarram ikusi dozula? Jesus'ek esan eutsen: Ziñez-ziñez diñotzuet Abarram jayo baño lenagokua Ni naz. Ta arriak artu ebezan berari jaurtiteko, baña Jesus'ek burua ostendu eban eta eleizatik urten zan. (JOAN, 46 - 59).

* * *

Kistar maite ori: «Egia ba'diñotzuet, zer dala-ta eztaustazue ziñisten?» Bere aldiko etsayai egiten eutsen itauna, egiten dautse beti bere kaltez edo berari jarraitu gura eztautsienari. Gizonak ba, berez egiaren ondoren ba'doa, egia maite ba'dau, ¿zer dala-ta askok estautse ziñisten Egia berbera danari? Jesus Egia da. Argi irakatsi eban bere bizitzan, itzez eta egitez, egiaren aldez alatz edo mirari andienak egin ebazan. Zer dala, ba, askok eztautse ziñistu gura? zer dala-ta bere kaltez dabiltz? Eunetik larogetamarrek esan geinke ez - jakitegaiti eta enparauak, arrokeri, lizunkeri ta diru-zalekeriagaitik; lau iturri oneitatik sortzen da gizonen itsukeria, ta euren illuntasunak argitzeko, egiaren izpi biziak begi aurrean ipinten ba'dautseguz, egia irakasten daunen kaltez jaikiten dira, iraintzen dabela itzez ta guzurrez, Jesus'i samarritarra zala (judarren artian irañik andiena zan samaritarra esatia) ta gokaiztoa eukala esan eutsonian ba, ¿Zergaitik

ainbeste amurru, gorroto ta gaizki-esate jaupari (abade), lekaide (pralle)-akaitik, egi garratzak begien aurrian ipinten ditu-elako izan ezik? Ta zenbat eta egiak argi biziago, gorroto andiagua, ta judarrak Jesus'i lez, lenen irañez aurretik kentzen alegintzen dira, ta au naiko eztala, arriak artzen dabez egia zabaltzen dabillenari jaurtiteko. Erlejiñoen kaltez daukiezan ziyoak onexek dira: lotsabagekeria itzetan, eta aberekeria egiñenetan. Eta diñoenez ori, gu illun zaliak gariala, ta eurak argi zaliak. ¡Amaika ba'yaok!

GABIREL.

# Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 6'gn. Nekauztekua; 13'gaŕenian Abaŕ-Igandia. Aste Gurena gauŕ asten da.

*Amabostaruon jai osorik ezta.*

Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN - IXENDABAK: 2'gn. Barau-eguna.

4'gn. Barau ta *aratuzte*-eguna. Il̄aren lenengo barikuba,

*Il̄aren lenengo bederatzi bariku jaŕatubetan, biaŕ dan eraz, Jaunaŕtza ba'dagixu*—Josu-Kisto'k esan eban—*donokija zeuria dozu.*

5'gn. Barau-eguna.

9'gn. Barau-eguna.

11'gn. Miren Nekane, Ama ta Neskutza; Barau ta *aratuzte* - eguna.

12'gn. Barau - eguna.

14'gn. Astelen - Guren.

15'gn. Astaŕte - Guren.

## Deun - Uga, Grenoble'ko Gotzaña

JOŔAL̄A 1'GN

Parantze'n, Valencia uri ondoko Kastel-Novo'n, 1053'gaŕenian jayo zan gauŕ Doibatzak ospatzen daun Deun - Uga. Aberatz, andiki andi ta kistaŕ zindo-zinduen semia ixan zan. Odil̄ona bere at̄ea,

## AMA NEKATSUA! J.Z. 1919-119-052

Gurutza batean zinzilika dager
ankerki yosirik Yainko-Semea.
Nork azaldu leike berari begira
dagoan Amaren atsekabea?

Yosu da Semerik maitagarriena
Miren, Ama samur maitatiena
Ama-Seme onei biotza zulatzen
dautsen espatea da zorrotzena.

Nork neurtu ete lei Semeak biotzan
daukan maitetasun sugar-indarra?
Nork zenbat maite daun Mirenen biotzak
bere kutuna dan Seme Bakarra?

Zabal-sakonean neurrigabea da,
alkarrenganako maitetasuna;
neurrigabea ba ez ete da izango,
bion biotzeko neke-samiña?

Semeak burua elorriz yosita
esku eta oñak untze gogorrez,
Amak dakuszala, ez dau eukiko ba,
lertuten biotza samin-indarrez?

Yasoizuz begiok, ikusi, aztertu,
gogaldu nekeok geldu-geldurik;
lurbira onetan oñaze gustiak
Aman nekeokaz daben bardiñik!

Itxaso ondogabe, gazi-mingotsa da
Amaren biotza neke-oñazez;
bat batez bizia kenduko eutsona,
adoretu ezik goiko-eskarrez.

Auxe da Simonek Ama maite orri,
iragarri eutson samin-ayotza,
ta neure obenez egiña dalarik
garbaiz-garbaiz daukat ene biotza.

Ama maite ori, Errukitu zaitez!
negarrez datortzun seme onetzaz;
Errukian Ama zeu zarealako

Ama Nekatsuoi; Erruki nitzaz!

# ¡AMA NEKATSUA!

Gurutza batian zintzilika dager
ankerki josita Jainko-Semia:
¿nork azaldu leike berari begira
daguan Ama'ren atsekabia?

Josu da Semerik maitagarriena,
Miren Ama samur maitatiena,
Ama ta Semiai biotza zulatzen
dautsen ezpatea, da gogorrena.

¿Nork neurtu ete lei Semiak biotzan
daukan maitetasun-sugar-indarra?
¿nork zenbat maite daun Miren'en biotzak
bere kutuna dan Seme Bakarra?

Zabal - zakonian neurrigabia da
alkarrenganako maitetasuna,
¿mugarik bagia ez ete da izango
bion biotzeko neke samiña?

Semia'n burua elorrriz josita
esku eta oñak untze gogorrez
Ama'k dakuzala, ez dau eukiko ba
lertuten biotza samin-indarrez?

Jaso ba begiok, ikusi, aztertu,
oldoztu nekiok geldu-geldurik:
lurbira onetan oñaze gustiak
Ama'n nekiokaz daben bardiñik.

Itxaso ondogabe gazi mingotsa da
Ama'ren biotza neke oñazez,
bat-batez bizia galduko ebana
adoretu ezik goiko - eskarrez.

Auxe da Simon'ek Ama maite orri
iragarri eutson samin-ayotza,
ta neure obenaz egiña dalako
garbai-garbaiz daukat ene biotza

Ama maite ori, ¡errukitu zaitez!
negarrez datortzun seme onetzaz
¡Errukian Ama, zeu zarialako!
¡Ama Nekatsuoi! ¡erruki nitzaz!

GABIREL.

# Jazokuna

Emen argitaldutén dogun jazokun au, «L' EMMANUELE» Turin'go aldizkingiak edo errebistiak diñonez, amaitu dan guda gogorrean gertatua da.

Etsai kaltez ziarduen gudari talde bateri laguntzeko joyala, jaupari bat, bapatian anketan zauriturik konorgatuta jausi zan. Bere senera etorri zanian zirkiñik ezin eban egin. Beragandik ur samar, izugarriro zaurituta azkenetan egoan gudari bat ikusi eban, otoi egiten ziarduala. Jaupariak (abadiak) deitu ta esan al-izan eutson: «Jaupari naz» Eta gudariak erantzun eutson: «Aitortu nagizu ba,» eta negar eta ayene artian bere obenak azaldu eutsozan. Jaupariak azkitza (absoluziñoa) emon ondoren esan eutson: Josu Oteundua (Sakramentaua) neugaz daroat... onaño etorri alko zara? Gudaria narrazka, zaurietatik odola eriola, alegiñen-alegiñez jaupariagana urreratuez joyan eta azkenez al-izan, eban gustia eginda, odol asko galduta, jaupariagandik metro bat ingurura eldu zan. Jaupariak eskua luzatuta esan eutson gudariari: «Eskua bakarrik luzatu egizu» Nekez luzetu eban eta, jaupariak emonda, Gure Jauna artu ebanian, odolez gorri-gorri eginda egoan.

GAMA.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
120'g. zenbakija

Aste - Gurena 1919 Zoŕnotza, Joŕala 15'gn.

# ABAŔ - IGANDIA

IGANDIAK berariz Jaunaren egunak diralako, Doibatzak beti andiro ospatu dauz.

Igande batzuk baña, euretan gomutetan doguzan eskututz nagusijakatik, bestetzubek baño gomutagaŕijago dira, ta Doibatzat be andiruago ospatu oi dauz.

Autarikua da Abaŕ-Igandia. Berau baño gomutagaŕijagorik, Doibatzat andiruago ospatzen daunik eta kistaŕak euren ziñismena ta eraspena agirijago autoŕtzen daben iganderik, urte taŕtian, biaŕ-ba, ez da.

Eta Doibatzak beti ospatu dau andiro igande au. Igaratz-jaibururako obeto gertutiaŕen Erakuskunde'z, iñor be ikusi baga bixi ixatekotan, basuan basaragotzen ziran lekauti ta lekaidiak be, gauŕko igandez, beste lekaidiakin jai au ospatzeko lekaretxietara itzuliten ziran, Aste Gurena igaroteko, gero bakaŕtokijetara beŕelduko ba'ziran be.

Igande auk ixen bat baño geyago ixan dauz. Oben - nekia agirijan, biaŕ dan eraz bete ebenak, eta Igaratz-Egunez ugutzauko ebezenak ixentatzia egun autan egiten ebelako Azkespen-Igandia ereisten yakon. Ugutzauko ebezenai, umiai batez - be, gaimel - igurtzija ganorazago aŕtu egijen sapotza gaŕbitzen eutsen eguna zalako *Lavatesta, kapilavium* eguna ereisten eutsen. Aŕunkijen baña ereisten yakona da gauŕ ereisten doguna *Abaŕ-Igandia*.

Zer ospatzen dau Doibatzak?

Abaŕ-Igandez Doibatzak ospatzen dau Bariku Guren auŕeko igandez Hierosolym'en, Josu-Kisto'k egin eban gurenda -sarkuna.

Igaŕliak iragaŕita eban: "*Sion'go alabiari esaketsozube: ona emen yatoŕtzu otzan zure bakalduna, zaldun, astaeme ganian, eta astakumiagaz, berau lanerako astaemiaren kumia*". Iragaŕki autan Sion'go alabiari iragaŕten yakon asto ganeko zaldun, Bakaldun otsana Josu-Kisto gixabatzaren Gaizkatzalia da. Iragaŕki au, baŕiz, egoki egoki gauŕ betetan da. Ba, Goizpaŕkijak diñon lez: «urbildurik Josu Hierosolym'era Betpage'ra Gaimeluŕaitz mendira elduki, bere ikasle bi bialdu euzan ziraútsela: Auŕez dozuben gaztelura zuaze, ta beriala idorokezube astaemia lotuta, ta berakin astakumia, azkatu egixubez, ta ekaŕi egistazubez: baŕiz, iñorbatek zerbait ba'lesakezube, Jaunak biaŕak dauzela esaketsozube, ta beinguan itxiko dautzube». Guk len aitatu dogun iragaŕkija bete zedin, au jazo zala diño Goizpaŕkijak berberak. «Ikasliak ba — daŕai Goizpaŕkijak — juan ziran, eta Josu'k agindu eutsen lez egin eben, eta astaemia ta astokumia ekaŕi ebezan; eta aunen ganian euren soñekuak jaŕi ebezan, eta ganian jesaŕiazo eutsoen: eta ainbatek soñekuak bidia - ziaŕ edatu ebezan: beste batzuk baŕiz, zugatzetako abaŕak ebagi eta bidian zabaltzen ebezan: eta auŕetik eta atzetik joyan oztiak diadaŕ

egit̃en eban, iñola: *Hosanna filio David:* Gora Dabid̃a'ren Semia: Onetsija Jaunaren ixenez eltzen dana».

¿Ezta au, benez, gurenda-sarkuna? Ba berau ta ez besterik da gauŕ gure Doibatzat ospatuten dauna.

Josu-Kisto gixon ez eze Jaun-Goiko be bai-dala zuk osoz ziñisten dozu. Ziñismen au bixi-bixi dozula, gauŕ abaŕak onesten dabezan aldijan txadonaratu zadi ta gurenda au eŕaz gomutauko dozu, ta, aldi atan, Josu'ri bidera urten eta gora diaŕka ibil̃i ziranakin gogoz batzauko zara. Mutiko taldia, geldi egon ezind̃a, abaŕak eskuaneta, jaya egit̃eko iñozko gertuben ikusiko dozuz: jauparijak abaŕok onesten asi baño lenago: «*Hosanna,* Gora Dabidaren Semia, onetsija Jauna'ren ixenez eltzen dana, Ixaŕel'go Bakalduna! Gora goi - goyetan» abestuten dabela entzungo dozu ta onespena amat̃uta gero, ume, gixon, andra, jaupari ta txadonan diran gustijak, abaŕak eskubetan dabezala, Josu'ri gora - goraka abeski samuŕez lagun-egit̃en dautsoela be ikusiko dozu. ¡Zeu euren aŕtian ixatia bai poza! Ibildeun autan abestuten daben *Gloria, laus, et honor, tibi sit rex Crhiste redémptor* ereserkija Jodulpa Gotzañak, Angers'en espetxetuta zala, eraldu eban. Abaŕ-Igande baten Jodulpa espetxian sartu eban Koldobika Kaiseŕak, ereseŕki au abestuten, espetxeko atian, entzun eutsen ibildeuneko mutikuai, ta osoz samurturik, Gotzaña espetxetik azke atara eban eta lengo Gotzain - aulkira eruan eban.

*Belaustegi't̃aŕ Pantzeska.*

JAUPARIJA.

## YOSU GURUTZAN J.Z. 1919-120-065

Gurutza baten yosita dager
Yaungoikoaren Semea,
gaizkille deunge baltzena letxe,
ludiko Yaun ta Yabea.

Esku ta oñak untze gogorrez,
gurutzagaz dauz baturik,
buru ederra zauriz beteta,
arantzaz inguraturik.

Gotzonen poza dan arpegia,
autsez, izerdiz, odolez,
maskaldurik dau, gorputz gustia
zauriz eunduta oñazez.

Bere biotza samintzen dautse,
irri garrats eta ixekaz,
lotsagarriro laidotzen dabe
itzik irainkoyenakaz.

Burdin ankerraz zulatzen dautse,
Maitasunari bularra,
ta, geu-obenak auts biurtzeko
urten da maitasun-garra.

Geu obendunok besarkatzeko
besoak daukoz zabalik,
ta maitasunez gogor yosita
ez bialtzeko zigorrik.

Eguzkiak be, lotuten ditu
bere barruan izpiak,
ez dala asartzen argitzen, bere
Yaunaren samin-nekeak.

Lurra be dar-dar dakuszunean
ez zadiz geldu kistarra,
illik dagona *Errugea* da,
Yainko-Seme Bakarra.

Geldu zadiz bai dagoalako
illda gugaitik gurutzan;
Garbatu barriz oben egiñaz!
Ez geyago oben bizitzan!

# Josu Gurutzan

Gurutza baten josita dago
Jaungoikua'ren Semia,
gaizkille deunge baltzena letxe
ludiko Jaun ta Jabia.

Esku ta oñak untze gogorrez
gurutzagaz dauz baturik:
buru ederra zauriz beteta
arantzaz inguraturik.

Gotzonen poza dan arpegia
autsez ixerdiz, odolez,
mazkalduta dau; gorputz gustia
zauriz eunduta oñazez.

Bere biotza samintzen dautse
irri garratz eta ixekaz,
lotsagarriro laidotzen dabe
itzik irainkoyenakaz.

Burdin ankerraz Maitasunari
zulatzen dautse bularra,
ta geu - obenak auts biurtzeko
urten da maitasun-garra.

Geu-obendunok besarkatzeko
besuak daukoz zabalik;
ta maitasunez gogor josita
ez bialtzeko zigorrik.

Eguzkiak ba lotuten ditu
bere barruan izpiak:
ez dala asartzen argitzen bere
Jauna'ren samin-nekiak.

Lurra be dar-dar dakuszunian
ez zadiz geldu kistarra,
ilda dagona Errugia da,
Jaungoiko-Seme Bakarra.

Geldu zaite bai, dagualako
ilda gugaitik gurutzan,
¡garbaitu barriz oben egiñaz!
¡ez geyau oben bizitzan!

GABIREL.

geyago gugazko maitetasun gaŕtsuak eragin dautzuz. Eskaŕak Jaun on eta laztantsu oŕi; biotzetiko eskaŕak, gure aldez egin dozun guzti origaitik.

Zuk, zeure aldetik, gure zorionerako beaŕ zan guztia egin dozu: guk, geure aldetik ¿beste aonenbeste esan ete-daikegu? Zuk zeure egikizun ori zeatz bete dozu: guk, geure eriotz-aldian, geure egikizuna zeatz bete dogula esan al-izango ete-dogu? Guk be geure egikizuna, asi ta amaitu beaŕ dogun arloa daukagu; geure gogoaren zoriona egitea, gure arlo nagosia ori da. Zuk, gure Jaun maitakoŕ eta eŕukitsu oŕek, egin zendunari, geuk egin beaŕ doguna erantsi ta gañeratuko ba'geunskio, geure betiko zoriona eskieŕ eskuratuko geunke; baña gu argalak gara ta zuk, gure Jaun oŕek, gure argaltasuna ondo dazauzu. Eŕuki zakiguz, ba, ta geure eriotz-aldian zeure itz oŕekin geure garaitza abestu daikegun, geure arlo nagosi aoni gogoz ekiteko beaŕ dogun goitiko indaŕ eta kemena emoiguzuz.

*Eguzkitza'taŕ Jon U.*
Jauparija

# STABAT MATER

GURUTZ aztuna bere soin zaurituan daroyala, gaizkillerik baltzena lez, irri, destaña, ixeka ta ezetzi artian, Jainko-Semia, gure obena kentziarren, Koskotegi-mendira eldu da. Eguzkipian izan diran gizonik gaiztuenak, Errugetasun berbera dana gaizkiletzat etsi dabe. Eta mendi ta ibarrak lili ta loraz apaintzen dituan Jauna'ri bere soñekuak kendu, ta ontasuna zabaltzeko bakarrik igitu ziran esku-oñak, untze gogorrez gurutzari josten dautsez. Eta itz bategaz ludi gustia ezerezetik irazan ebana, Jakituri berbera

Jainkua'ren Itza, lapur biren erdian, euraen buru balitz lez gurutzan zintzilika ipinten eben artian bildotz otsana lez ixil̄ ixil̄ dago. ¡Ikuskixun arrigarria! ¡Ikuskixun urrakorra! Ez ikustiarren eguzkiak bere izpiak eskutatzen ditu, lurrak naigabez dar-dar dagi eta arriak samiñez zatitzen dira. Eta bere Ama: ¡geldu zaite kistar maitia! ¡gurutz-oñean zeguan!

«*Stabat juxta crucem Jesu mater ejus*» (Joann, XIX-25). Ama'ren biotzarentzat oñaze garratsena bere seme kutuna ilten ikustia da. Agar ama maitatia, bere seme Ismael lekaruan, urik ezta, egarr̄iz itoten ikustia jasan ezinda, «mutilla ilten eztot ikusiko» esanaz (Gen. XXI-16) negarrez aldendu zan. Eta Miren, Amarik maitati ta samurrena, izan leitikian Semerik ederrena, semerik altsuena, semerik on eta errugiena, semerik maitagarriena, bere bizitzaren bizitza, bere maitasunaren maitasuna, bere biotzeko kutuna, gurutz lotsagarrian ilten ikusita: ¡Gurutz-oñean dago!

¿Nok oldoztu ete leikez, bere Seme maitia esku-oñak untzez josita, burua arantzaz zulatuta, arpegia txistuz ta odolez zikinduta, irain, irri ta ixeka artian iltzer (agoliñan) ikusi ebanian, jasan eban oñaze garratza? Eguzkia lotsaz estaldu ta arriak samiñez zatitu ba dira: Ama'ren biotzeko samin-itxaso ondogabia; ¿nok aztertu? Bere biotzeko samin-ekatxaren indarra: ¿nok azaldu? Bata bestiai bultz eginda, bere biotz barrua naspiltzen daben oñaze-uiñak (olatuak): ¿nok zenbatu? Bere samiña itxasua lez aundia da. (Tren. II-13) Ziñez esangeinke, ba, Justiniano'tar Laurentzi deunagaz, Alako Ama'rik ezta izan: alako Seme'rik be, ez: ez ainbeste maitetasun: ez ainbeste oñaze» Eta ez aiztu kistar maite, Josu geure Gaizkatzale maitiak gurutzan iltzer egoala, bakotxarentzat esan ebana: *Ecce Mater tua*



Orra or zure Ama. Eta Ama maite Nekatsu au ikusirik oñazez,
biotza erdibituta
geure oben-ayotzez:
¿Nor ezta errukituko
oben-garbai-samiñaz?
¿nor iñoz asartuko da
iraintzen obenagaz?

**MANTEROLA'TAR GABIREL, Jauparija.**

Amabosteroko
— ingurtija —
# Jaungoiko-Zale
VIII Urtia
121'g. zenbakija
EUZKELDUNEI EUZKERAZ
1919
Zornotza, Orila 1'gn.

## BERBIZKUNDE OSTEKO IRUGARREN IGANDIA (Goizparkia)

ALDI ATAN: Jesus'ek bere ikasliai esan eutsen: Aldi apur bat eta ez nozue ikusiko: ta beste aldi apur bat eta ikusiko nozue, Aita'rengana nua-ta. Ta beren ikaslietariko batzuek alkarri esan eutsen: ¿Zer ete-da au, diñoskun au? Aldi apur bat eta ez nozue ikusiko: ta barriro aldi apur bat, eta ikusiko nozue, Aita'rengana nualako? Iñuen ba: ¿zer ete - da diñuan aldi apur au? eztakigu zer diñuan. Eta Jesus'ek itandu gura eutsiela esagutu eban, eta esan eutsen: Auxe alkarren artian darabiltzue nik esan dautzuedalako: Aldi apur bat, eta ez nozue ikusiko: ta barriro aldi apur bat, eta ikusiko nozue. Ziñez, ziñez diñotzuet: negar eta erosta egingo dozue ta ludia alaituko da: zuek barriz itunduko zarie, baña zuen itun-aldia pozortuko da. Emakumia erdikaldian itun da, bere aldia bai'dator-ta: baña señaz erdiko danian, pozarren bere estutasunaz ezta oroitzen, gizona ludian jayo da - ta. Baita zuek be oin itun zagoze, baña barriro ikusiko zaituet eta zuen biotzoi poztuko da ta poz ori iñok be eztautzue kenduko. (JOAN, XVI - 16 - 22).

* * *

Kistar maite: Gaurko Goizparkia Azken - aparian Jesus'ek bere ikaslai egin eutsen itzaldi ederraren atal bat da. Itzaldi onetan geure Jaun maitiak beren Nekauste gogorra iragarri ondoren, otseina ugezaba baño nagusiago eztala-ta, neke-min eta jasarpen ugariak iragarri eutsezan. Au zala-ta ikaslien biotzak itun eta lurjota egozan. ¡Neke ta jazarpenpian ibilli biar! Izpar samiña zan ziñez au, poz-atsegin ondoren dabillen biotzarentzat! Baña beste biderik ez dago. Jesus, betiko zoruna lortu gura dabenentzat, bidia ta eredua da, ta bide eredu bakarra. Ta Bere jayotzatik il arteraño neke - min eta etenbako atsekabepian bizi izan ba'zan, gero illen artetik berbiztu ta garaitzalle, aintzaz beterik zeruan sartzeko: bere jarraitzalle, ta bere aintzan aldele (partícipe) izan gura dabenak be, atsekabezko bidia baño beste biderik aukeratu ete - leike? Ez; Jesu-Kristo gure Jaun maitiak berak irakatsi euskunez ba, otseña nagusia baño geyago ezta. Egia da zoruntsua izateko Jainkuak egin daben geure biotz au, girna gaiztuen zirikadak, ez biarrak, zoritxarrak, naigabiak, etsayen ezetsiak, aizkidien irañak, gexuak ala maite doguzanen eriotzak ta abar, arantza gogorrak lez zulatzen dabela, ta ituna bere barruan sortzen dabela: baña larregi ez gaitezan estutu, atzerrian gagozala ta bidaztiak gariala ez gaitezan aztu: begiratu daigun geure elburura, geure aberrira, zerura, eta an, Jesu-Kisto'k geuri irakatsi euskun bide ontatik juanda irabazi eban aintza, poza ta zoruna geuretzat be, gertuta daukala gogaldu daigun, bere neke - lagun izan ezkero. Kistar maite: samin-aldian entzun Jesu-Kisto'k bere ikasliai esan eutsena:

«Zeuen biotz ori ez bedi ikaratu ta koldartu». (JOAN, XIV - 27). Neke - samin aldian ba, jaso gora biotza, samin garratz gustiak eruan Jainkua'rren. Aldi apur bat eta gustia amaituko da, eta orain itun daguan biotz ori poztuko da, ta zeure poz ori iñok be eztautzu kenduko. (JOAN, XVI - 22).

GABIREL.

## AGUR...! J.Z. – 1919-121-073

Donoki-lurren Yaun ta Yabeak
beren Amatzat autua,
Zu zara Miren izaki eder,
oron artean altsua;
Zeure buruan amabi izarrez
apaindurik burestuna,
dakustalako; Aintza Zuretzat!
Agur ludi Bakalduna!

Ama maitati onenak baño
samurragoa biotza,
agertzen dozu gizon gaxuoi
emonik zeure laguntza;
ta Zeuk semetzat artu nozu ta
nazalako zoruntsua;
biotz-biotzez eskar dagitzut
Agur Ama Eskartsua!

Oben edenak ene gogoa,
eskar bizitza kendurik,
donoki bidez goirantz doyala
itxi daunean illotzik;
Zeuk Goi-eskerrez barriro biztu
daustazulako biotza;
barren-barrendik, Eskarrik asko!
Agur gogoko bizitza!

Atsekabe ta mingostasunak
biotza miñ-garraztuta,
ene gogo au ipiñi badau
bizitzagaz aspertuta;
Zeu izan zara beti niretzat
poz eta zorun osoa;
augaitik pozez agurtzen zaitut;
Agur Amatxo gozoa!

Goiko zoruna yaritxiteko
eragozpen ugariak,
neuri etsayak ipiñikustaz
galerazteko bideak;
orduan, Ama, orain arte lez
emon indar eta almena,
Zeuri biotzez didar eiteko:

Agur ene Itxaropena!

Iturria: *Goi-izpiak*, Manterola'tar Gabirel. Jaungoiko-Zale, 1921

# ¡AGUR..!

Donoki-lurren Jaun ta Jabiak
bere Ama'tzat autua,
Zu zara Miren izaki eder
oron artian altsua:
Zeure buruan amabi ixarrez
apaindurik burestuna,
dakustalako, ¡aintza Zuretzat!
¡Agur ludi-Bakalduna!

Ama maitati onenak baño
samurragua biotza
agertzen dozu, gizon gaxuoi
emonik zeure laguntza:
ta Zeuk semetzat artu nozu-ta,
nazalako zoruntsua,
eskar dagitzut biotz - biotzez;
¡Agur Ama Eskartsua!

Oben edenak ene gogua
eskar bizitza kendurik,
donoki - bidez goirantz doyala
itxi daunian illotzik;
Zuk goi - eskarrez barriro biztu
dauztazulako biotza:
¡eskarrik asko barren-barrendik
¡Agur gogoko bizitza!

Atsekabe ta mingoztasunak
biotza min - garraztuta,
ipini ba'dau ene gogua
bizitzagaz aspertuta:
Zu izan zara beti niretzat
poz eta zorun osua:
augaitik pozez agurtzen zaitut;
¡Agur Amatxo gozua!

Goiko zoruna jaritxiteko
eragozpen ugariak,
neure etsayak ipinikuztaz
galerazteko bidiak;
orduan Ama orain arte lez
emon indar eta almena;
Zeuri biotzez didar eiteko:
¡Agur ene Itxaropena!

GABIREL.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
122'g. zenbakija

EUZKELDUNEI EUZKERAZ
1919
Zoŕnotza, Oŕila 15'gn.

## Berbizkunde osteko boskarren igandia (Goizparkia)

ALDI ATAN: Jesus'ek bere ikasliai esan eutsen: Ziñez, ziñez diñotzuet: Aita'ri zerbait nire izenaz eskatuko baldin ba'dautsozue, emongo dautzue. Oñarte eztautsozue nire izenaz eskatu. Eskatu eikezue: ta artuko dozue, zuen poza betia izan dedin. Gauzaok supitez (ipuñez) esan dautzuedaz. Aldia dator, zuei ez supitez, bai barriz argi ta garbi Aita'tzaz itz-egiteko. Egun atan neure izenaz eskatuko dozue: ta eztiñotzuet ba, neuk Aita'ri zeuen aldez otoi egingo dautsodala. Aitak berak maite bai'zaitue zuek be maite nozuelako ta Neu Aita'gandik urten nintzala ziñestu dozuelako. Aita'gandik urten eta ludira etorri nintzan eta Aita'gana nua. Bere ikasliak diñotsoe. Ointxe bai argi ta garbi itz-dagizula eta supitarik eztiñozula: ointxe bai, dakigu gustia dakizula, eta iñok itandu biarrik eztozula: auxez, bai, zinesten dogu, Jaungoikua'gandik urten zarala. (JOANN, XVI, 23-29).

* * *

Kistar maite: Mats-ayena mats-orpuagaz bat ezpada, auldu ta igartzen dan lez; kistarrok be, Jesus'ek irakatsi euzkunez, Beragaz bat ez-pagara, gogo-bizitza galtzen dogu, Bera geure bizitza dalako. ¿Zelan baña Beragaz batu? Entzun Berari. Lenen ziñeste bidez: «Jainkua'gan ziñesten dozue: Ni gan be ziñestu eikezue (J. XIV-1). Maitasun bidez: «Nire maitasunian iraun eikezue (J. XV-9). Otoi bidez: Bere izenaz otoi egiñda (XIV-13) Auxe, otoya da gaurko goizparkian agintzen dauskuna. Jainkua'ren eskar barik gogo-bizitzarik eztago: Jesus'en izena onuraz aitatzerik, ezta; ez indarrik geure arerio amorratuen ziltza (tentaziño) gogorrak azpiratzeko; eta otoi barik goiko eskarrik eztago, beraz otoi barik gogo-bizitzarik bez. Otoia, ba, donokiratzeko biar-biarrekua da: otoia geure ziñeste Jaun-maitasunaren arnasa lez da: eta arnasa barik geure bizitza auldu ta amaitzen dan lez, otoi barik gogo-bizitza auldu ta ezereztuko da. Eskatziak ba, bere sustar, neurri, ta legia, biar-izanian ba'dauka: geure gogo-bizitzarako eskatzia baño gauza biarragorik ete da? Ta biar-biarrekua dan otoi au Jesus'ek agintzen dausku, «Eskatu eikezue ta artuko dozue diñoskunian» ¿Zer artu? Uts-barik gogua zeruratzeko biar dogun gustia beintzat. ¿Zelan eskatu? Apaltasunaz, baña uste biziaz, ezpai barik, eta arrokeri izpi barik, baña asartasunaz ta beti Jesus'en izenaz ta bere irabazi arren. «Neure ixenaz neure Aita'ri zerbait eskatuko baldin ba'dautsozue, emongo dautzue». Ziñez, ba, Goiko Aita, Aita'rik altsuena, onena ta samurrena dalarik, semе gaxuaren didarra, ez ete dau entzungo? Otoia ba, ezuskorra, (infalible) beti egikorra da, ez geure irabaziz, Josu'en irabaziarren eta bere abintzaz baño» Eskatu eikezue ba ta artuko dozue» Jainkua'ren itzak dira. Kistar maite: ez aztu.

Baña bat edo batek esango edo dau:

Otoia ain indartsua dalarik: ¿Zer dala-ta eztogu lortuten sarritan eskatzen doguna? Jakoba deunak darantzutzu: «eskatu ta eztozue artzen, gaizki eskatzen dozuelako (J. IV-3). Josi eikezu ba zeure gogoan irakurle orrek: Jauna'ren aizkide dan biotzetik zuzenez urteten dan otoia, beti-beti egikorra da, donokiratzeko biar dituan laguntza ta eskarrak lortuteko.

Azkenez, ondo egindako otoia, donokigiltza da, geure etsai amorratuaren kaltezko izkillua, (arma) samin-aldietan gozotasuna, geure ondasuntagia...

GABIREL

## GOGO-ARGIDIRIA – J.Z.- 1919-122-080

Udabarriko argidiria
baidala ziñez zoragarria!

Eguzkiaren urrezko izpiak
mendi galenen ertzetatik
yatsirik, ibar lili gustiak
esnatzen dituz lo zorrotik.

Udabarriko argidiria
baidala ziñez zoragarria!

Goitik yatsi dan iñontz gardena
lora-gain dagola atsedentzen
argi-beroak laztantzen dau ta
beragaz goirantz eroaten.

Udabarriko argidiria
baidala ziñez zoragarria!

Odei-ertzean argitasuna
sortzen daneko txoritxoak,
txuinta gozo eta bigunaz
alaitzen dabez inguruak.
Eta axe bigunak abes samurrak
here altzoan laztandurik
pozaren-pozaz edatzen dituz
urira oyan, ibarretik.

Ziñez bai ziñez zoragarria
udabarriko argidiria!

Baña nik dazaut ederragoa
argidiri bat bikañagoa.
Gogo bizitza galdu dabena
esnatzen dauna lo-zorrotik,
oben gabean bizi izan dana
bildurgarri dan ilunpetik.

Beronek garbai dan biotzetik
sortzen dau negar-malko iñontza
izpi bigunez lurrundu, eta
oben ordaña dan eskintza;
Yaun errukitsu ta biozperan

aurrera pozez aurkezturik,
goiko eskarrez geure biotzak
ipinten dituz zorundurik.

Eta pozaren birloratuta
esker-maitasun abes leunaz,
mendi ta ibarrak poztutzen ditu
Miren Amari abestuaz:
«Bigun, samurra, zoragarria,
Zu zara gogo-argidiria!».

# Gogo - argidiria

Udabarriko egun-sentia
bai-dala ziñez zoragarria!
Eguzkiaren urrezko-izpiak
mendi-galenen ertzetatik
jatsirik, ibar lili gustiak
esnatzen dituz lo zorrotik.

Udabarriko egun-sentia,
bai-dala ziñez zoragarria!
Goitik jausi dan iñontz gardena
lora-gain dagola atsedentzen
argi-izpiak laztantzen dau-ta
beragaz goirantz eruaten.

Udabarriko egun-sentia
bai dala ziñez zoragarria!
Odei-ertzian argitasuna
sortzen daneko, txoritxuak
txuinta gozo eta bigunaz
alaitzen dabez inguruak.

Eta aize bigunak abes samurrak
bere altsuan laztandurik,
edatzen dituz pozaren pozaz
urira, oyan-ibarretik,
Ziñez, bai ziñez zoragarria
Udabarriko argidiria

Baña nik dazaut ederragua,
argidiri bat bikañagua!
Gogo-bizitza galdu dabena
esnatzen dauna lo-zorrotik,
oben gabean bizi izan dana
bildurgarri dan illunpetik,

Beronek garbai dan biotzetik
sortzen dan negar-malko iñontza
izpi bigunaz lurrundu eta
oben-ordaña dan eskintza
Jaun errukitsu ta biozperan
aurrera pozez aurkezturik
goiko-eskarrez geure biotzak
ipinten dituz zorundurik.

Eta pozarren birloratuta
eskar-maitasun abes-leunaz
poztuten ditu mendi ta ibarrak
Miren Ama'ri abestuaz:
Bigun-samurra, zoragarria:
Zu zara gogo-argidiria!

— **Gabirel.**

# EUZKO - IKASKUNTZA

Urrengo damingun agerpide au, egun batzuk lenago Donostia'tik eldu yakun. Atsegin andiz geure aldizkingi txiki aunetan toki egin dautsagu, Uzkurtzaletasunaz batera jakidi ta euzkeltzaletasunari indar emotia egoki deritxogu-ta. Urrengo zenbakijan araudi osua ipiñiko dogu.

«Oñati'n igazko Iraiĺaren lenengo astean egindako Euzko - Ikaskuntza - Batzaŕ gomutagaŕian, eun eta eun batzaŕkide ospetsu ta argidunek azaldutako gurari bizia izan zan, lenagotik be askoren asmoetan egoan egikizuna, arean: aitaturiko Batzaŕ atan egindako beaŕak auŕerantz eroateko gai litzaken Bazkuna ira tea.

Oŕelako gogo zindo ta eŕikoyaz soŕtua da Bazkun au, ta zelabait *Sociedad Vascongada de Amigos del País*'en auŕe-eredua aŕturik, ahal daun batasunaz bere ekin-gayak auŕera eragiteko asmo betez datoŕtzue, beste eŕi yagibaŕi ta bizkoŕenetan, gizadi osoaren itzal eta ezkaŕekaz, ikusten diran Ikaste ta Aditalgun-Bazkunen bide beraxe yaŕaitu gura daularik.

Gaitza ta edatsua da, ziñez, gure Bazkun aunek erein gura ta beaŕ daun arloa, ta oraindaño gustiz gutxi landu ta aŕas uŕiro azteŕtu dalako, oraingo ekite baŕiaz uzta ugari - ugariak eskeintzen dauskuz. Gure egikizun ta lan - gayak aunexek dira: gure ahalmenaren neuŕiz, Oñati'ko Batzaŕaren erabagiak betetzea, ta erabagi aunetan eŕne-gai lez dagozan azi onak soŕ - eraztea, arean: Batzaŕ-Idaztiaren eta batzaŕkide-aŕteko batasun-bidea izango dan Inguŕtiñoaren argitalbena; Euzkerea yagon, zabaldu ta garbitzeko beaŕ dan eralguntza iraztea (enda - ikuŕ guren au yagoteko beaŕa orok abots batez autoŕtzen dabe-ta); gure eŕti, eresi ta eŕi - yakiteak eskatzen daben arduraz aditaldu, bildu ta iraun-eraztea, gure eŕtilarien baŕi banakatuak orobat bildurik; gure Edestaldi-auŕeari, Endelesti ta Gizaneuŕiztitzazko itaungunei yagokezan lanak auŕera eroatea; Osakintzak, Eŕkelestiak eta Eŕi-Osasunbideak auŕkezten dauskuezan gorapiĺoak lenbañolen azkatzea; antziñatik datoŕskuezan eta orain daukoguzan eŕi-lagi-gayak aditaldu ta argitzeko beaŕ diran Batzoŕdeak eraltzea; gure eŕiari yagokon irakaskuntzarentzako bide baŕi ta zuhuŕagoak zabaltzea; ta guenez, itz uŕitan esateko, antziñalditik aŕtu doguzan gai oro, adimenez ta idaztiz azteŕtzea, gure Edestia yaŕaitu ta etoŕkizuna ahalik ondoen atondu dagikeguntzat... Aunexek dira, politika deritzonaren ataz, gure egikizun eta asmo gurenak, eta egikizun eta asmook betetzeko, gai diran gure gizonen zuhuŕtasun eta ahalmenak eskatzen doguz, oroi bat. atatik urgazi gura izango dauskuenen laguntza, gure egintzaren soŕpenak Euzko - Eŕi osora ta bere uri nagosi ta txikaŕen eta auzorik uŕunekoenetara be edatuko diran ezkero.

Asmo aunegaz gure Aldundiak eta gure Udalik nagosienak euren urgazpen betea emoten dauskue. Baŕdin eskatzen dautsegu beste askori arean: yakite-bazkunei, euren langideak izatea gura dogu-ta; gure itz-otsa abegiz aŕtu gura izango daben izpaŕingiei; gure asmook ontzat etsiko dabezan gustiei. Ta batezpe, euzko oroi, gure ta euren Bazkunaren bizitza euren eskuetan dago - ta».

*Kanpión'daŕ Arturo,* Omen - Lendakaria. — *Elorza'taŕ Julián,* Lendakaria ta Gipuzkoa'ko Aldundiaren Ordelaria.— *Unda'taŕ José María,* Araba'ko Aldundiaren Ordelaria.— *Juanmartiñena'taŕ Juan José,* Naparra'ko Aldundiaren Ordelaria. — *Elguezabal'taŕ Kosme,* Bizkai'ko Aldundiaren Ordelaria.—*Urquijo, Julio,* Lenengo Lendakari-Ordea.—*Broussain, Pierre;* Bigaŕen Lendakari-Ordea.—*Mujika, Gregorio,* Idazkari-Ordea.—*Urabayen'daŕ Lontzi,* Diruzaiña.— *Artola'taŕ Biktor,* Diruzain-Ordea.— *Arantzadi'taŕ Telesporo.— Armendaraiz'taŕ Klaudio.— Bilbao'taŕ Esteban.—Eleizalde'taŕ Koldobika.—Kunchillos'taŕ Jagoba.—Landeta, Eduardo.— Allende-Salazar, Juan.—Orueta'taŕ José.— Gortazar'taŕ Jabier. — Echegarai'taŕ Karmelo. — Eguren'daŕ Endrik,* Autaŕkideak.— *Apraiz'taŕ Angel,* Idazkari Nagosia.

* * *

1918-Lotaziĺa-22'ko Batzaŕan erabagi eban Bazkun aunek, beingoz 250 lauŕleko gutxienez ordainduko dabezanekaz bazkide talde berezia eraltzea, «biztaldi-bazkideena» deritzakena, aldra aunetako bazkideak iĺoroko ordainbenetik yarei etsiko diralarik, aunela gura ba dabe.

1919-Urtaŕiĺa-4'ko Bazkun beraren erabagiz ta Bazkun-Araudiko XIII arauaren azkenengo zatia betetzeko, Oñati'ko batzaŕkide izan ziran bazkun eta notiñak «Euzko - Ikaskuntza»' ren *bazkide iraslaritzat* etsiko dira, uŕbil doan txantelaren bidez Bazkun auni adi-erazorik zenbateko iĺoro-ordainbena emon gura ete - leukeen. Osterantzean, eta beste gaztigurik ezpa'leko, bazkide-ordainben txikaŕena ezaŕiko yake.

* * *

IDAZKI TA GAZTIGU ORO, *Oficinas de la Sociedad de Estudios Vascos. — Palacio de la Diputación de Guipúzkoa. — SAN SEBASTIÁN'ERA* BIDALDU».

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
123'g. zenbakija

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1919

Zoŕnotza, Bagila 1'gn.

# Goteun-Etorkunde igandeko Goizparkia

ALDI ATAN: Josu'k beren ikasliai esan eutsen: Iñorbaitek maite ba'-nau, nire itza zainduko dau, ta nire Aita'k maiteko dau, eta beragana etorriko gara, ta beragan geldituko gara: ni maite ez naunak nire itzak ez dauz zaintzen. Eta aditu dozuen ikastia ez da niria bakarrik, ni bialdu naun Aita'rena baño. Itzok egin dautzuedaz zeuen artian nenguala. Baña Aita'k nire izenaz bialduko daun Goteun (Espiritu Santu) Pozkiliak, Berak egi oro irakatsiko dautzue, ta nik esango dautzuedazan guztiak gomutaratuko dautzuez. Gentzea (bakea) izten dautzuet, nire gentzea damotzuet: ez baña ludiak emoten daun lez Nik damotzuet. Ez bedi zuen biotz ori ixutu, ez bildurtu. Aditu dozue Nik esan dautzuedala: Bai'nua, eta zuekana bai'nator. Ni maite ba'ninduzue, poztuko ziñakeze ziñez, Aita'gana nualako: Aita Ni baño Nagusiagua da-ta. Eta oin esan dautzuet jazo baño lenago: jazoko danian ziñestu daizuen. Eztautzuet ba, itz asko egingo. Ludi onetako Nagusia bai'dator ta Nigan deusik ez dauka. Baña ludiak Nik Aita maite dodala, ta Aita'k agindu eustan lez egin dodala ezagutu dayen». (JOANN, XIV-23-31).

* * *

Kistar maite: Jainkua'ren agindu nagusi ta lenena auxe da: «Zeure Jaun Jainkua zeure biotz gustiaz, zeure gogo gustiaz, zeure adimen gustiaz maitatu eikezu». (MATTH. XXII-37). Eta Jon deunak diñoskunez ez itzez ta miñez, egiz ta egitez baño». (I JOANN III-18); esakunak diñonez ba, maitasun zintzua egiñetan agertzen da. Auxe da Josu-Kisto gure Jaun maitiak gaurko Goizparkian diñoskuna: «Iñorbaitek maite ba'nau, nire itza zainduko dau, eta nire Aita'k maiteko dau, eta beragana etorriko gara, eta beragan geldituko gara».

Baña Jainkua, toki gustietan lez, geure biotzian ez ete dago ba? Bai; Jainkua, izatez, almenez eta ageriz toki gustietan dago, baña bera benetan maite dabenen biotzera era berezian etorten da, bere biotza Goteunak (Espiritu Santuak) biztoki bizitzat artzen daula (I COR. VI-19). ¡Maitasun gelgarria! Jaungoiko onak, Bera maitatzen dabena, goiko-eskarraz donetuten dau, Bere bizitza damotso, bere semetzat artzen dau, bere aizkide dagi. Eta ludiko gauza gustiak asetu ezin daben geure biotza, geure atseden bakarra Goteun-Pozkiliak geure biotzera etorrita bere biztoki biurtzen dau. Eta Goteunagaz batera Josu jayo zanian aingeruak gogo zintzodunari eskiñi eutsen gentzak (bakia) geure biotza asetzen dau. Eta onetzaz gañera Goteunak bere emaitz ederrak aurrez geure biotzetan ixuritzen dauz. Geure biotzian bildur bakar bat, Jainkua obenaz iraintzeko bildurra sortzen dau. Bere maitasunaz Jainkuaren guraria betetako gurari bizia ta zintzua, eta maitasun seme-

korra piztuten dau. Bere indarraz geure biotz argala sendatuta, adorez betetan dau, erabagi onak zintzoro bete, mundutarren esamesak eta geure etsayaren ziltza gogorrak ostikopetuteko, eta kemena damotso bizitz ontako atsekabiak pozez eruateko. Bere onuz (konsejo) argitzen dau, zerbait dagigunian geure girña ala goiko eskarrak igitzen gaituan ezagutzeko. Adimen argia be bai damosku, ziñeskayan mamia ikusteko, eta Jakituria, Jauna'ri atsegin yakona argiro ikusi eta egiteko. Itz baten: Jainkua'k egiten dabena gura izanda, eta Berak nai dabena eginda, Bera geure biotzian biziko da.

Ta Jainkua geugan daukagula, ¿nor gure aurka? (Rom. VIII - 31). Geureganduteko ba, otoi dagiyogun biotzez:

Zatoz Goteuna, zatoz emaitzez,
geure biotzok asetzen,
Zeu - maitasunez bizi gustian
egon daitezen kiskaltzen.

GABIREL.

## IKUSI TA IKASI – J.Z. 1919-123-087

Kistar zintzoa, badozu ikusi
udabarriko goxetan,
margo ederdun lora usaintsua
biribil aran-ertzetan,
eguzkiaren izpi samurrak
ikusiaz beste barik,
here orritxo legun-bigunak
ipinten zabal-zabalik?

Eta arratsean ez dozu ikusi
loratxo guri samurra,
biribilduaz, eguzkiari
bialtzen esker-agurra
beroak iges egin eztayon
orri guriak estutzen,
ta goitik yausten dan iñontz otza
bildurge bere gain artzen?

Bardin eikezu kistar maitea
zeure gogoan erdian,
Goiko Yaunaren eskar-argia
agertzen dakuszunean.
Zabal gogoa, zabal biotza,
argi bero au artzeko;
yagon barruan otz-aldietan
Yaun-maitasuna zaintzeko.

Ta atsekabezko gau baltz, itunan
biotz beroa badozu,
eta iñontziar gogorrenak be,
ez otzitzea naibozu;
goiz gustietan Yaun maitearen
eskar-beroa zeugandu,
Yaunartze bidez Yosu-Gorputza
biotz barruan laztandu.

# IKUSI TA IKASI

Kistar zintzua; ikusten dozu
udabarriko goizetan,
margo ederdun lora usaintsua
biribil aran ertzetan,
eguzkiaren izpi samurrak
ikusiaz beste barik,
bere orritxu bigun-legunak
ipinten zabal-zabalik?

Eta arratzian, ez dozu ikusi
loratxu bigun samurra,
biribilduaz eguzkiari
bialtzen eskar-agurra:
beruak iges egin eztayon
orri guriak estutzen,
ta goitik jausten dan iñontz otza
bildurga bere gain artzen?

Bardin eikezu, kistar maitia
zeure goguan erdian,
Goiko-Jauna'ren eskar-argia
agertzen dakuszunian.
Zabal gogua, zabal biotza
argi bero au artzeko:
jagon barruan otz-aldietan
Jaun-maitasuna zaintzeko.

Ta atsekabezko gau baltz-itunan
biotz berua ba'dozu,
eta iñontziar gogorrenaz be,
ez otzitzia nai bozu,
goiz gustietan Jaun maitiaren
eskar-berua zeugandu:
Jaunartza bidez Josu-Gorputza
biotz barruan laztandu.

GABIREL.

---

Margo = *color*. Aran = *valle*. Iñontziař = *escarcha*.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
124'g. zenbakija

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1919

Zońnotza, Bagila 15'gn.

## Goteun-Etorkunde osteko irugarren igandeko Goizparra (Ebanjelioa)

ALDI ATAN: Josu'ri urreratzen yakozan zergalari (publikanu) ta obendiak Berari entzuteko: Ta parixetarrak eta idazkariak aomiztatu edo gaizki-esaten eben esanaz: Onek ba, obendiak artzen ditu eta eurakaz jaten dau: Eta (Josu'k) ipuin au esan eutsen, esanaz: ¿Zuetariko zein gizonek, eun ardi daukazala, bat galduko ba'leu, ez ete leukez larogetaemeretziak lekaruan itxiko, eta galdu zanaren billa, aurkitu arte ez ete litzake juango? Eta aurkitu ezkero, sorbalda gañian pozarren ipiñiko dau, ta etxera etorrita aizkidiak eta auzokuak deituko ditu esaten dautsela: Niri poz-agurra esaistazue, neure ardi galdua aurkitu dot--eta? Nik ba, diñotzuet: aulantxe pozorra donokian (zeruan) izango da obendi bat damutu dalako, garbaitu biarrik ez daben larogetaemeretzi doniak dirala-ta baño. Ta zein emakumek, amar drakma daukazala, bat galduko ba'leu, ez ete dau argia ixiotuko, ta etxia isastuko, eta idoro arte arduraz billatuko? Ta idoro ezkero, auzokuak eta aizkidiak deituko ditu esaten: Niri poz-agurra esaistazue, galdu neban drakma aurkitu idoro dot eta? Nik ba, diñotzuet: Onantxe poza Jainkua'ren gotzonak (aingeruak) izango dabe, obendi bat garbai dalako. (LUK. XV. I-10).

* * *

Kistar maite: Josu-Kisto gure Jauna, gure maitasunarren, gu obenetik, betiko zoritxarretik, gaizkatzeko, donokitik (zerutik) lurrera jatsi ta gizon egin zan. Berak ba, «gustiok gaizkatzia gura dau». (I TIM. I-4). Ta Bera gustialduna dalarik: Bere maitasun-errukia gustia al dabena da. Ta Jainko baten maitasunaren zabal-sakona: nok neurtu? Bere Biotz-barrengo maitasun-laba goria nok aztertu? Maitasun onek gu gaizkatzeko artzen dituzan bidiak nok sakondu? Josu-Kisto gizon eginda ludi onetan bizi izan zan artian, batez be bere bizitzako azken aldian, Bere Biotzeko maitasun gelgarriak gañezka eginda lez, bere itz eta egiñenak barrengo maitasunaren iturri bizi biurtu ebazan. Bere Biotz-samurtasunak igitzen eutsozan oñak; naigabez lurra jota, gorputz eriz saminduta, oben estuntzaz aulduta, eta itxaropena galduta, aurkitzen ziranen billa, artzain ona ardi galduaren billa joan oi dan lez, obendien (pekatarian) billa juateko. Eta orduan lez oin be, zoritxarpian dagonaz errukituten da, bere irudira Berak egiña dalako maite dau: eta ezjakiñez, girñaz naiz gaiztakeriz Bera'gandik igesi ba'dua, samurkiro deyez jarraitzen dautso, maitasunez Beragantzen daunian sorburuan artuta pozez beterik artaldera eruan oi dau... ¡Maitasun gelgarri ta samurra! ¡Ori egiten dabena ez da ez gizon utsa! ¡Maitasun au naiko litzake Josu-Kisto'n Biotza Jainkua'ren biotza dala ezagutzeko! Eta alan da be, biotz txatxar eta gogordun parixetar

arruak, Josu-Kisto obendiakaz bigun eta errukiorregia zala-ta mormoxetan iñardu-ten eben. Eta bakarrik ba'lira! Zori txa-rrez kistarren artian be, uste dan baño ge-yago aurkitu leiz, gai onetzaz mormoxe-tan parixetarrai ezer zor eztautsienak. Olakorik baña elitzake gertatuko kistar gustiak Josu'ren itz oneik ondo ausnar-tuko ba'lebez: «Errukiorrak izan zaiteze, zuen Aita errukiorra dan lez: Ezeikezue iñor etsi (juzgau) ta zuek be etzare etsi-ko: ezeikezue iñor gaiztetsi, ta zuek be etzare gaiztetsiko». (Luk. VI. VI-36).

Kistar maite: bein baño sarriagotan gu-re obenaz artzain maitiau iraundu dogu, ez baña adorekatu, ez biotza lur jo: gar-baitu gaitezan, ta Josu gure artzain ona-ren dei samurra entzunda poztu gaitezan, parixetarra lez biotz gogorrekua ezta-lako, biotz bigun-samurduna baño.

GABIREL.

## AINTZA YAUNARI – J.Z. – 1919-124-098

Guren Altsua Bakar zara Zu ene Yainkoa,
ludiak Zure anditasuna dau goraltzen,
zeruak dira Zure Aintzaren Bakaulkia ta
oron Bakaldun ta Yauna legez zara agertzen.

Gauza gustiak ezerezetik atera eta
«Izan zaiteze» itz-indarragaz dozuz egin,
gaudian oro banandu dira pozez beterik,
Zeu beti-beti aintzalduteko agintzakin.

Oztots durunda Zeu aintzaltzeko zabaltzen dala
Zeure Zuzentza bildurgarriro agertzen dau,
ta eguzkian ene biotzak Zeu-maitasuna,
samurtasuna baita loretan ikusten dau.

Axe ekaixkorran erdi-erdian zabiltzanean,
tximist zolia daroyazula eskuetan,
baita zakustaz almen neurgea zabaltzen aintzaz
itxaso zabal, mendi, muru eta ibarretan.

Zeure Aintzari iragitako yauretxean lez,
izaki orok goraltzen zaula pozez dakust;
Neuk be eurakaz, «Aintza Zuretzat» abestu nai dot,
Bizi gustian Yauna goraldu gura zaitut.

# ¡Aintza Jauna'ri!

Goren altsua bakar zara Zu ene Jainkua
ludiak Zure anditasuna dau goraltzen,
zeruak dira Zure Aintzaren bakaulkia ta
oron Bakaldun ta Jauna legez zara agertzen.

Gauza gustiak ezerezetik atara eta
«Izan zaiteze» itz - indarragaz dozuz egin;
gaudian oro banandu dira pozez beterik
Zeu beti-beti aintzalduteko agintzakin.

Ostotz durunda Zu aintzatzeko zabaltzen dala
Zure Zuzentza bildurgarriro agertzen dau
ta eguzkian ene biotzak Zeu-maitasuna
eta loretan samurtasuna ikusten dau.

Axe ekaizkorren erdi-erdian zabiltzanian
tximist zolia daroyazula eskuetan
baita zakustaz Almen neurgia zabaltzen aintzaz
itxaso-zabal mendi muru eta ibarretan.

Zeure aintzari eregitako jauretxian lez,
izaki orok goraltzen zaula pozez dakust;
neuk be eurakaz Aintza Zuretzat abestu nai dot;
bizi gustian, Jauna, goraldu gura zaitut.

GABIREL.

Amabosteroko
— inguṙtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
125'g. zenbakija

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1919

Zoṙnotza, Gariḻa 1'gn.

## Goteun-Etorkunde osteko boskarren igandeko Goizparra (Ebanjelioa)

«Aldi atan: Josu'k bere ikasliai esan eutsen: Zuen onegitiak idazkari ta parixetarrenak baño geyago ez badira, etzare Goiko bakalderrian sartuko. Entzun dozue asabeai esan eutsela: ez dozue erailgo; eta erailgo leukena epai-errudun izango da. Ta anayari *"raka"* esango dautsona Batzar-errudun izango da. Ta «ero ori» esango dautsona geenako su erruduna izango da. Zeuk zeure opea oparrira badaroyazu ta bertan zure anayak zerbait zure-aitzin (kontra) daukala oroituko bazintza, bertan oparrian zeure opea itxita, lenengo anayagaz aizkidetzeko zuaz, eta orduan atzera etorrita zure opea eskiñiko dozu». (MATTH. V - 20 - 24).

* * *

Kistar maite: Jauna'k bakarrik geure biotz barrenak aztertu leikezelako. Berak bakarrik geure gogo ta biotza lotzeko legiak emon leikez. Gizonen legiak egiñetan baño eztau agintzen, azaleko ontasuna baño ezin leike eskatu, geure oldozkun eta gurariatzaz eskubiderik eztauka, ezagutu be ezin leikezalako. Jauna'k baña geure Jaube ta Jaun bakarra dalarik geure biotzak berak bakarrik aztertu ta etsi leikezalako, azaleko ontasuna ez eze biotz barrengo ontasuna be eskatu leiskigu ta eskatzen dausku. Eta batez be auxe da eskatzen dauskuna. Azaleko ontasunak bakarrik biotzeko zuzentasun eta ontasunak barik iguindu baño eztau egiten. Augaitik parixetar eta idazkariak gogoz loiloyak ziralako azaleko ontasunaz baño arduratzen etziralako, Josu-Kisto'ri begiko etxakozan egiten, Berberak beste askotan lez, gaurko goizparkian dirauskunez. «Zuen on-egitiak — diñotse ikasliai — idazkari ta parixetarrak baño geyago ez badira, zeruko bakalderrian etzare sartuko. Eta adibidez boskarren agindua argi ta garbi azaldu eutsen. Agindu au betetako iñor ez erailtzia ezta naikua (parixetarrak uste eben lez) biotzez il gura izatiaz, barruko gorrotuaz, eta itz ezezkorrak esanaz bakarrik be oben astuna egiten da agindu onen kaltez. Gure geide, lagun urkua, geure burua lez maitatu biar dogu. Geuretzat nai eztoguna besteri eztautsagu opa izan biar, naizta geure etsaya izan. Josu Berberak diño: «Maitatu eikezuz zeuen etsayak, on egiozue gorrotatzen zaituenai, otoi eikezue iraindu ta jasarpetuten zaituenatzaz, zeuen Goiko Aita'ren semiak izateko, Berak ba, eguzkia oñ eta txarrentzat ataratzen dau ta euria on eta obendien gañera bialtzen dau. Zeuok maitatzen zaituenak bakarrik maite ba'dozuez ba: ¿zer sari irabaziko dozue? ¿Zergalariak be auxe ez ete dabe egiten? Zeuen anayak bakarrik agurtzen ba'dozuez, zer geyago egiten ete dozue? Gentillak (ziñestebakuak) be au ez ete dabe egiten?» (MAT. V-47).

Ikaskizun goitarrok damoskuzanen jarraitzalle zintzotzat ezten gara kistarrok·

Maitasun utsa dan Jauna'k geide oro maitatzeko agintzen dausku, naiz aizkide, naiz etsaya izan. Benetako kistarren biotz barruan gorrotuak tokirik egin ete leike? Gorrotoz geidiai parkatu gura eztautsonak, zelan bere biotza zuzendu lei Jainkua'gana «parkatu guri geure zorrak geuk gure zordunai parkatzen dautsegun lez» esateko? Geidiai egindako iraña parkatu gura eztautsona, gurutzan iltzer eguala, bere eraillien aldez «Aita parkatu egiyezue zer egiten daben eztakie-ta» esan ebanen jarraitzalle zintzua zelan izango ete da? Ondiño zeuri egindako irañak baltzegiak dirala parkatzeko diñozu? Zeuk Jainkua'ri egindako eta parkatzeko eskatzen dautzazuzan irañen gerizara be eltzen ete dira? Jaurti biotz orretatik gorrotorik txikienok be, maitasunaren aberrira (donokira) gorrotodun biotzik iñoz ezta sartuko - ta.

GABIREL.

# GENTZEARI (Bakiari)

Odei artian agertu zaran
usotxu zuri eder biguna,
agur dagitzut, agur biotzez
agur gaur zuri, «GENTZA ZORUNA».

—

Ludi ontatik iges eginda
bost urte dira zeu - aberrian
egon zarala tokirik ez da
biotz gogordun gizon artian.

—

Zeugaz zoruna eruan zendun
ta gizadia tamal - tamalez,
noiz agertuko goiruntz begira
egonda zotin eta negarrez.

—

Azkenez Jauna'k errukiturik
bialdu zaitu ludi ontara:
ta ortze goyan zeu agertziaz
gustiok pozez asetu gara.

—

¡Ondo etorri! gizadi orok
birloratuta pozarren diño,
zuzen zale dan biotz zintzuak
naiz gorrotodun izan ondiño.

—

Zuzen ez danak, biotz gogorrak
alperrik baña dau eskatuko,
¡gentza bai gentza! didar ein arren
eztau gentzarik iñoz lortuko.

—

Egizko gentza ba Jaungoikuak
alkartu eban maitetasunaz,
Bera geidiaz maite dauna ba
asetuko dau Goiko - zorunaz.

—

¡Agur biotzez uso zuria!
geugan eikezu laster abia,
maitasunagaz zeu alkartuta
gozotu daizun gure bizia!

GABIREL.

Bagilla 26.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
126'g. zenbakija

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1919

Zoŕnotza, Garila 15'gn.

## Goteun - Etorkunde osteko saspigarren igandeko Goizparra (Ebanjelioa)

ALDI ATAN: Josu'k bere ikasliai esan eutsen: Arduraz iragarle guzurrezkuakaz: zuekana ardi-narru jantziaz datoz; baña barruz otso amurratuak dira: euren egiñetan ezagutuko dozuez. ¿Arantzetatik ba, matz-morduak artzen ete dituez, ala larretatik ikuak? Olantxe zugatz onak igali onak dagiz: baña zugatz txarrak igali txarrak egiten dauz. Zugatz onak ezin leike igali txarrik egin: ezta zugatz txarrak igali onik be... Eta igali onik ez dagian zugatz oro, ebagiko da ta sutara jaurtiko da. Oin ba, euren egiñetaz ezagutuko dozuez. Ez da zeruko ala barru sartuko «Jaunoi, Jaunoi» diñon gustia; baña nire Aita goyan daguanaren naya egiten dabena axe bai, donoki barru sartuko da. (MATHH, VII. 15-21).

* * *

Kistar maite: Ludian diran gizon oro, alderdi bitan bananduta dagoz. Josu-Kisto gure Jaun maitekorraren alderdia ta Luziper gizonen etsai amurrutuarena Josu-Kistok Egia irakatsi, Bidia geuri zabaldu ta Bizitza ta zoruna damosku. Luziper'ek ostera, guzurraz geure adimenak illundu, bide zuzenetik bidekatu, ta betiko eriotza ta zoritxarreko leizan amilpetu gura gaitu. Eta egia zabaltzeko Josu-Kisto'k bere ordezko irakasle ta laguntzalliak ipiñi dituan lez, guzurraren aita dan Luziperrek be, guzur-irakasle lagunak ugari bai ugari ditu. Baña euron artian alde aundia dago. Egi ta zuzentasunak argiaren bildur eztiralako, ta egia ta zuzentasunaren etsairik bildurgarrienak illuntasun ta naspilla diralako, egi zabaltzalliak argi ta garbi jokatzen dabe; euren asmu zintzuak guzur azalez estaltzerik etxake otuten. Barriz, guzur eta gaiztakeri-zabaltzalliak, adimena guzurraren bizilekutza, ta biotza gaiztakerientzat, egiñak ez dirala ezagutzen dabelako, sarritan gaiztakeria ontasun jantziaz, ta guzurra egi jantziaz apainduta, gizonai aurrian ipintzen dautse. Txindi guzurrezkuak zabaldu gura dituanak egiten dabena egiten dabe. Txindi onaren irudi berberaz guzurrezkua jantzi. ¡Amaika onako bai'dakusgu geure inguruan! (Ardi narruz jantzita barrutik otso amurratuak diran, amaikatxo izparringi, aldizkingi (errevista); idazti ta... gizon, neke aundi barik aurkitu geinkez etxe barruan, Baña ez estutu. Buruauste andi barik nor zer dan ezagutzeko, bere biziko ikur (señale) ezaupidia damosku Josu'k gaurko goizparkian. «Euren egiñetatik ezautuko dozuez» diñosku. Zugatz onak igali onak dagizan lez, eta zugatz txarrak igali txarrak, izparringi, idazti naiz irakaskintzak ezautzeko begira egiten dituan igaliai. Zugatz onak igali txarrik eztau egiten, ta zugatz txarrak igali onik bez. Ezaupide argi ta eskierra (ziurra) gizonak ezautzeko be. Donokian sartzeko

ba, ezta naikua «Jauna, Jauna» esatia, egiñen (obraz) biarrak dira, eta aintzat eztauz artuko gure Jaunak, bere agindu-en arauz: bere aizkidetasunian: eta asmu zuzenez egiten eztiranak. «Jauna, Jauna» esan arren ba, bere naya egiten eztauna ezta donokian (zeruan) sartuko.

Jainkua'ren itzak dira. Ez aztu, kistar maite.

GABIREL.

# Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 20'gn. 27'gn:

Jai osuak: 25'gn. Deun-Jagoba, Belduba;

31'gn. Deun-Eneko Loyolatařa, autořlia, iraslia, Bizkaya ta Gipuzkua-Zaintzal̄ia, eřki bijotan jai osua.

*Astion gure goteřkijon beste jai osorik ezta.*

Igande ta jai osuetan kistař orok jaupa osua entzun-biař dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 16'gn. Karmel'go Ama-Neskutza.

*Il̄a autako 15'kařen egubeřditik 16'gařeneko gabeřdirařte, edozein kistařek, edonun autořtu ta jaunařkuna eginda, Karmeldařen jauretxian, naiz Karmeldař Anaidija irasil̄a dan jauretxietan ikeřkun bakotxeko* **Nekazka Osua** *irabazi dagike. Ikeřkunan zerbait agoz otoi-egin-biař da, iru gure Al̄a Goikua naikua ixanik.*

17'gn. Deun-Ales, autořlia. Deun Ane, Miren Deunaren amari bederatziuřeuna asteko egun egokija.

19'gn. Paul'eko Deun-Bingen, autořlia, iraslia, txirotzaz eřukiořa.

20'gn. Deun-Joseba Miren-Deunaren Ezkona Jayokundia.

*Deun-Joseba, eřudun sořtu ařen, eřuge jayo zan, beraz, bere Jayokundia ospatu dagikegu ta gauř ospatzen dogu.* ¿Bera goresteko zer dagikezu?

22'gn. Loyola'tař Eneko Deunari bederatzi uřeuna asteko egun egokija. Berau iñarduteko idaztiño politarikua salgei dogu. Erosi egikezu.

26'gn. Deun - Ane, Miren - Deunaren Ama, Josu-Kisto'ren Amama, jai erditzat zaintzen doguna.

## EGIA – J.Z. 1919-126-114

Euzkiaren argia disdiratzen dan legez
antzikurran antzera eder illargian
Yaunaren arpegiko argi zoragarriak
dis-dis bizia dagi geu-adimenean.

Argi onek damotso zoruna gizonari,
biotza eraldurik zintzo zuzenzale,
adore neurgabea damotso argi onek
gudan ez azpertzeko zuzenaren alde.

Girñakaz alkarturik badator guzur baltza
guda gogor egiten eraill arteraño,
etsai amorratuok menperatzen dituz ta
azke ta biziago dager iñoz baño.

Ludian ezta sortu egia menpetzea
unetxo baten bere lortu leikeanik,
eguzkiaren izpi, argi bero, zolia,
lotzeko eztagon lez gai dan estuntzarik.

Yaun bat bakarra dazau; bere Aita Goikoa,
Beragandik sortu dan izpia dalarik,
azke, argi ta garbi dan lez agertuteko
edonon ta edonoz eztauka bildurrik.

Adimenean baña, girña eta guzurraz
odei eztalki baltza aurkitu ezkero,
abia egiten dau etsairik gogorrenok
izpi bero biziaz urrinduta gero.

Gogo zintzoarentzat, bere onurak dira.
begi gexodunentzat ezta on argia,
ara or goiko emaitz on eta ederren au
zergaitik dan askontzat gorrotogarria.

Biotz andidun izan ta gertu adimena,
zeuregandu dagizun egiaz zoruna,
eta, estuntzapean biziten bazara be,
azke biziko zara. Zeugaz dago Yauna.

# EGIA

Eguzkian argia, disdiratzen dan legez,
antzikurran antzera eder illargian:
Jauna'ren arpegiko argi zoragarriak
dis-dis bizia dagi geu adimenian.

Argi onek damotso zoruna gizonari,
biotza eraldurik zintzo-zuzen-zale;
argi onek damotso, adore neurgabia
gudan ez aspertzeko zuzenaren alde.

Girñakaz guzur baltza bai-dator alkartuta
guda gogor egiten erail arteraño,
etsai amurratuok menperatzen dituz-ta
azke ta biziago dirau oraindiño.

Ezta sortu ludian egia menpetzia
unetxu baten bere lortu leikianik,
eguzkiaren izpi argi, bero, zolia,
lotzeko eztagon lez gai dan estuntzarik.

Jaun bat bakarrik dazau, bere Aita Goikua
Beragandik sortu dan izpia dalarik,
azke, argi ta garbi dan lez agertuteko
edozeinen aurrian eztaula bildurrik,

Adimenian baña girna eta guzurraz
odei baltza estalki aurkitu ezkero;
abia egiten dau, etsairik gogorrenok
izpi bero biziak urrindu ta gero.

Gogo zintzuarentzat dira bere onurak
begi gexodunentzat ezta on argia,
ara or goiko emaitz, on eta ederrenau
zergaitik dan askontzat gorrotogarria.

Biotz zintzodun izan, ta gertu adimena,
zeuregandu dagizun egiaz zoruna;
eta eztuntzapian, bizitzen ba'zara be
azke biziko zara. Zeugaz dago Jauna.

GABIREL.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
127'g. zenbakija

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1919 Zońnotza, Dagonila 1'g.

## Goteun - Etorkunde osteko bederatzigarren igandeko Goizparra (Ebanjelioa)

ALDI ATAN: Josu Jesularen'era urreratuki, uria ikusita, berau zala-ta negar egin eban esanaz: Zuk ba, ezagutuko ba'zendu: eta beintzat egun onetan, zeure gentzarako (pakerako) dana orain baña zeure begietatik eskutatuta dagona! Egunak etorriko yatzuz: eta zeure areriuak esiz inguratuko zaitue ta moltsotu ta alde gustietatik estutuko zaitue ta zu, ta zugan diran zeure semiok, lurrera eratziko zaitue: ta zugan arririk arri ganian ez dabe itxiko, zure ikerkunde eguna-ezagutu ez dozulako. Eta elexa - barru sartuta, bertan salerosten ebenak egozten (jaurtiten) asi zan eurai esanik: idatzita dago: Nire etxia otoi etxia da: baña zuek lapur-zulo egin dozue ta egunoro elexan irakasten eban». (LUK. XIX; 41-47).

* * *

Kistar maite: Biotz samur eta ongilliaren poza ta zoruna, on egitia, ta bere biotz barrengo zoruna bestien biotzetan zabaltzia da. Eta bere ontasunari eskartxarragaz erantzutia samingarri izaten yakon arren; bere on egin guria txartzat artziak askoz geyago samintzen dau. Auxe da Josu-Kisto ontasun berberari Jerusalen uriagaz gertatu yakona. Uri au Josuk errukiz ikertu (bisitau) eban, eta ikerkunde (bisita) egun au ez eban ezagutu. Josu-Kisto Jainko-Semia gizon eginda, goiko argia Bere itz eta egiñenakaz zabaltzen ebala-agertu yakon, eta uri onek argia gorrotau eban; Berak gentza ta zoruna esku zabalez eskiñi eutsozan, eta Jerusalen'ek itxututa ez eban ezagutu. Argia ta erruki maitasun utsa zanari itxukeri ta gogorkeri zitalenagaz erantzun eutson. Eta Josu'k uri onek bere gaiztakeriz irabazi eban zigorrezko ikerkundia iragarten dautso, eta uri oneri gertatuko yakona gogoratuta beste barik negar dagi. Ta biotza tamalez beterik diñotso: Zeuk ezagutuko ba'zendu egun onetan beintzat zeure gentzarako dana, orain baña zeure begietatik eskutauta dagona! Eta ondoren bere zoritxarren barri aurreztik damotso, arririk arri gañian etzala geratuko iragarriaz. ¿Zergaitik baña ain zigor gogorra? Bera Jainkuak bialdutzat ezagutu ezebalako, bere deyari belarriak itxi eutsozalako. Zoruna Berbera zana jaurti eban; zoritxarra ba beraganduko eban. Ogetamasaspi urte geruago, Titus erromatarren jaun nagusia gudarozte aundiagaz Jerusalem'era eldu zan, eta uri aundi, sendo ta ederra saspi illabetian esituta euki ondoren, beztū, sakabanatu, sutau, erre ta birrindu eban. Jauna'ren zigorra eldu yakon. Arririk arri gañian etzan gelditu.

Kistar maite: Jerusalen gogo obendiaren irudia da. Obendiak adimena illun ta biotza gogor ba-dituz, Josu'k errukiz ikertzen dau, maitekiro argia ta zoruna eskintzen dautsoz, kezka bidez, onu ta itzaldi onen bidez, da atsekabien bat bialduta

deitzen dautso. Alan da be, biotz gogorraz erantzuten ba'dautso, Josu'k negar dagi, obendiak bere gaiztakeriz beragantzen dituan zoritxarrak ezagututen ditualako. Biotz samur onen dei maitekorra entzun daizunian ba, ez gogortu zeure biotza, eta, Josu'k elexatik lez, jaurti zeure biotz orretatik giřña gaizto ta oben gustiak, eta jarraitu Josu-Kisto Jaun bakar ta biotzperari.

GABIREL.

# Doibatz - Egutegija

IGANDIAK: 3'gn: 10'gn: Deun - Laurentzi, jaupaltzeña, ziñopea

*Amabostaruan, gure Goteřkijon jai osorik ezta.*

Igandietan kistař orok jaupa osua eutzun-biař dogu ta otsein-lanik ez dagikegu,

EGUN IXENDABAK: 1'gn: Il̄eko lenengo barikuba.

*Il̄eko lenengo bederatzi bariku jarat̄ubetan, biar dan eraz, Jaunařkuna ba'dagixu Josu - Kisto'k esan eban-donokija zeuria dozu.*

2'gn. *Porziunkula*-nekazka irabazteko eguna. Atzoko egubeřditik gauřko gabeřdirařte, pantzeskatařen jauretxian, bat̄a edozein eřtxadonetan be, autořtu ta jaunařkuna egiñaz, ikeřkun bakotxeko *Nekazka Osua* irabazi dagikezu. Ikeřkun bakotxan agoz otoi-egin biař da; iru bidař Gure At̄a goikua... naikua da.

5'gn. Eduřetako Ama Neskutza.

6'gn. Josu-Irudibijakundia.

12'gn: Deun-Kalare, neskutza, iraslia.

14'gn. Buldadun diranentzat be, aratuzte-aragija izteko-ta barau-eguna.

Bijař, Ama-Neskutza-Jasokundia. Jai osua, Egun autarako, albait-onduen, kistař eraz baña, gertau zadi.

Ama-Neskutzak bere babespian kistař batzuk berariz zaintzen euzala bein deun batek, ikuskantzez ikusi eban. Zegat̄ija it̄aundirik, Ama Neskutzak berberak erantzun eutson; - Nire Jasokunde-jayarako, bederatziuřeun - bidez, ondo gertau diralako-.

**............?Txoritxo politak  J.Z. 1919-127-121**
ugari dakustaz
kayola barruan espetxetuta.
Gaiztakerien bat egin ete dabe?
Zuzendasunarren dagoz lotuta?

Ez; baña otzanak izan diralako,
gizonen eskura etorri dira,
ta, gizon ankerrak, on izatearren
beste barik sartu dauz espetxera.

Arrano gaiztoak lapur erailleak
egazka goyetan barriz dakustaz;
gaiztakeri baltzez bizitza eunduta,
Zer dala-ta azkerik oro dabiltzaz?

Erpe zorrotzak dauz burua zaintzeko,
eztautso gizonak esku-ezartzen,
gaiztoak badaki ba, sarri askotan
gizonen eskua erpez urratzen.

Augaitik otzana sarri dakuskezu
gizonen artean zigorpetuta,
eta gaizkin baltza erpak agirian
gizon zuzena lez aintzat artuta.

«Txoritxo gaxoa estuntzapean ta,
arrano gaiztoa azke axetan,
begiak zabalik daukozanak sarri
ikusiko dituz ludi onetan».

esaliari iñok ziñestu ez dautsonian; *au)* ospedunak azketsi (parkatu) ezkero, edo gaitz-esaliagaitik ardura ez dautsola, aintzat artu ez daula eskier yakin ezkero.

Ta ospausiyak ospe yabe osoro ba-dira. Ba-dagoz ba batzuk, gizabatzarrian euren egikizuna zintso betetzeko nai-ta-ez ospe ona biar dabenak — yaupari, aldun, osagille — beraz ospausliari, gura ta be, ezin azketsi leikiyonak, ospe ona ordaintzeke.

**Gurutz.**

## ¿.....?

Txoritxu politak
ugari dakustaz,
kayola barruan
espetxetuta.
Gaiztakerien bat
egin ete dabe?
zuzendasun arren
dagoz lotuta?

Ez; baña otzanak
izan diralako
gizonen eskura
etorri dira.
Ta gizon ankerrak
on izatiarren,
beste barik sartu
dauz espetxera.

Arrano gaiztuak,
lapur erailliak,
egazka goyetan
barriz dakustaz.
Gaiztakeri baltzez
bizitza eunduta
¿zer dala, eta, azke
oro dabiltzaz?

Erpe zorrotzak dauz
burua zaintzeko,
eztautso gizonak
esku-ezarten,
gaiztuak ba'daki
ba, sarri-askotan
gizonen eskua
erpez urratzen.

Augaitik otzana
sarri dakuskezu,
gizonen artian
zigorpetuta;
eta gaizkin baltza
erpak agirian
gizon zuzena lez
aintzat artuta.

*Txoritxu ona ba,*
*estuntzapian ta*
*arrano gaizkiña*
*azke axetan;*
*begiak zabalik*
*daukozanak sarri*
*ikusiko dituz*
*ludi onetan.*

GABIREL.

# USKUŔTZIZTI TA USKUŔTZ-EDESTI'TZAZ

I ATALA

## USKUŔTZIZTIJA

### AUŔETIKO

Gixadi - edestijan geure begi auŕian agertzen yakigun eguzkija baño argitsubago egi auxe dikusgu (ikusten dogu): gixonak beti guŕtu daula Jaungoiko edo Uŕtzi, Uskuŕtzge ezin dala bixi edo oŕtik esan daruen lez gixona ixatez *"abere uskuŕtzalia"* dala.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia 128'g. zenbakija

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1919 Zoŕnotza, Dagonila 15'gn.

## Goteun - Etorkunde osteko amaikagarren igandeko Goizparra (Ebanjelioa)

ALDI ATAN: Josu Tiro'ko mugetatik urtenda, Sidon - erriz Galilea'ko itsasora eldu zan Amar-Urien mugartietatik ziar. Eta ekarri eutsen gorra ta itz-bakua (mutua) eta eskuak ipinteko arren eskatzen eutsoen. Eta gizozte artetik bakarrera aldenduta, atzamarrak aren belarrietan sartu zituan: eta txu-eginik, aren miña ikutu eban, eta goira begiratuta oyuska (sispuru) egin eban, eta esan eutson: EPHPHETA, au da: idegi zaiteze. Eta berialaxe aren belarriak idegi ziran, eta bere miñan lokarria azkatu zan, eta ondo itz-egiten eban. Eta iñori ez esateko agindu eutsen. Baña aek eurai aginduago ta ainbat geyago zabaltzen eben, eta ainbat geyago gelduten (arrituten) ziran, esaten ebela. Gustia ondo egin dau: gorrai adierazo dautse, ta itz-bakuai, itz-eragin dautse. (MAK. VIII - 31 - 37).

* * *

Kistar maite: Goizparki aunetan, aitatzen dan mirariak, Josu-Kisto'n Jainkotasuna argiro adirazten dausku. Baña kistar gustiontzat, egoki - egoki datorren beste gauza bat ikusi geinke. Josu'k osatu eban gorra ta itz-bakua, arima-gauzetan gorrak eta itz-bakuak (mutuak) dirianen irudia da. Ta arimako gorreriau kistar artian uste dan baño zabalago dabillen gauza da. Geure ingurura begiratutia baño eztaukagu. Ikusiko ditugu batzuk, jolas, atsegin txar, andikeri, aberastasun, eta arrokeriaren deya entzuteko belarriak zur daukiezala: eta on-oimen, birtute, norbere burua ezi, lastasun eta atsekabietatik sortzen diran dei zoragarriak entzuteko ostera gorrak dirala. ¡Eta alan da gusti be, Josu'n jarraitzalletzat dagoz! ¡Errukarriak! Beste batzuk gorreri kaltegarriagua dauke. Entzun gura eztabenen gorreria. Oneik zuzen ibilterik eztabe gura, ta, jakiña; bide zuzenik ikasi gura be ez. Eurak diñoena: «ez egitekotan zertako ikasi». Ta, euraen gurari txarrez illunpian bizi dira-ta norbaitek bide zuzena irakatsi gura ba'dautse, begi gexodunak lez argitik iges egiten dabe. Auxe dala-ta, itzaldi (sermoyetan) nekez ikusiko doguz. Mesa entzun biar badabe, itzaldi bakua izango da, ta itzaldiduna ba'da, itzaldi bitartian eleiz - atarian barriketan ikusiko doguz. Onelakuari, Irakurte idazti (liburu) izparringi (periodiku) onetzaz ta abar, itz-egiten ba'dautsozu... ¡Phs! *beatoen* gauzak dirala! erantzungo dautzue. Jainko guzurrezkuak lez, belarriak euki ta eztake entzuten. (Ps. CXIII - 6).

Azkenez bai'dira beste batzuk aldiz-aldizko gorreridunak. Eurai atsegin yakena pozik entzuten dabe: *erlejiñoko* gauza batzuei ondo deritxoe: baña girñak zuzentzeko, lastasun bidez burua kendu ta begiko yakezan irakurgai ta jolas txarretatik aldendu biar dala ta abar entzun ezkero: orrenbeste be, larregi dala: orrek... *exagerasiñuak* dirala erantzungo dautzue. Ta

amaika ba'dira «entzun eta gor» egite au arautzat daukienak!

Eta gorreria daukana itz-bakua izaten dan lez, gogoko gauzetan gorra dana itz-bakua be izaten da. Bere aurrian ziñeste edo erlijiñoen kaltez ba'diardue, ezer erantzuteko adore ta itzik be eztauko. Jainkua'ri bere eskarrakaitik biotz ona agertzeko itz-giak (mutuak) dira. Otoi egiteko be, itz bakuak, Elexa'ra ba'doyaz an ikusiko dozuz sartu orduko gogaituta, ta arrausika, ta buru txuntxurreraño gaiztakerian sartuta diranak izan arren, urtian bein ostaz-ostaz autortuko yatzuz, eta orduan be ez errudun edo pekataritzat euren burua dabelako, axe... gauza askori begiratu biar yakola-ta... autortu. Danak malla onetaraño eztira elduko, baña gitxi-asko, gorreriaren neurrian *mutu*-eri au be izaten da.

Ene irakurle maitia: Eztot uste, ta gitxiagorik be, zu onein artekua izango zaranik, baña begien aurrian ipiñi gura izan dautzudaz, Josu lez gor - itzge oneikaz errukitu ta euroen aldez otoi egin daizun. Ta bitartian ez aztu zeu Josu-Kisto'n itzokaz: *Zoruntsuak Jainkua'ren itza entzun ta betetan dabenak*». (MATH, XI-28).

GABIREL.

## NEURE GELAKO TXORITXOARI
## J.Z. 1919-128-131

Txori polit bat kayola barru
daukat gelaren erdian,
txorro-txioka ixildu barik
abesten egun gustian.

Abes itunik ez dantzut iñoz
beti alaiki diardu,
auxe dala-ta sarri-sarri dot
neure artean gogaldu:

«Txoritxu orrek espetxetxoan
Askatasuna galduta,
Zelan poz-pozik abestuten yok
Espetxeagaz aztuta?

«Izatez beti azke ibillteko
Yaunak egiña dalarik,
egazkada bat ezin eginda,
zelan abestu alairik?».

Onetan baña neure barruan
erantzun auxe dantzut nik:
«Kayolan dagon txori-abesak
auko gaxuoi geldurik?

«Ez ete dok ba, ikusten non nai
ekandu txarrez lotuta,
alai abesten gizon gaxoa
bere zorunaz aztuta?

«Goirantz egazka beti ibilteko
Yaunak egiña dan arren,
ez dok ikusten guzur-lokarri
ta obenpean pozarren?».

Itzok entzunik txoritxu orren
abesak ez nau arritzen,
Adimenduna dakustalako,
Berberorixe egiten.

# NEURE GELAKO TXORITXUARI

Txori polit bat
kayola - barru
daukat gelaren
erdian,
txorro - txioka
ixildu barik
abesten egun
gustian.
Abes itunik
ez dot entzuten
beti alaiki
diardu:
auxe dala - ta,
sarri - sarri dot
neure artian
gogaldu:

«Txoritxu orrek
espetxetxuan
azkatasuna
galduta,
zelan poz - pozik
abestuten dau
espetxiagaz
aztuta?»
«Izatez azke
beti ibilteko
Jauna'k egiña
dalarik:
egazkada bat
ezin eginda,
zelan abestu
alairik?»

Onetan baña
neure barruan
norbaiten itza
dantzuk nik:
«kayolan dagon
txori abesak
euka ¡gaxuoi!
geldurik?
Ez ete dok ba
ikusten nun nai
ekandu txarrez
lotuta,
alai abesten
gizon gaxua
bere zorunaz
aztuta?

Goiruntz egaka
beti ibilteko
bere gogua
dan arren
ez dok ikusten,
guzur lokarri
ta obenpian
pozarren?»

Itzok entzunik
txoritxu orren
abesak ez nau
arritzen,
adimenduna
dakustalako
ber - berorixe
egiten. - **Gabirel.**

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
129-130'g. zenb.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1919

Zoŕnotza, Irala-1'n. ta 15'gn.

## Goteun - Etorkunde - osteko amairugarren igandeko Goizparra (Ebanjelioa)

ALDI ATAN: Josu Jerusalem'era joyala Samari ta Galilea-erditik igaro zan. Eta baserri baten sartzen zala amar usteridun (lepra) urten yakozan urrindik gelditu ziranak. Eta abots zoliaz esaten eutsoen: Josu, Irakasleoi, gutzaz erruki zaite. Ikusi ebazanian esan eutsen: Zuaze, jaupariakana aurkeztu zaitekeze. Ta jazo zan, joyazan artian garbirik geratu zirala. Eurotatik bat garbitu zala ikusi ebanian atzera biurtu zan, oyuka Jainkua goraltzen, eta auzpez bere oñetan jausi zan eskerrak egiten, eta berau samaritarra zan. Eta Josu'k erantzun eta esan eutson: ¿Ez ete dira amar garbitu? eta bederatziak, nun dira? Ez da aurkitu etorri ta Jainkua goraldu leyanik au atzerritar au baño. Eta berari esan eutson: Jagi zaite; zuaz zeure ziñestiak gaizkatu zaitu-ta. (LUK. XVII-II-19).

* * *

Kistar maite: Gizon zuzenaren biotza geyen samintzen dabena esker-txarra da. Ongille orok daki au egi utsa dala. Baita be egia da, bizitz onetan esker - txarren aginkada garratzik txastatu (probau) eztaben biotza, biotz txatxar, zeken eta iñori onik egin eztautson biotza dala ¡ain da ugaria esker-txar iguingarriau! Gaitz onen sustarra gizonen berekoikeria (egoismua) da. Auxe dala-ta ain zoli ta arduratsua da berak biar dabena lortuteko ta nagi ta epela eskar-ona agertzeko. Ta zoritxarrez gaitz au ixurri baten antzera kistarren artian zabal-zabal dabil; ez bakarrik alkarregazko artu - emonetan baita be Jainkua' gazkuetan be. Zoritxar, atsekabe, ala gexo astun batek geure biotza zapaltzen dabenian, biotz naigabepetu ontatik urteten diran negar-malkoz geure begiak eskotuten (bustiten) dira, eta gaurko goizparkiko usteridun (lepradun) gaxuen antzera Jauna'gana geure begiak biurtzen ditugu esateko: Jaunoi, Jaunoi, gutzaz erruki zaite. Eta Jauna'k geure eskertxarren barri jakin arren errukiorregia dalako, gutzaz errukitu ta zoritxarra geugandik aldendu ezkero... eskerrak egin? ezta geyenez gogoratu be. Josu'k amar usteridun (lepradun) osatu zituan, ta amarretik bat bakarra, ta berau samaritarra, esker -ona agertzeko urreratu yakon. Eta Josu'k esan eutson: Osatuak amar ez ete dira? ¿Nun dira ba, beste bederatziak? Eta gure artian ete da iñoiz be bederatzi onein arteko izan eztanik? Eta gorputz-eriakaz bakarrik eskar - txarrekuak ba'giña! Ezeretik atara, goiko eskarrez apaindu, bere Odol ederrez berrerosi gaituan Jainko -ontasun utsak ¡amaika bidar gogo-usteritik (arimako lepratik), pekatutik atara gaitu: amaika galbidetik aldendu be bai. Ta zelan erantzun ete dautsogu? Biar bada barriro irainduaz: bere argitik iges eginda, bere dei samurrari entzun eta

gor-eginda, eskar txarrik baltzenagaz...

Jaurti ba, kistar maite, zeure biotzetik esker-txar-edena (benenua) geure etsai kalteginã da-ta. Beronek geure irabaziak ezerezten ditu, on-egiñak galdu eragin eta onoimen (birtutiak) galerazo. Gorrotau esker-txarra, «Jaun-zaletasun iturria, erruki iñontza ta eskar-errekatxuak leortzen dituan axe errea da-ta». (BERNARDA DEUNA).

GABIREL.

## ANDONITXO TA MITXELETEA J.Z. 1919-129-130-138

Andonitxo mutiko otzan eta argia,
esanak egiteko men eta zolia,
bein loratxoak zaintzen ebillen amari
ura ekarten eutson eiteko loran.

Eskuan urontziaz begira egoan
ta, loratik urtenda euron inguruan,
mitxeleta bat dakus zuri ta ederra,
egazka ebillela batetik bestera.

Mitxeleta polita zana ben-benetan
Andonik artu nairik beren eskuetan,
asi zan bere yarrai beso edatuaz,
ikutzea lorturik nozipein eskuaz.

Baña mitxeleteak egaz zoli-zoli
ixeka eiten eutson gure Andoniri,
ta batera-bestera luzaro ibillita
Andoni gelditu zan gustiz nekatuta.

Mitxeletea baita atsedendu nayaz,
nekatua zalako ainbat egazkadaz,
elorri adar baten pozik eskutau zan;
begiak baña Andonik bere zain eukazan.

Ixill beatz gañean ondotxora yoan
ta, sart! Mitxeletea eskuratu eban,
baña elorri arantz zorrotzak zulatu
eutson eskua, baita odolez estaldu.

Alan be, Andonitxo gurendari zala,
pozez amagandu zan eskuan ebala;
eskua zabaltzen dau ta... a bai zan tamala!
ikusi ebanean auts biurtu zala.

Orduan amak esan eutson Andoniri:
«Ludiko poz-zorunen irudi dok ori;
Zorun yarrai doyana, gustia nekatu;
eskuratzen dauneko bertan ezereztu».

# Andoni ta mitxeletia

Andoni'txu mutiko
otzan eta argia,
esanak egiteko
apal ta zolia,
bein loratxuak zaintzen
ebillen amari
ura ekarten eutson
eiteko lorari.

—

Eskuan urontziaz
begira eguan,
ta loratik urtenda
euron inguruan,
dakus mitxeleta bat
zuri ta ederra
egazka ebillala
batetik bestera.

—

Mitxeleta polita
zana ben - benetan,
Andoni'k artu nairik
beren eskuetan,
asi zan bere jarrai
beso edatuaz
ikutzia lorturik
nozipein eskuaz.

—

Baña mitxeletiak
egaz zoli - zoli
ixeka eiten eutson
gure Andoni'ri:
ta batera - bestera
luzaro ibillita
Andoni gelditu zan
gustiz nekatuta.

Mitxeletia baita
atsedendu nayaz
nekatua zalako
ainbat egazkadaz,
elorri adar baten
pozik eskutau zan:
begiak baña Andoni'k
bere zain eukazan.

—

Ixil, beatz gañian
ondora juan zan,
ta, ¡sart! mitxeletia
eskuratu eban,
baña elorri arantz
zorrotzak zulatu
eutson eskua, baita
odolez estaldu.

—

Alanbe Andoni'txu
garailari zala,
pozez amagandu zan
eskuan ebala,
zabaltzen dau eskua
ta ¡a bai zan tamala!
ikusi ebanian
auts biurtu zala.

—

Orduan amak esan
eutson Andoni'ri:
— *Ludiko zorionen*
*irudi dok ori.*
*Zorun - jarrai doyana*
*gustia nekatu:*
*eskuratzen dauneko*
*bertan ezereztu.*

**GABIREL.**

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia 131'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1919 Zoŕnotza, Uŕila'ren 1.ª



## Goteun-Etorkunde osteko XVII'gn. igandia

### GOIZPAŔKIA (Ebanjelioa)

ALDI atan: Parixetaŕak Josu'gana uŕeratu ziran; eta lege-jakitun batek zirikatzen itandu eutson: Irakasle, Legeko agindu nagusia zein ete da? Josu'k esan eutson: Jaungoiko Jauna zeure biotz gustiaz, zeure adimen osoaz maiteko dozu. Auxe da agindu nagusi ta lenena. Bigaŕena beronen antzekoa da. Zeure geidea (lagun uŕkoa) zeure burua lez maiteko dozu. Agindu bi oneitan saŕtzen da lege gustia ta Igaŕleak be bai. Eta parixetaŕak bilduta egozala, Josu'k itandu eutsen, esanaz: Kisto'tzaz ze eresten dozue? noren Semea ete da? Esan eutsoen: Dabid'ena. Esan eutsen: Zelan baña Dabid'ek gogoz bere Jauna deitzen dautso esanaz: «Jauna'k neure Jaunari esan eutson: Neure eskumaldean jaŕi zaitez zeure etsayak zeure idulkitzat (oinpeko) ipinten dodazan aŕtean?» Dabid'ek ba bere Jauna deitzen ba'dautso, zelan bere Seme izan ete leike? Eta iñok itzik ezin erantzun eutson; eta egun aŕtatik iñor etzan asaŕtu itaunik geyago egiten». (MATTH. XXII - 35 - 46).

Kistar maite: Gure biotza maitatzeko egiña da, ta maitasuna Jainkoak geure biotzeko baratzean ipiñi daun lora samuŕ eta edeŕa da. Maitasuna baño gauza gozoagorik, gurenagorik, pozgaŕiagorik, obarik eta indaŕtsuagorik zeru-luŕean ezta. Eta Jainkoa'gandik soŕtua dalako, itxasotik urtetan dan ura bertara baŕiro biuŕtu arte artega ta uŕduri egon oi dan lez, geure biotza be Jainkoak beretzako egiña dalako Bera'gana eldu arte artega ta urduri dago. Au onan dalarik, aŕitzeko gauza dirudi Jainkoak bera maitatzeko legea ipiñi beaŕ izatea. Izan be, Bereak ez ete gara ba? Ez ete gaitu maitasun utsez, ezerezetik atara? Bere laguntzaz ez ete dogu irauten? Biotza berea ba'da baŕen-baŕendik Bera maitatzea baño gauza bidezkoagorik ete da? Alan be geure buruaz ezik, beste gauzakaz ain azkorrak garealako, Jainkoak lege au argi ta garbi begien auŕean ipiñi dausku: *Maiteko dozu Jainko Jauna, zeure biotz gustiaz, zeure gogo gustiaz ta zeu re adimen osoaz*

Ta gauza maitagaŕiak maitatu beaŕ ba'dira Jainkoa baño maitagaŕiagorik, zer? Bera da geure Jaun bakaŕa; ontasun utsa: edeŕtasun neuŕgea, zuzenta beŕbera, eŕuki, ontasun, aintza ta deuntasun itxaso ondogabea, ta ez ete dogu maitatu beaŕ? Ta geure Jaun ta Aita maitegaŕi au, betikotasunetik maitatu gaitun au: donokiko jaubegai egin gaituana, geure eŕuz, oben-bidez etsayen estuntsapean jausi gareanean Berak estuntzok uŕatu ta azke egin gaituana dalarik; ez ete dogu maitetuko? Ez ete gaitu Jaun maite oŕek illun aldietan argitu, argal aldietan sendatu ta geugaitik Bere bizitz edeŕa emonda, aŕaña uretan lez bere eskaŕ-itxasoan eskaŕ, mesede ta laguntzaz inguratu? Eta oso - osoan maite izan gaitun Maitasun utsa: Bera'k agintzen dauskun lez «Biotz gustiaz» ez ete dogu maitetuko? Bere eskaŕak beti gogoan erabillita, Bere edeŕtasun neuŕgabeak ezagutzen aleginduta; «Gogo gustiaz» ez ete dogu maitetuko? Eta geure adimen, al izate ta indaŕ gustiak maitasun au geure biotzean eŕotsuago egiteko ez ete doguz zuzenduko?

Eta maitatu beaŕ dogu ez itzez bakaŕik egiz ta benetan baño. Ta geure biotza benetako maitasun onen tokia ba'dan jakiteko ezaupidea, ara emen: Jauna'ren agindu ta guraria betetako gogoa ba-dogu ta Beragaitik gustia jasanteko (sufritzeko) geŕtu ba'gagoz, maitale zintzoak izango gara; bestelan, ez. Jainko maitatzal̄eak gauza gogoŕ ta gaŕatz gustiak gogoz besaŕtetu beaŕ ditu; ta asmo ontatik edozein eragozpen dala-ta be eztau alde-egin beaŕ. (De Imit. Christi, C. V.) Onetzaz gañera, geure lagun uŕkoa geure burua lez maite izan beaŕ dogu. Agindu au baŕiz lenengoa betetako beaŕ-beaŕekoa da, Jon - deunak diñoskun lez: «Norbaitek Jaungoikoa maite dabela ba'diño, ta anaya goŕotatzen badau guzuŕti bat da». (I, Joann, IV). Eta geideatzazko maitasunaren araua itz bitan auxe da: Geuretzat gurako geunkena, geideari be opa izan, eta geuretzat gura eztogunik ez geideari be opa. Au da: geure burua neuŕtzen dogun neuŕiaz lagun - uŕkoa be neuŕtu. Auxe egikezu ta zeruratuko zara.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 5'gn. Eŕijarentzat Aguŕtzadun Ama Neskutza ospatzeko jaya. Aguŕtzako Anaidija dan txadonetan ikeŕkun bakotxagaīik *Nekazka osua* irabazi dagike; 12'gn. Age'ko Ama Neskutza, (Zaragoza'n).

*Amabostaruon gure Goteŕkijon jai osorik ezta.*

Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 1'gn. Gotzon Zaintzal̄iek.

3'gn. Il̄eko lenengo barikuba.

*Il̄eko lenengo bederatzi bariku jaŕaīubetan, biaŕ dan eraz, Jaunaŕkuna ba'dagixu,* Jósu-Kisto'k esan eban, *donokija zeuria dozu.*

Pantzeskataŕen Irugaŕengo Gopazkidientzat *barau eguna.*

4'gn. Asis'taŕ Pantzeska - Deuna, autoŕlia, iraslia.

7'gn. Aguŕtzadun Ama Neskutza.

8'gn. Begoña'ko Ama Neskutza, Bizkai-Zaintzal̄ia. Jai au eŕijarentzat uŕengo igandian ospatzen da.

15'gn. Josu'ren Terese - Deuna, neskutza, Karmel - gopatzaren baŕiztal̄ia.

## ASISTAR PANTZEZKA
## DEUNAREN ERIOTZEA - J.Z. 1919-131-150

Eguzki sutsuak udazken arratsez
dauzala bialtzen azken-izpiak,
Porziunkulako txabola batean
argitzen dauz gauza oroigarriak.

Txirotasun deunan irudi bizia,
billosturik datza lur gogorrean,
«Asisko Txiroa», iltzer zotiñetan
eriotzearen erpe artean.

Yaun-maitasun-garrez oldarka biotza,
lertu bearrean taupadaz dago;
ta berak pozarren abesten diardu,
eriotzea ur eta gartsuago:

«Neure abotsez dei-dagitsot Yaunari
Neu-abotsez Yaunari eska dautsot,
Neure otoya bere aitzin ixurita
Bere aurrean neu-samiña agertzen dot.

Neure gogoa naigabetzen danean,
Neure bidaskak Zuk dozuz ezautzen,
Bide onetan neu nabilen bidean,
Lakio ixill bat edatu eustien.

Eskumaldera begiratuta dakust,
Iñortxo ez dala ezautzen nabenik;
Iges-bidea niretzat galdu da-ta,
Ez da bizia zaindu nai daustanik.

Didar dagitzut nik, Yaunoi, diñodala;
Zu zara nire zain eta itxaroa,
Ta biztoki ontan nire yabegoa.
Neure oyua arren entzun egizu,

Oso-osoan apaldua izanaz ta,
Neu yasarleetatik gaizkatu nagizu
Nire aldean indartsu dira ba.
Bere espetxetik atera neu-gogoa,

Aintzaldu dagidan Zeure izena,

Zuzenzaleak ba, begira daukadaz
Emon daidazun Zeuk epai zuzena».

Pantzezka ixildu da; ta euzki ondoren
illuna zabaltzen dan bitartean,
eriotzearen eskutik iges dau
argi egiteko betiraundean.

Txirotasun deunan irudi bizia
il da, ta gotzonak dabe goraltzen,
ta bere gorpua datzan ingurura
txoritxo pilloa dator agurtzen.



Tabira'ko elizan gurtuten dan Agurtzadun Amaren irudija.

Gazteiz'ko Gotzain jaunak eder - etsita argazkituteko agindu eban oraintsuengo ikustaldijan.

*(Foto Germán).*

# Asis'taŕ Pantzeska - Deuna'ren Eriotza

Eguzki sutsuak udazken aŕatzez
dauzala bialtzen azken - izpiak
Poŕziunkula'ko txabola batean
aŕgitzen dauz gauza oroigaŕiak.

—

Txirotasun deunan irudi bizia
datza biĺosturik luŕ gogoŕean;
Asis'ko Txiroa azken sotiñetan
eriotzearen eŕpe - aŕtean.

Jaumaitasun gaŕez oldaŕka biotza
leŕtu beaŕean taupadaz dago;
ta berak pozaŕen abesten diaŕdu,
eriotzea uŕ ta gaŕtsuago:

—

*Neure abotsez dei dagitsot Jauna'ri.*
*Neu - abotsez Jauna'ri eska - dautsot;*
*neure otoya bere auŕe ixuri ta,*
*bere auŕean samiña ageŕtzen dot.*
*Neure gogoa naigabetzen danean*
*neure bidaskak Zuk dozuz ezautzen:*
*bide onetan, neu nabiĺen bidean,*
*lakio ixil bat edatu eustien.*
*Eskumaldera begiratuta dakust*
*ez dala iñoŕtxo ezautzen nabenik:*
*iges - bidea niretzat galdu da - ta*
*ez da bizia zaindu nai daustanik.*
*Deadaŕ dagitzut, Jaunoi, diñodala:*
*Zu zara nire zain eta itxaroa,*
*ta biztoki ontan nire jabegoa.*
*Neure oyua entzun egizu, aŕen,*
*oso - osoan apaldua izanaz - ta:*
*gaizkatu naizu neu jazaŕleetatik*
*nire aldean indaŕtsu dira, ba.*
*Bere espetxetik atara neu - gogoa,*
*aintzaldu dagidan zeure izena,*
*zuzenzaleak ba, begira daukadaz*
*emon daizun Zeuk epai zuzena" (1).*

—

Pantzeska ixildu da: ta euzki ondoren
iĺuna zabaltzen dan bitaŕtean
eriotzearen eskutik iges dau
argi egiteko betiraundean.

—

Txirotasunaren irudi bizia
ilda, ta gotzonak dabe goraltzen
ta bere goŕpua dagon ingurura
txoritxu piĺoa datoŕ aguŕtzen.

GABIREL.

(1). Ps. CXLI. — Dabid igaŕleak etsayetatik iges, leiza baten egin eban otoya. (Ibeŕkerako aldakuntzak gogoan euki dira).

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
132'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1919 Zoŕnotza, Uŕila-15'gn.



## Goteun - Etoŕkunde osteko XIX'gn igandia

### GOIZPAŔKIA. - (Ebanjelioa)

ALDI atan: Josu'k jaupari nagusiai ta parixetaŕai ipuin bidez itz-egin eutsen esanaz: Goiko alak (zeruko eŕeñua) esteguak bere semeari gertau eutsozan gizon bakaldunaren antza dauko. Eta beren moŕoyak uaŕtuak deitzen bialdu zituan eta ezeben etoŕi gura izan. Baŕiro beste moŕoi batzuk bialdu zituan esanaz: Uaŕtuai esan eyezue: Ona neure bazkaria geŕtu dot, nire zezenak eta abere gizenak erail dira ta gustia gertu dago; ezteguetara zatoze. Arek baña, ezeutsen jaramon eta joan ziran; bat bere imatz edo etxaldera, beste bat saloskintzara ta enparabak aren moŕoyak oratu zituezan, ta irañez bete ondoren erail zituezan. Eta bakalduna, (eŕegea) entzun ebanean, sumindu zan, ta beren gudarozteak bialduki gizeraile aek ondatu ta euraen uria sutau eban. Oŕduan beren moŕoyai esan eutsen: Ezteguak ba geŕtuta dagoz baña deituak ez dira duin izan. Zoaze ba, bide zidoŕetara ta idoroko dozuezan gustiei ezteguetara deitu. Ta beren moŕoyak bide-buruetara uŕtenda, idoro zituezan gustiak, onak eta txaŕak, batzaldu zituezan eta estegu-tokia maikidez bete zan. Eta bakalduna saŕtu zan maikidiak ikusteko ta gizon bat-estegu jantzi barik ikusi eban eta esan eutson: Aizkide, ¿zelan saŕtu zara ona estegu jantzi barik? Ta bera ixildu zan. Orduan moŕoyai esan eutsen: Beronen esku oñak lotu ta osteko illundira jauŕti egikezue, beŕtan negaŕa ta agin-kaŕaskotsa izango da. Asko dira ba deituak gitxi baña aukeratuak. (MATTH. XXII-I-14).

Kistaŕ maite: Gauŕko goizpaŕkian aitatzen dan bakalduna (eŕegea) Bere Seme Josu-Kisto'k Doibatz (Eleizagaz) egindako esteguetara deitzen dauskun Jainko Aita'ren irudia da. Beŕtan janaritzat damoskuz, Siñeztea, Ikuŕtonak (sakŕamentuak), Goi-eskaŕa (grazia), Goteun-emaitzak (Espiritu Santuaren doyak) ta zeruratzeko beaŕ doguzan laguntasun gustiak. Estegu oneitara gustioi deitzen dausku, gustiok zeruratzea gura dau-ta. Lenen baña judataŕai deitu eutsen. Oŕetarako bialdu eutsezan iragaŕleak, ta azkenez Jon Ugutzari ta Belduak edo apostoluak. Arek baña dei au ez eben aintzat aŕtu, batzuk ludi onetako gauzetara biotza etxunda

eukielako, euren ondasun, zeregin eta atsegiñak apokutzat aŕtuta ezeutsen jaramonik be egin: beste batzuk baŕiz dei au entzun be gura ezebelako asaŕetu ziran, eta eŕegen moŕoyak iraindu ta erail ebezan. Auxe geŕtatu zan iragaŕleakaz ta Jon deunagaz be. Oŕduan bakalduna sumindu zan, ta gudarozte indaŕtsuak bialdu; judaŕak ondatu ta euraen uria sutu ta biŕindu eben. (Eŕomataŕ gudariak biŕindu eben Jerusalen 70'gaŕen uŕtean). Gero gizon gustiai deitu eutsen bere irakasleak ludi gustitik zabalduta. Ara bere agintza: Zoaze ta irakatsi gizon gustiai, ugutzau ta ekaŕi esteguetara, Eleiza deunara. Ta gizonak zelan erantzun ete dautse? Judataŕen antzera. Batzuk aberastasun-zalekeriz eta atsegin-zalekeriz jaramonik bez: beste batzuk dei au zabaltzen daben Jainko - otseñak (abade ta lekaide) iraintzen dabez ta saŕitan zigoŕtu ta erail be bai: beste asko bai-dira esteguetara joan diranak ez baña estegu-jantziaz, ez ziñesteak eskatzen dautsena betetako asmoz, euraen zalekeri gaiztoen arauz biziteko baño. Eta aberastasun gaŕa ala andikeria dala; jolasa eta atsegiña dala, estegu - jantziaz aztuten dira. Kistaŕ maite: Soŕkaldeko oitura da, bakaldun batek, jateko deyagaz batean bakotxari estegu jantzia bialtzea, eta jantzi au barik ageŕtzea lotsabakeri, ta bakaldunaganako irain andia dalako ainbestean zigoŕtu ba'eban: Jainkoaren deya entzunda bere Eleizan saŕtu dana, Berak eskiñitako jantzi barik, goiko-eskaŕ barik, ikustera datoŕenean auŕkitzen ba'dau betiko illunpera jauŕti aŕen zeŕ-esanik eukiko ete dau? Eta an betiko negaŕ ta agin kaŕaskots aŕtean betikotasun gustian egongo ba-da; ludi gustia beragantzeak, ze onura ekaŕiko ete dautso?

Azkenez Josu'k diño: «Asko dirala deituak eta gitxi autuak». Au judataŕakaitik aitu beaŕ da, gustiak deituak izan ziran aŕen, gitxi Eleizaratu ziralako; eztau esan gura ezelan be, Eleizara saŕtzen diranak geyenak galduko dirala, saŕtzen diran gustiak eztirala gaizkatuko baño.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 19'gn.; 26'gn.

*Amabostaruan, gure Goterkijan, jai osorik ezta.*

Igandietan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.

EGUN IXENDABAK: 18'gn. Deun - Luka, Goizparkilia

21'gn. Deun-Urtsule ta lagunak, neskutzak, ziñopeak.

24'gn. Deun-Eŕapel, gongotzona. Gongotzon Deun au bidazti - Zaintzale bakaŕik ezta, gexo *osatzale* be bai. *Eŕapel* ixenak *Jaunaren osakija* dikuŕ. *Goiko Jaunak iñorbait osatu gura daunian, Eŕapel gongotzon Deuna bidaltzen dautsola* Jeronima Deunak diño. Edozein biaŕetan ba, Gongotzon Deun augana ustàkidatsu eldu, ta, eskaŕa, sutsu, eskatu.

* * *

## URILA 23'gn.

## Todor, Deuna, jauparija ta ziñopea

TODOR-Deuna, jaupari aintzatsua, ta Kisto-ziñopea, Siria'ko Antiokia'ko jauparirik arduratsu ta sutsubena ixan zan. Kistaŕak ugarijagotu zedixantzako asmo utzez, ta ziñopa-sarija baño besterik gura ez da, zingien ziñeskai guzuŕak susterkatzen, jaungoixunen irudijak luŕeratzen eta Goiko-Jaun bakaŕ, egijazko -opaz jaure-

## Oyaneko-Ituŕia

Odoldiari mosu emonaz
ageŕtuten dan iturritxoak
oyanean:
bere tzokotik uŕten daneko
txori-aguŕak dantzuz pozaŕen
ostopean:

Axe bigunak esku legunaz
bere mosuan iguzten dautso
aizkide lez:
ta ur gaŕden, gaŕbi jayopaŕiak
bere eskaŕ ona dautso ageŕtzen
iŕibaŕez.

Zeaŕ-meaŕka bilďuŕ bilďuŕez
ibiľi dabiľ ezautzeztaben
bidetxoan
eta zeŕtxobait nekau bai-litzan
geldituten da, bidean dauŕkin
txokotxoan.

Baña aŕpegia txoko eŕtzera
ageŕtu dau ta, bean ibai bat
ikusirik zeŕ ete dagon jakingureaz
amildegitik doa ikotika
geldi-barik.

Zeŕbait izukoŕ uŕetatu da
ibaira baña; gaxoa alako
uste barik
Ta ara ur loyak baŕuan dauzan

## OYANEKO ITHURRIA – J.Z. 1919-132-155-156

Odoldiari mosu emonaz
agertuten dan iturritxoak
oyanean;
bere txokotik urten daneko
txori-agurrak pozarren dantzuz
ostopean.

Axe bigunak esku legunaz
arpegitxoan iguzten dautso
aizkide lez;
ta ur garden, garbi yayoparriak
bere esker ona dautso agertzen
irribarrez.

Zear-mearka bildur-ikaraz
ibilli dabill ezautzeztaben
bidetxoan;
eta zertxobait nekau bailitzan
geldituten da bidean daurkin
txokotxoan.

Baña arpegia txoko ertzera
agertu dau ta bean ibai bat
ikusirik,
zer ete dagon yakinguriaz
amildegitik doa ikotika
geldi barik.

Zerbait izukor urreratu da
ibaira baña, gaxoa alako
uste barik,
ta, ara ur loyak barruan dauzan
ibai zikiñaz non gelditzen dan
bat egiñik.

«Irudi ontan zenbat ta zenbat
euskotar gaste geinkez ikusi
antzeztuta;
Au bai tamala...! Oyanetako
ur garden leuna, loi dan uragaz
alkartuta...!».

ibai zikiñaz, non gelditzen dan
bat egiñik.

*Irudi ontan, zenbat ta zenbat*
*euzko-gasteak, ikusi geinkez*
*antzeztuta.*
*¡Au bai, tamala! oyanetako*
*ur gaŕden leuna, loi dan uragaz*
*alkaŕtuta!*

GABIREL.

(1) antzeztu=retratar.

Oyan=selva. Ostopean=oŕipean; garden=transparente; zear - mearka=en zig-zag; dauŕkin=auŕkitzen daun; amildegi=vertiente; izukoŕ=tímido. Lengo zenbakian, David=abestian azkenengo leŕoa eŕen ageŕtu zan; «Emon daizun» ageŕtu zan «Emon daidazun»—ordez. Ara oŕ eŕena zuzenduta.

# Alkartasunaren Indara

Saspi seme eukazan aťa batek beti alkaŕ ikusi ezinda bixi ziranak Euren goŕoto ta alkaŕ aťu eziñak, bein baño geyagotan ixan ziran aťa onaren bijotzarentzako eloŕi-arantza zoŕotz-zoŕotzak. Euren zeregin eta lanetarako biaŕ eben aldi edeŕ ta

# USKURTZA (ERLEJIÑOA) EGIZTUTA

## LENENGO ATZALBURUA

### Jaungoikua bai dala

Adimen-argia naiko da, Jaungoiko ortze-lurraren Egille bat ba'dala egiztuteko. Jauregi eder andi bat ba, urre bitxiz ta aberaskiz beteta, ta edeŕgaŕi onenakaz apainduta geure begien auŕean ba'geunke eta bat-edo-batek jauregi a ta beŕtako txingi ta apainkiak berez egin eta an bildu dirala esango ba'leuskigu: ero-erotzat ez ete geunke etsiko? Ba, jauregi edeŕ au ludia (mundua) da. Eguzkiak egunez aŕgitzen dau, gabaz illargiak: ortzea (zerua) izaŕez beterik dago: luŕa gizon, abere ta landarakaz: itxaso ta ibayak aŕañez, laspeldia (axea) egaztiz: urtaroak alkaŕen ondoren uts-barik igaroten dira: luŕaren barrenean, uŕe, zidaŕ, aŕi-txingi ta burdin mota gustiak aurkitzen dira: ta ludi ain edeŕ, aberats ta gelgaŕiz bete au, irazan (egin) eta antolatu daun Jaunen bat ¿ez ete da izango?

*M.'taŕ G.* Euzk.

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia 133'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ | 1919 | Zoŕnotza, Azil̄a-1'gn.



## Goteun - Etoŕkunde osteko XXI'gn igandia

### GOIZPAŔKIA. - (Ebanjelioa)

ALDI atan: Josu'k beren irakasleai ipuin au esan eutsen: Goi - ala (zeruko eŕeñua) beren moŕoyakaz aŕtzeko zoŕak atondu gura zituan bakaldunaren antzekoa da. Ta zoŕ-aŕtzekoak atonduten asit̄a, amaŕ milla txindi-azta zoŕ eutsozan bat auŕkeztu eutsoen. Onek ba, nondik ordaindu ezeukala, beren ugazabak, bera ta beren emaztea eta seme-alabak ta guztia saldu ta ordaintzeko agind̄u eban. Eta moŕoyak auzpezturik aŕenka esan eutson: Itxaron egidazu ta dana ordaind̄uko dautzut. Eta beren ugazabak aregaz eŕukit̄uta azkatu eban eta zoŕak be paŕkatu eutsozan.

Eta moŕoyak uŕtenda berari eun amaŕeko zoŕ eutsozan moŕoikide bat auŕkit̄u eban eta oraturik it̄o beaŕ eban esanaz: Zoŕ daustazuna biuŕtu egidazu. Eta beren moŕoikideak auzpezturik aŕenka esaten eutson: Itxaron egidazu ta guztia oŕdaind̄uko dautzut. Ak baña, ezeban gura izan eta joan zan eta zoŕa ordaind̄u aŕte espetxeratu eban. Ta beren moŕoikideak jazoten zana ikusirik gustiz it̄undu ziran, eta etoŕi ziran eta jazo zan gustia ugazabari edestu (kontau) eutsoen. Orduan beren ugazabak deit̄u eban eta esan eutson: Moŕoi deunge ori. Eskatu dauztazulako zoŕ osoa baŕkatu dautzut. ¿Ez ete zan ba, zuzen, zeu be moŕoi - lagunagaz eŕukitzea neu zutzaz eŕukit̄u nazan lez? Eta ugazabak asaŕe - sumin zigoŕkariai emon eutsen zoŕ osoa kitatu aŕterano. Onantxe nire Ait̄a Goikoak egingo dautzue bakotxak beren anayari biotzez parkatuko ezpa - zeunskioe. (MATH. XVIII - 23 - 35).

Kistaŕ maite: Jainko gure Jauna ontasun utsa da ta ontasunari berez zabaltzea dagokion lez, Bere al - izateagaz batera, Bere ontasunaren izpi bigunak gauza gustietan zabaltzen dauz. Eta eŕukia ontasunagaz alkaŕtuta beti dabillelako, Bere almen neuŕgea be, parkatzen eta eŕukituəz beraríz ageŕtzen dau. Eŕukia, ontasunaren geriza lez dala esan geinke, gogoŕkeria baŕiz gaiztakeriarena. Alan ba, onaren biotzetik gogoŕkeriak iges dagi, ta baŕdin gaiztoen biotzetik eŕukiak.

Auxe da geure biotzagaz geŕtatzen dana. Adam'en obena ezkeroztik geure bio

tza gaiztakeri guztien osiña lez da, ta geuretzat eŕukia gura izan aŕen, bestientzat zigoŕ eta gogoŕkeri zaleak izaten gara. Josu-Kisto gure Jauna ba, eŕuki utsez ludi onetara jatsi zan, geure biotzetara benetako anaitasuna: gizonen biotzetik zerura iges eginda egoan alkaŕenganako maitasuna ekaŕteko. Ludi onetan bizi izan zan aŕtean auxe itzez, eta egitez batez be, irakatsi eban, eta eŕuki aonen ikasbide edeŕa azken aŕnasetan egoala emon euskun. Bera gurutzan josi ebenen aldez otoi edeŕ au eginda: «Aita, azketsi oŕei, zeŕ egiten daben eztakie - ta». (LUKAS, XXIII - 34). Bere ikaslien biotzetan eŕukia iratsi gurarik ipuin au azaldu eutsen. Bakaldun batek bere moŕoyai aŕtu-emonen zuri-gaŕbia eskatzen dautse. Batek baña txindi pillo aundiak zoŕ eutsozan eta zegaz ordaindu ezeukan. Ugazabak zigoŕ gogoŕa ezaŕtzen dautso: ta zigoŕpetik zelan iges egin? bide bakaŕa dauŕki ta beŕtatik saŕtzen da; eŕuki bidea. Belaunbikotuta diñotso: Itxaron egidazu, dana ordainduko dautzut - eta. Al izango daben baño geyago agindu dautso, eta bakaldunak ezingo dabela bete jakin aŕen, itxaroten izan dabena baño geyago damotso; biotzez eŕukituta gustia parkatzen dautso. Ara oŕ Jaun eŕukioŕak saŕi-saŕitan geugaz egiten dauna.

Geurez ezeŕtxo eztaukagu, obena izan ezik, oso-osoan Jauna'renak gara, eta irañez ta eskaŕ - txaŕik baltzenagaz Jauna'ri erantzun aŕen, biotzez eŕukia eskatu orduko parkatzen dausku, pozez betetan gaituala. Geure geideaz berorixe egiteko agintzen dausku, ta egiten ete dogu? ¡bai zera! Goizpaŕkiko moŕoyak lez; irain txiki bat egin dauskula - ta, itz gaŕastxo bat esan dabela - ta, oŕ ibilten gara betozko ilunaz geure geidea nondik zigoŕtuko. Auxe da baŕiz bide zuzena Jaunaen zigoŕa geureganduteko, moŕoyak beragandu eban lez. Geure zoŕa ikaragaŕia dala-ta eŕukia gura dogu? eŕukioŕak izan gaitezan. Geuri biotzez parkatzea gura dogu? Biotzez paŕkatu daigun. Osterantzean, zelan asaŕtuko gara Jauna'ri esaten: «Parkatu guri geure zoŕak», geuk geideari biotzez parkatzen ezpa - dautsogu? Eŕukioŕa izan ba, geure lagun - urkoen utsegiteakaz. Geuk neuŕtzen dogun neuŕiaz neuŕtuak izango gara-ta. (MAT. VII-2).

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK; 2'gn.; 9'gn. Ama Neskutza'ren Zaindasuna.

JAI OSUAK: 1'gn. Deun Oroen jaya: Beŕi-Otxoa Balendin zorunduna ziñopatu eben eguna.

*Igande ta jayegunetan kistaŕ orok jaupa osua entzun-biaŕ dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 3'gn. Gokaxuen Gomutaldija. Gokaxo - aldez lana beti iñaŕdu - biaŕ dogu; gauŕ baña euren azkamena loŕtzeko berarizko eguna da-ta otoi, bedegaŕez, egin - biaŕ dogu. Jaupari bakotxak iru jaupa-dagikez; ¿zuk zenbat ikusiko dozuz? Zeuk neuŕtzen dozun neuŕiz neuŕtuko zabela etzadiz aiztu. Doibatzat emonda, biaŕ dan eraz Jaunaŕkuna egin ezkero, atzo egubeŕdijan asita gauŕ gabeŕdiraŕte, edozein jauretxe, txadon, basatxonuetan be bai, ikeŕkun bakotxeko *Nekazka Osua*, Gokaxo-aldez, irabazi dagikezu.

7'gn. Ileko lenengo barikuba.

*Ileko lenengo bederatzi bariku jaŕaubetan-biaŕ dan eraz Jaunaŕkuna ba'dagixu — Josu-Kisto'k esan eban—donokija zeuria dozu.*

10'gn. Ander Abelin - Deuna, autoŕlia, uste -bako erijotza-auŕka Zaintzalia.

13'gn. Koska'taŕ Estanisla autoŕlia.

# UZKUŔTZA (Jainko-guŕtza) EGIZTUTA

## BIGAŔEN ATZALBURUA

## JAINKOA'REN EGOKITASUNAK

Gauza guztiak irazan dituan Jauna'k alguztidunak izan bear dau: irazan ba, ezereztik ataratea da: len etzana bat-batean izateratutea: ta onetarako al mugagea, aloro beaŕ dala aŕgi dago. Gizonok ekin-aldienpuruz geure gauzak egiten doguz ta beti auŕezti gaya euki-t̄a: arotzak, esate baterako, eztau mairik egingo beaŕ dan zurik ezpa-dauka; baña ezeŕ eztala «izan bedi» esan eta beste barik gauzak egiteak alorodun bat dala adirazten dau. Auxe egin eban Jainkoak, eta ez gauza ezerezakaz, gaudi edo gauza guztiakaz baño.

Jainkoa «jakit̄un mugagea» izan beaŕ da; bere jakituriak ba, oŕtze ta luŕeko gauzaetan aŕgi dagi: «Betikoa», iñok irazana eztanak asierarik eta amairik ezin euki leikelako «egokitasunetan mugagea» bere izadiaren inđaŕez izatea daukanari ezek neuŕirik ipiñi ezin leikiolako ta beragan izatearen osotasuna daukalako; alan ba neurgea, zuzena, deuna, ona, eŕukitsua, onak saritu ta gaiztoak zigortuten dituana da: itz baten: «*Gogo bat mugabarik oso-osoa, gauza guztien irazal̄e, irauntzal̄e ta zuzentzal̄ea*».

Au onan dala Jainkoak ludian jazoten dan guztia, bait̄a jazo dana ta jazoko dan guztia guk eguerdian begien auŕean daukaguzan gauzak ikusten doguzan aŕgitasunaz ikusten dauz. Ta ezin leiteke bestera izan jazoten dan guztia ona nai txaŕa bere gurariz ala berak laketuta jazoten dalako zerbait dagigunean alik eta ixil̄en egin-da be, gogokun ala naikun bat daukagunean euraen ezaugaŕirik ageŕtu ez da be, danari begira dago, guztia ikusten dau, geure uŕ-uŕean aŕeta andiz begira egongo ba'litz gizon batek ikusiko gindukezan antzera. ¡Geure bizikeran zuzen ibilt̄eko oroipen, ziñez, bere bizikoa!

**M.'tar G'k** Euzk.

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
134'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1919

Zoŕnotza, Azila-15'gn.



## Goteun-Etoŕkunde ostekoXXIII'gn igandeko

### GOIZPAŔKIA. - (Ebanjelioa)

ALDI atan: Josu'k gizosteai itz egit̄en eutsela ara andiki bat uŕeratu zan, eta guŕtzen eban esaten: Jaun ori, nere alabea ointxe il da; baña zatoz, eskua bere buru gañean ipiñiyozu eta beŕbiztuko da. Eta Josu'k jagi ta jaŕaitzen eutson baita beren ikasleak. Eta ona emakumea odol-ixuria amabi urtean zeukana, atzetik eldu yakon eta bere jantzi-eŕtzari ikutu eutson. Bere baŕuan ziñoan ba: Beren jantziari bakaŕik ikutuko ba'neuskio osatuko nintzake. Ta Josu'k atzera itzulirik ta berari begira esan eban: Itxarokezu alaba, zeure zinesteak gaizkatu zaitu.

Ta emakumea aldi atatik osatu zan. Eta Josu andikiaren etxera elduta, turulariak eta gizoste erostaria ikusirik esaten eban: Alde-zaiteze, neskatil̄ea eztago ba ild̄a, lo baño. Eta iŕi egiten eutsoen. Eta gizostea atera ebenean saŕtu zan, eta neskatil̄earen eskua aŕtu eban. Eta neskatil̄ea jagi zan. Eta jazokun-ospea aldeŕdi gustietan zabaldu zan. (MATTH. IX - 18 - 23).

Kistaŕ maite: Geure biotzarentzat, gexo ala atsekabepean dagonean, gauzarik samingaŕiena beren inguruan erukiŕik idoro ezeitea dalako; neke-sare baŕuan auŕkitzen danentzat, nekeok arindu ta samiñok gozatuko dautsozan osagil̄e eŕukitsua auŕkitzea baño gauza pozgaŕiagorik ezta. Orduan samintasunik latzenak be, poz ta gozotasun-ituŕi biuŕtzen dira. Eta, nekea gogoŕagoa; ta poz-atsegin au, ugariagua izango da, batez be, nekeok gozatu ta gexuok osatu leiskeguzan osagil̄e on eta biozpera beragana eltzeko deyez dagola ikusiko ba'gendu. Samin-atsekabepean gabiltzanok Adam'en seme eŕukaŕiok gara. Ontasun utsa dan, eta deyez daukagun osagil̄e mait̄egaŕia, Josu-Kisto geure Jaun mait̄ea da. Ludi onetatik «on egiten igaro zan» (Act. Apost. X-38) eta Beren eŕukizko Biotzetik uŕten ziran itz

gozo oneik. Neke ta zamapean zagozien gustiok zatoze Neu'gana, Neuk sorosiko zaiťuet-eta (Matth-II 28) beren ziñestea baño len luřun gozo lez inguru gustietara zabaldu ziran.

Diñogun au gauřko goizpařkiak egiztuten dau. Igaroko amabi uřtetan osagiĩerik -osagiĩe, ezetako onura barik bere ondasun gustia banatu eban emakume gaxoak Josu'gana oste ařtetik elduta, uste osoaz bere soñeko eřtzean ikutzen dautso, ta bat-batean osatzen da. Josu'k beragana biuřtuta esan eutson: Alaba, itxarokezu; zeure ziñesteak osatu zaitu. Geroz Jairo'n etxera elduta, aldi atan oitura zan lez, gizoste erostaria auřkitu eban, eta gelatik urteteko agindu, esanaz: Alde zaiteze neskatiĩea eztago ba, ilda, lo baño. Eta baře egiten eutsoen, Josu'k ilda ezegoala esan gura ebalakoan. Eta beren guraso ta iru ikaslegaz neskatiĩearen gelara sařtuta, eskutik oratu ta bere elez esan eutson: TALITHA CUMI, au da: neskatiĩa, jagi zaite. Bat-batean jagi ta ibiĩten asi zan neskatiĩea, amabi urteduna zan ba; gustiz ařituta geratzen zirala. Ara kistař maiťe. Josu'ren Biotz samuř-eřukitsua. Bera ikusiaz beste barik neke ta atsekabeak iges dagi, ařgia ikusita iĩunak iges egiĩen daun lez. Gogoko samiñak bere menpean ařtzen gaituanean, oben ilkořak bere eřpe gogořakaz erailĩen gaituanean, ez alpeřik nekatu geure indařaz bakařik gexo ala eriotza-estuntzok uřatzen: «Jauna'k etxea iragiko ezpa-dau ba, alpeřeko lana dagie egiten diařduenak». (Ps. CXXVI-1).

Ziñeste osoaz ta uste biziaz Josu Osagiĩe eřukitsuagana eldu gaiťezan, ta geure gogoa oben aztunpean iĩda ba'dago, beren esku altsua edatuko dausku jaupari-bidez diñoskula: Jagi ta zabiĩ. Eta batean biztuko gaitu. Eskeřak egin dayoguzan Osagiĩe maiteari oteundegian geure janaritzat, osakaitzat maitasun utsez gelditu dalako; ta apal-apalik albait sařien geure biotz-bařuan, Jaunartze-bidez, laztandu daigun ta emakume gaxoari lez osasuna, indařa ta adorea emongo dausku; baita geure neke samintasun gustiak arindu ta gozatuko ditu. Ořduantxe jakingo dogu, Josu'n buztařia leuna, ta beren legea ariña dala.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 16'gn.; 23'gn.; 30'gn. Deun-Ander, belduba: Elgaroko lenengo igandia.

Amabostaruon, gure Goteřkijon jai osorik ezta.

*Igandietan Kistař orok jaupa osua entzun-biař dogu ta otsein-lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 21'gn. Ama -Neskutza-Auřkezkundia.

22'gn. Koikiĩe-Deuna, neskutza, ziñopea, ereslari-Zaintzaĩia.

26' Miren Deunaren eta Joseba-Deunaren Eztegubak.

29' Deun-Saturnin, gotzaña, ziñopea: Iruña-Goteřkijan jayeguna: gauř amaťuten da Zapikarua.

## Azila 19 gn.

## Deun-Elixabete, emalarguna, Ungiriko bakaldunaren alabea.

Elixabete-Deuna, txiruen ama urgazle bera-berea, II' gařen Ander ta Gerturde Ungiri'ko bakaldunen alabea zan. Seintzarotik, esaterako, Miren-Deunaganako

## UDAZKEN-OLDOZKUNA – J.Z. 1919-134-174

Udazkeneko egun itunan
ortzea goibel dakustanean,
eta ausarditsu axe-erauntzia
sartuten dala zugatz artean;
orri gustiak irabioka
euren biziaz aztuta lez,
alkarren leyan ikusten dodaz
bildur-ikaraz iges-iges.

Goibel yartzen yat neure biotza;
oldozkun baltzez daukat itun;
poza damostan gauzaz aztuta
nai ez da yartzen naz oldoztun.
Zer dan bizitza? Gizona zer dan?
Irudi ontan argi dakust:
axe-erauntzian aldi zolia,
orriak gizona darakust.

Giza bizitza da axe zearka
egazka doyan txoritxoa;
ta elbururantza arin itxasoz
doyan ontzi bat indartsua.
Odei ertzean sortuta laster
ezereztuten dan lurruna;
aitz-erpin-zear igeska doyan
laño antzedun da gizona.

Argidirian laztan artean
yayo dan lora samur, eder,
eta arratsean bizitza barik
gelditzen dana iger-iger.
Udazkeneko egun ituna
axe-erauntzi eta orri igarra,
ludi ontako bizitz laburran
bakar-bakarrik oixe gara.

Orri samurra, laño-lurruna,
auts ezereza da gizona;
Zelan ba bizitz ain laburragaz
alkartu leike poz-zoruna?
Bakar-bakarrik bere gogoa
asetu leiken goi-bizitza
beraganduta zorunduko dau
auts, besterik ez dan biotza.

# Udazken-Oldozkuna

*Udazkeneko egun itunan*
*ořtzea goibel dakustanean,*
*eta ausařditsu axe-erauntsia*
*sařtuten dala zugatz ařtean:*
*oři guztiak irabioka*
*euren biziaz aztuta lez,*
*alkařen leyan ikusten dodaz*
*bilduř ikaraz iges-iges.*

*Goibel jařtzen yat neure biotza*
*oldozkun baltzez daukat itun:*
*poza damostan gauzaz aztuta*
*nai ez-da jařtzen naz olduztun:*
*¿Zeř dan bizitza? ¿Gizona zeř dan?*
*irudi ontan argi dakust:*
*axe erauntsiak aldi solia*
*ořiak gizona darakust.*

*Giza-bizitza da axe zeařka*
*egazka doyan txoritxoa:*
*ta elbururantza arin itxasoz*
*doyan ontzi bat indařtsua.*

*Odei eřtzean sořtuta lasteř*
*ezereztuten dan lurruna:*
*atx-eřpin zeař igeska doyan*
*laño antzedun da gizona.*

*Argidirian laztan ařtean*
*jayo dan lora samuř-edeř*
*eta ařatzean bizitza barik*
*dana gelditzen igeř-igeř*
*Udazkeneko egun ituna,*
*axe-erauntsi, ta oři igařa;*
*ludi ontako bizitz labuřan*
*bakař-bakarik oixe gara.*

*Oři samuřa, laño-luřuna,*
*auts-ezereza da gizona:*
*¿Zelan ba bizitz ain labuřagaz*
*alkařtu leike zoriona?*
*Bakař-bakařik bere gogoa*
*asetu leiken goi-bizitza*
*bẹraganduta, zorunduko dau*
*auts bezterik ez dan biotza.*

GABIREL. *Uřila, 29'a*

---

*Axe=erauntsia=vendobal. Oꞃtze=zerua. Goibel=sombrio. Argidiria=egun-sentia. elburua =punto de llegada=fin.*

Amabosteroko — inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
135'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ 1919 Zoŕnotza, Lotaziĺa-1'gn.



## JOsukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

### KANA'KO EZTEGUETAKOA

JOSU-KISTOK bere Jainkotasuna ta beraz bere irakaskintzak Jainko berberarenak zirala era askotara egiztu eban. Baña ageŕbide oron aŕtean, bere alatzak aŕgi berezia dagie. Bakaldun bakotxak bere ikuŕatza eukiten dau. Jainkoa'k be, gustion bakaldun dalarik, bere ikuŕatza dau. Alatz edo miraria da ikuŕatz au, edonok begiz jo leikena. Berau agertzen dan tokian Jainkotasunak eguzkiak baño aŕgiago egiten dau, ta Vatikano'ko Eleiz Batzaŕ Orokaŕak diñon lez (Ses III) gizon gustien adimenak egokiro uleŕtu leikena da. Ta Josu-Kisto'n Jainkotasuna erazagututeko egoki-egokiak dirala, Bera'ganako ziñesteaz batera, gure maitetasuna sendoagotu, ta bere Biotz-samuŕtasuna ageŕtzeko, alatzok ezagututea onuratsua ez ete yaku izango? Zio oneik dirala-ta, toki onetan, orain aŕteko goizpaŕki oŕdez idazti deunak azaltzen dabezan, Josu-ren alatzak ipintea otu yat. Ta Jauna'k lagun saiĺ oneri ekingo dautsogu. Lenen goizpaŕkiko itzak ipiñiko dira, ta gero atzalbentxo bat.

Josu-Kisto'n lenengo alatza, Kana'ko ezteguetan ura aŕdao biuŕtuta egin ebana da. Ara Jon deunak azaltzen dauskun lez: «Eta iru egun baŕu Galilea'ko Kana'n eztegu batzuk egin ziran. Eta Josu'ren Ama bertan zegoan. Josu ta bere ikasleai ezteguetara dei-egin eutsen. Eta ardao barik geratu zirala, Josu'ren Ama'k esan eutson Berari: Ardaorik eztauke. Josu'k erantzun eutson: Emakume, zuri ta niri zer dausku? Nire aldia ondiño ezta eldu. Orduan bere Ama'k otseñeri esan eutsen: Bera'k esango dautzuen edozer egikezue. Bertan aŕizko sei urontzi, Judataŕen gaŕbitzerako oi ziranak *metreta* bi ala iruko neuŕikoak. Josu'k esan eutsen: Urontziok urez bete egikezuez. Eta goiko ertzeraño bete ebezan. Gero esan eutsen: Orain a-

tara ta mai-zañari eroan egiozue. Eta eroan eutsoen. Mai-zañak ardao biuŕtutako ura txastatu ebanean; eta nongoa zan ezekiena lez, atara eben otseñak jakin aŕen, gizon gasteari deituta esan eutson: Gizon orok lenengotan ardaorik onena ipinten dau, ta gero naikotxu edanda dagozanean, txaŕtxuagoa ataraten dabe: zuk baŕiz orain aŕte ardao ona itxi dozu. Auxe da Galilea'ko Kana'n Josu'k egin eban lenengo alatza; ta bere aintza ageŕtu eban ta bere ikasleak Bera'gan (geyago) zinestuten eben. (Jon. XI-111.)

Alatz andi onen zeŕzeladatxo batzuk ipiñi daiguzan. Josu bere ikasleak lagun zituala, Jordan ibai aldetik Galilea'ra biuŕtu zan. Kaphaŕnaum'era joyan. Irugaŕen egunean Kana eritxon eŕira eldu ziran eta beŕtan auŕkitu eban Josu'k bera Ama Miren, eztegu batzuetara etoŕita. Kana Nazareth eta Tiberiades bitaŕtean egoan eŕi polit bat zan. Muñoz igurututako luŕ-aldea, zugazti edeŕez apaindua ta gustiz emokoya eida. Nazareth'tik iru ordu baŕu edo, Kana egi baten eskegita lez ageŕtzen da. Antxe Josu ta bere ikasleak ta Miren Ama Nezkutza eztegu ospatsuetan bildu ziran. Au irakuŕi ta baten bateri otuko yako eskon-baŕi zoruntsuok nortzuk ete ziran itandutea. Eskieŕ ezeŕ eztakigu; alan be, Jakitun batzuen eretxiz, eskon baŕia Simon Kanandaŕa, Alpeo, Joseba deunaren anayaren semea izan zan. Goizpaŕkiak baña eztiño eztegu batzuetara deituak izan zirala baño. Ezteguak eskon-gaya zanean eguaztenean asten ziran, eta emakumea alaŕguna izan ezkero egubenean, eta zoŕtzi egun irauten eben. Au zala-ta, edo jateitu geyegi uste barik bildu ziralako, ardaoa uŕituten asi zan. Josu'ren Ama'k oaŕtu ebanean eskon baŕiak igaro beaŕko eben lotsaria, bere Seme maiteagana uŕeratuta esan eutson: Ardaorik eztauke. Ta Josu'k erantzun eutson: Emakume Zuri ta Niri zer dausku? Begirada baten erantzun gaŕatza dirudi, baña amultsuki erantzun eutsola egiztuten da, Ama'k beriala otseiñei esan eutsenaz: Bera'k esango dautzuena egikezue. Josu'ren aginduz bete ebezan sei urontzi *metreta* bi edo irudunak (metreta baxotxak kantara bi inguru edo eukazan) urez goiko ertzeraño, ta atarata aŕdao edeŕ biuŕtu zala mai-zañak ikusirik gustiak aŕituta geratu ziran. Amen eztago an iñoŕ atzipetzerik, mai-zañak eskon baŕiari esan eutsozan itzetan ikusten dan lez.

Kistaŕ maite: Alatz gelgaŕi onek geure biotza nasaitu beaŕ dausku Josu maitagaŕiaren Biotz samuŕa, ta Miren Ama maitearen bitaŕtekotasun altsua begien auŕean ipinten dauskulako. Eskon baŕiak aŕtu beaŕko eben lotsaria ikusi eziñik, bere Seme gustia-aldabenagana uŕeratzen da, alatz au eskatzeko. Eta Josu'k, beaŕ ba'da bere Ama'ren bitaŕtekotasun barik egingo ez eban mirari edeŕ au, egin eban. Poztu gaitezan ba, bitaŕteko ain altsu ta erukitsua daukulako, Josu'k Berak geure Ama'tzat eta bitartekotzat emona. Geure estutasun laŕitasun, eta batez be gogoko atsekabe gustietan, geure biotzak uste biziaz Ama maitagaŕi onegana jasota, bere bitartez Josu'gana eldu gaitezan, ta bere Biotz samuŕa igituko dogu geure aldez bere alorodun beso ongilea eda tuteko.

GABIREL.

---

**Al dozunik geyen osfenduta dagikezun on gustija iñarfzen ba'dozu, luzaruefako zorunez zure gogua gozafuta ixango dozu.**

---



# Miren Neskutzaren Soŕkunde Garbijari

Miren garbija,
Ama mat̄ia,
Nua ni Zuri
Pozaŕen
Eta atsegiñez
Zure Soŕkunde
Edeŕ - edeŕa
Abesten.

Berak Jainkua
Ta bere Seme
Josu dauz gustiz
Alaitxen:
Beraugat̄ikan
Goteuna'k pozez
Zauz emaztetzat
Aututen.

Irukoitz Deuna
Zeu ikusirik
Atsegiñez da
Beteten
Augat̄ik dautzu
Donoki goiko
Bakalduntzia
Emoten.

Aten alaba,
Semien ama,
Emazte zara
Goteunen
Zeuk ba, bakaŕik
Euron bijotzak
Dozuz benetan
Asetzen.

Ludiko ixaki
Gustijak baño
Bikañago za
Jayotzen.
Jaunak zaulako
Eskaŕ ta doe
Edeŕenakaz
Apaintzen.

Zure goguan,
Ama mat̄ia
Obenik ezta
Auŕkitzen
Edeŕ - edeŕa
Orban bagia
Zariala zaut
Ikusten.

¡Gora ama kutun
Garbi, edeŕa,!
Itz auk nau pozez
Beteten,
¡Gora bai gora
Miren garbija!
Enaz aspeŕtzen
Esaten!

**Adiraltzalia.**

Amabosteroko
— inguŕtija —

# Jaungoiko-Zale

VIII Urtia
136'gn. zenbak.

EUZKELDUNEI EUZKERAZ

1919

Zoŕnotza, Lotazila 16'gn

Jaungoiko-Zale'ren bazkide ta
irakurle gustijei Gabon zoruntsua
opa-dautsie.

IDAZLIEK.



## JOsukisto'n Alatzak

(MIRARIAK)

### BAKALDUNTXO BATEN SEMEA OSATZEN DAU

Jon deunak onantxe azaltzen dausku:

«Josu ba, baŕiro Galilea'ko Kana'ra, ura aŕdao biuŕtu eban tokira etoŕi zan. Eta Kapharnaun'go bakalduntxo bat egoan, semea gexorik eukana. Onek, Josu Judea'tik Galilea'ra biuŕtu zala entzunda, beragana joan eta aŕen (Kapharnaum'era) jasteko eskatzen eutson, bere semea osatzeko, iltzeŕ (agoliñan) egoan ba. Josu'k baña esan eutson: Zuek alatzak ikusi ezik eztozue zinesten. Bakalduntxoak esan eutson: Jatsi zaite neure semea il baño len. Josu'k esan eutson: Zoaz, zure semea bizi (osatu) da-ta. Josu'k esandako itza gizonak ziñestu eban, eta ba'joyan. Eta bera biuŕtzen zala, moŕoyak uŕten eutsen, bere semea bizi zala esaten. Osatu zan orduatzaz itandu eban eta esan eutsoen: Atzo saspigaŕen orduan beroenak itxi eutson. Gogaldu eban ba aitak, ordu atantxe Josu'k esan eutsola: Zure semea bizi da; eta berak eta sendi gustiak ziñestu eban. Auxe da baŕiro Josu'k egin eban bigaŕen alatza Judea'tik Galilea'ra biuŕtu zanean.» (Jon. IV-46-54.)

Galilea'ko Kana'n ura aŕdao biurtu ondoren, Josu-Kisto bere Ama, senide ta ikasleak lagun zituala, Kapharnaum'era jatsi zan. Uri auneri Mattheo deunak (IX-I) Josu'ren uria deitzen dautso; bere irakaskintza Jainkotaŕak azaldu ebazan aldian bere bizkokitzat autu ebalako, ta baita bertan alatz gelgaŕiak egin ebazalako. Tiberiades itxasoen ipaŕ-saŕkaldeko (noroeste) basteŕean egoan, eta, bertako saleroŝketa zala-ta Josu'ren aldian ospetsua izan zan. An, dirudienez beintzat, (Luk IV) alatzen batzuk egin ebazan, zeintzuk eztakigu baña. Eta Igaratz edo Paskoa-jayak zirala-ta oitura zan lez Jerusalem'era joan zan. Bertan jayak igaro; alatz ugariak egin; lokaŕi batzukaz zigoŕ bat egin eta salerosle ta auxilariak (cambista) Elexatik at jauŕti ebazan, eurek lapuŕ tokitzat autu ebelako (Jon. II-23)

Baita Nikomedus, parixetaŕen aŕtekoa izan aŕen zuzena zanari; aizkiden bilduŕez gabaz ikeŕtu ebanari; bere irakaskintzak azaldu eutsozan, eta inguruko eŕi batzuk arakatu ondoren Samaria zeaŕ Galilea'ra biuŕtu zan. Samaria, ipaŕ aldetik Galilea, ta ego aldetik Judea, daukazan luŕaldea da. Judataŕak, Samaritaŕakaz aspalditik asaŕe ziralako, ezeŕtako aŕtu-emonik ezeben gura, judataŕentzat, «i samaritaŕ bat az» esatea irañik gaŕatzena zala gogaltzeak adirazten dauskun lez.

An be gustiok gaizkatzeko gizon egin zan Jaun maiťeak, Jakob'en ituŕia deritxon tokian emakume samaritaŕ bat onbideratu eban, eta bera zala-ta baita beste asko be, eta beŕtakoen aŕenez Sikaŕ urian egun bi igaro-ta, Galilea'n saŕtu zan.

Galilea'taŕak abegi ona egin eutsoen, Jon deunak diñoskunez Jerusalem'go jazokunak ikusi ebezalako. Eta Kana'ra eldu zanean, Kaphaŕnaum'en semea il-agiñian eukan bakalduntxo bat uŕeratu yakon, bera sendatzeko ezkatzen. Bakalduntxo onen ziñestea, aŕgala zan, Josu'k egoan tokitik osatzeko eskubiderik ezeukala uste ebalako, ta Josu'k gogoŕtxo erantzun aŕen, etzan koldaŕtu, ta baŕiro esan eutson: Jatsi zaite, neure semea il baño len. («Jatsiteko» esan eutson Kana Kaphaŕnaum baño 450 neurkin (metro) berago dagolako, ta batetik bestera zortzi bat orduko bidea) Josu'k eŕukituta esan eutson: Zoaz zeure semea bizi (osatu) da -ta. Josu'ren itza entzun eta ziñestu eban, eta etxerantz joyala, moŕoyak alaitasunez beterik bidera uŕten eutsoen bere semea osatu zala esaten. Noz osatu zan itandu eban eta erantzun eutsoen: Atzo saspiretan, (Batzuen eretxiz gure saspirak, eta beste batzuk diñoenez gure oŕdu batak). Eta izan be, Josu-Kisto'k «Zeure semea osatu da» esan eutson une atan beŕtan. Eta berak eta etxeko gustiak ziñestu eben. Etzan gitxiagorako zortzi ordu uŕin egoala Josu'k egin eban alatz edeŕau.

Kistaŕ maite: Alatz onetan, ludi onetako atsekabe ta samintasunak onurakoŕak jakuzala dakusgu. Saŕi askotan gexo ala atsekabe batek joten gaituanean, mutikoak amak zigoŕtzen dituanean lez gaŕasika asten gara. Ez baña, zerbait gogalduko ba'gendu. Maite daben umea amak bidez zigoŕtzen dabela ikusirik, noŕbaitek zeŕgaitik zigoŕtzen daben itanduko ba'leuskigu, beriala erantzungo geunke: Maite dabelako. Eta Jaungoiko geure Aitak ez ete gaitu bidez zigoŕtzen ¿ez ete gaitu maite? ¿Zeŕ dala ta ba, zigoŕtu ete geinkez maitasun utsez izan ezik? Atsekabeak geure biotza zapaltzen dabenean, malkoz eskotutako begiak eŕaz jasoten doguz Jainkoa 'ganuntz, bakalduntxoak egin eban lez. Atsekabeak, bide zuzena ikusteko adimena aŕgitzen dausku, giŕñak geure biotzari ezaŕi dautsen eŕdoya kendu

be bai, eta onetzaz gañera, ekandunez eta irabaziz geure biotza betetako bide-zabal lez diralako, betiko zorion ugaria lortutekо biderik laburena dira.

GABIREL.

# Doibatz-Egutegija

IGANDIAK: 21'gn.; Deun - Toma, belduba; 28'gn.; Sein - Ziñopeak.

JAI OSUAK: 25'gn. Josu - Kisto'ren Jayotza.

Adalsende Deuna, neskutza, laburditara; *Igande ta jai osuetan kistar orok jaupa osua entzun - biar dogu ta otsein - lanik ez dagikegu.*

EGUN IXENDABAK: 18'gn. Itxarodun Ama Neskutza: gaur asita Josu'ren Jayotzako egunerarte, bijak barnalki, señak galdu ez dadixantzat egunoro bederatzi Agur Miren otoi - egitia onuratsu - onuratsuba da.

19'gn. ARATUZTE—aragija izteko eguna - barau - eguna ez baña.

20'gn. ARATUZTE—aragija izteko eguna-ta barau - eguna.

26'gn. Deun - Estepan, jaupaltseña, lenengo ziñopea, jai osotzat zaintzen doguna: gaur asten da zapikarua.

27'gn. Deun - Jon, Goizparkilia, jai erditzat zaintzen doguna.

31'gn, Deun - Silbester, doipuruba, autorlia jai erditzat zaintzen doguna. Urteko azkenengo eguna dan ezkero, urtaldiko azteren bedegara egikezu; uzte baño uts geyago didorokezu; urte barirako erabaki senduak artzuz ta Jauna'ri eskara eskatu ta bete egikezuz. Len be iñoz atatu dautzugu: gaur gabean, zorakeriz zure buruba ezaindu - barik, auzuak eta alkarenagana batu, ta,sakabanatu baño len, bakotxari, urte bitartekeko, zaintzalatzat Deun bat, zotzez-edo, ixendau egiketsozu, ta zeuretzat be autu egikezu.

## LOTAZILA 27'gn.

# Deun-Jon, Belduba ta Goizparkilia

Jon, igarlia, belduba, goizparkilia, ta ziñopea Galilea'ko Betsaida'tara zan. Ze-

## BETHLEM´GO ESTALPEAN – J.Z. 1919-136-191

«Askatxo baten lasto gañean,
zakustan aurroi dar-darka,
abelapalak euren arnasaz
berotzen zaunoi nor zara?

«Estalpetxo bat ez da zeurerik?
Ezta seyaska zar bat be?
«Maite; nor zaran esakedazu,
ez dazaut ba iñor ain gabe.

«Txirotasunan seme ete zara?
Ezertxo barik zagoz ba.
«*Apaltasuna* da zeure izena?
esan, yakin nai nago-ta».

Bidezti batek auxe galdetu
eutson Bethleemgo
txabolan, ta, Yosu maitek
askan zegola erantzun eutson
onelan:

«Ni naz ludiko Yabe Bakarra,
Yaungoikoaren Semea,
Izaki oron Iratzalle ta
ludi gustiko Argia.

«Askatxo baten ikusiarren
etzaitez geldu gizona,
zeugaitik Gizon egin naz ba, ta
*Maitasuna* dot izena».

* * *

«Yaun-maitasuna...! Yaun-maitasuna... !
Nok neurtu zeure indarra...?
-Esaten gurtu eban biotzez
Yaungoiko-Seme Bakarra.

# BETHLEM'GO ESTALPEAN

*«Askatxo baten,*
*lasto ganean,*
*zakustan auŕoi*
*daŕdaŕka,*
*Abelapalak*
*euren aŕnasaz*
*berotzen zaunoi,*
*¿nor zara?*

*Estalpetxo bat*
*ezta zeurerik?*
*ezta seaska*
*zaŕ bat be?*
*Maite, noŕ zaran*
*esakedazu,*
*ez dazaut ba iñoŕ*
*ain gabe.*

*Txirotasunan*
*seme ete zara?*
*ezertxo barik*
*zagoz ba.*
*«Apaltasuna»*
*da zeure izena?*
*Esan, jakin-nai*
*nago ta.»*

*Bidezti batek*
*auxe galdetu*
*eutson Bethlem'go*
*txabolan,*
*Ta Josu maitek*
*askan zegola,*
*erantzun eutson*
*onelan:*

*«Ni naz ludiko*
*Jabe Bakaŕa*
*Jaungoikoa'ren*
*Semea,*
*izaki oron,*
*Iratzal̄e ta*
*ludi gustiko*
*Argia.*

*Askatxo onetan*
*ikusteaz ba*
*etzaitez geldu*
*gizona,*
*zeugaitik gizon*
*egin naz ba ta,*
*MAITASUNA dot*
*izena!»*

. . . . . . . . . . . . .
. . . . . . . . . . . . .
. . . . . . . . . . . . .

*Jaun-maitasuna...*
*Jaun-maitasuna...*
*¿nok neuŕtu zeure*
*indaŕa?*
*esaten, guŕtu*
*eban biotzez,*
*Jaungoiko-Seme*
*Bakaŕa.*

GABIREL.

*Txirotasuna*=pobreza. *Izaki* =cosa creada. *Abelapala*=animal humilde. *Iratzal̄e*=Creador. *Ludi*=mundo.